



AMAREN ETXEA

Félix Zubiaga

Amaren etxea

Felix Zubiaga

© Felix Zubiaga Legarreta

Azalaren diseinua eta maketazioa: Felix Zubiaga Legarreta.

Ekoizpena: Erroteta

ISBN: 978-84-15508-89-2

Lege Gordailua: BI-1746-2017

Inprimaketa: Printhus

Autorearekikoa

Telefonoa: 94 673 04 86./48340-Amorebieta, Orue (Bizkaia)
edo <fzubiaga@orue.biz>

**Amaren
etxea**

Felix Zubiaga

AURKIBIDEA

SARRERA.....	9
I. AMAREN ETXEKO MANA.....	11
1.1. Amane, Amarene.....	11
1.2. Amaren etxeke soloarien una.....	13
1.3. Onenzaro edo zeruari omen.....	14
1.4. Suilaro, neguko sugarria.....	17
1.5. Iduzkiaren jotea.....	19
1.6. Aireko eroiak eta Orenzaro.....	21
1.7. Ilu auldua eta Olentzaro.....	24
II. ZAZPI ZUTABEKO ETXEA.....	26
2.1. Hierogamia edo jainkoekiko eskontza.....	26
2.2. Gorputza, Ka kaizua eta gaia.....	29
2.3. Norbere baita, Ba, benaren bidea.....	30
2.4. As espiritu eta sakratuaren azkarria.....	32
III. AMAREN ETXEKO ITUGINAK.....	35
3.1. Uren gardentasuna.....	35
3.2. Eguzkiaren txera.....	37
3.3. Aireko eroien errak.....	39
3.3.1. Errensubia eta Mikel Enangerua.....	42
3.4. Ilu, jainko alena.....	44
IV. GIZA JAINKOTUA, ETXEKALTE.....	45
4.1. Enki, "ur barrenen" banatzaile.....	46
4.2. Inanna, zeru-lurretako erreginarene me-ak.....	47
4.2. Gilgames, eroi eroa.....	49
4.3. Ptah, hitzaren magia.....	51
4.4. Marduk, Ama jainko eraile ankerra.....	54
4.5. Magiaren apaizgoa.....	56
4.6. Apaizgo arrunta denontzat.....	58
V. AMAREN ETXEA ETNOGRAFIAN.....	60
5.1. Amaren etxea jaiotetxe.....	60
5.2. Amaren etxea, eskola.....	62
5.3. Amaren etxea, tenploa.....	63
5.4. Amaren etxea, asaben jarlekua.....	65
5.5. Amaren etxea, eskubide gunea.....	67
5.6. Amaren etxean, etxandera>santera.....	68

VI. AMAREN ETXEA, IKERLAN.....	70
6.1. Astronomia eta Ama izarratua.....	70
6.2. Iduskiaren inguru mobitzen ei gara.....	72
6.3. Eroi eraileak historian.....	74
6.4. Sikologia eta amaren etxea.....	75
6.5. Tokologia eta amaren etxea.....	77
6.6. Teologia eta amaren etxea.....	78
6.7. Amaren etxea eta ekonomia.....	80
6.8. Ekologia eta amaren etxea.....	81
6.9 Amaren etxea eta <i>eleiker</i>	84
VII. AMAREN ETXEA ETA INDAR BERRIZKORRAK.....	87
7.1. Amaren etxea bere baitan.....	89
7.2.1. Amaren etxea ur bizietan.....	91
7.2.2. Uraren bide luzea itxasoraino.....	92
7.3.1. Amaren etxea eguzkitan.....	93
7.3.2. Eguzkiaren gora-berak.....	94
7.4.1. Amaren etxea eta airea.....	95
7.4.2. Amaren etxea eta espiritua.....	96
7.5.1. Amaren etxea eta lurra.....	98
7.5.2. Amaren etxea eta lurraren zoria.....	99
7.6. Amaren etxea, teologia ezlea.....	100
VIII. AMAREN ETXEA, MEMORIAN.....	101
8.1. Amaren etxean, memoria sorle.....	101
8.2. Uraren memoria arrokari.....	103
8.3. Argiaren memoria enborrean.....	104
9.4. Airearen oroitza dantzan.....	105
8.5. Amaren etxea, eskarmendu gordailu.....	107
8.6. Amaren etxea hitzaren memoria.....	109
8.7. Amaren etxea, teologia memoria.....	111
IX. BIDE GILEAK	116
9.1. Carl Jung eta sikiatria sakona.....	117
9.2. Bachelard eta lau elementuen dantza.....	119
9.3. G. Durand eta mitoanalisa.....	121
9.4. Ivone Gebararen ekofeminismoa.....	123
ONDORENAK.....	125
ETIMOLOGIAZKO HIZTEGIRAKO MITOANALISIA.....	129
BIBLIOGRAFIA.....	139

Eskemak eta oharrak

Gramatikako pertsonak eta NOR ordekarriak arketipoen arabera.....	26
Oihuzkoen analogia arketipoen arabera.....	27
Amaren etxeko barazki, belar, zuaitzak arketipoen arabera.....	28
Gonbaraketako hizkiak arketipoen arabera.....	29
Giza bizitoki izenak arketipoen arabera.....	33
<i>Adapa</i> ^(s) / <i>Abata</i> ^(eus) > <i>Ptah</i> ^(k)	52
<i>amatu/amakatu</i> > <i>magia</i>	54
NON, NOIZ, NOLA hiruko egitura, arketipoen arabera.....	76
<i>ESAN</i> izen eta aditzak arketipoen arabera.....	84
ADIMEN HITZ-ADITZEN analogia arketipoen arabera.....	86
SENTZU hitz-aditzen analogia arketipoen arabera.....	88

SARRERA

Amaren etxea aratza da, baratza dauka aldamenean eguzkitara eta etxekoek “ortua” deritsoe lur zati honi. Ama bera, etxean ez badager, ortuan dago eta familia ugaritzen joan den arian, atal berriak erantzi dizkio ortuari, barazki mota bakoitzari bere saila opa diola. Etxetik sakabanatuago gelditzen dira soloak, bada, etxeen historia paperera jaso orduko, lurraren jabegoa “hau gurea, beste zuena” halantxe banandua izan zan auzokideen artean.

Amaren baratza ekologia garbia da, eta bere esku artean landaretzaren biologia gertatzeraino, noiz ura, noiz eguzkia, noiz airea, noiz jorra, izadiko elementuotatik ikutuz eta ikusiz, ikasi bailuen. Harrigarria zaio, berak azi ona ereiten duen ildoan bertan lurrak zizareei ere toki egitea. Asabek koban bizi omen ziran eta halako zuloak bizitoki-gordeleku egokitzen dituzte gaurdaino patariiek, baina amaren etxea zurez, arriluz eta harriz barrizten joan zan.

Soloariak urteko ogia ematen du etxerako, baina baratzak eguneroko eltzekoa gozaten, dela zopa edo babak eta gainerako elikadurak *giza* erataria *gisatzen* laguntzen digu. “Amaren eskua” deritso, nahiz orokor “giza era” aipatu, baina amarena da ekologia *gizatasunez* jantzi duen sena, lurrak lurkoi ondarea bezala, amak gizabidez familia osotu duelako.

Etxea <esi edo jasotzetik, ala lur elkorra aratzetik hasi zen ikusi egin behar, baina lur *aretua aratz* gelditu zan eta, amak arduraz baitaratzean, *baratz* egiztatu, etxekoen mamigin emankor eta gozagarri bezala. Bide beretik, amak etxe barruan eskaratza egokitu zuan, suteari kebidea ideki eta jakiei gisadura gustagarria emateko sua prestatu duen txokoan. *Aratz* izatetik datorkela *eskaratz* izena, *esku baratza* bailitzan? Ez da aztu behar “etxeko sua etxeko autzaz estaltzen dena” eta etxeko hilak etxean otsitzen zirena.

Artean eskaratza bera ere bean lurra eta goian euria zan, eta artean airea, baina su elementua etxekotu zenean, eta haren domeinurako suhurtziak suatzak asmatu, etxea santutegi gertatu zan, hotz, jainko egile guztien etxe. Haraz gero, etxean jaioa etxean ehortzen zan, etxeko hilen eta bizien arteko lotura amaren ardurakoa zela, *etxandera* bera bai-zan etxe santutegiko *santera*. Etxeko

hizkuntza bera ere, amaren erritualetik sortuneko berbeta da, aita-senarrak eta seme-alabek ere aise ulertzen dutena.

Amaren etxea toki aparta da, lurdian baradisua sortu zenetik. Baradisua joana da, baina amaren etxea oraindino amaitu gabeko poema da, zeruak eta lurak asmatu duten poemarik ederrena ere gerta daiteke, baina Baradisua lardazkatu zuen azpisubeak zema-pean dauka: Amaren etxea pikutara joan daiteke etxekoekin batera, hala ohar egin dio Putin jaunak gaur bertan (abenduak 2, 2016, Deian) Trump jaunari nazioarteko terrorismoa dela eta atomikazko zartatekoaren arriskua aipatzean. Guzurretan ala benetan? Nork jakin! Armamentuaren negozioa, maxiprodukzioaren goragalea, petrolioaren txorrota eta matxismoaren erronka daroe azpisubeek, lehen bezela gaur ere, baina inoiz baino minago gaur, Amaren etxeari kalte egiteko boterea eskuetan daukatelarik.

Zer gertatzen da bada? Auzoko indartsuek, amen baratz guztiakin bat egin eta arlo guztiak droga belarretarako izan behar duela erabaki omen dute, erreka urez andepara nausia egin eta urari prezioa ezartea otu zaie, baso guztiak pinutarako izan behar duela bozkatu eta matxismoaren planekin ez datorrena etxetik kanpora bota, amaren etxetik kanpora. Matxismoak begizkoa deutso amaren etxeari.

Baina eguneko berriez barik, poemagai den Amaren etxeaz ari garenez gero, etxeko denak gara poemagai eta etxekook etxeko amaren sua berogarri eta argibidetzat hartzera, hotz, amaren esana egitera gonbidatuak gara. Bai, aitak ere ba du bere sena, amarekin batean familiaren onerako adostu bai-zuan, eta haraz gero asarretzeak ez du balio. Eta hori etxeko guztien ardura denez, onean eta bakean elkarrekin konpondu beharra dute.

Halakoak jazo izan dira munduan den "amaren etxean", maitasuna oskildu eta norberia puztu izan diren bakoitzean eta hori mundua "amaren etxea" denetik eta hona, hau da amaren etxea, umez bete zenetatik. "Umeak?" Ez, umeak ez dira errudun, jatorrizko pekatua hor erakundeetan izkututzen den ustela izkutatzeko mitoa da. Umeak, berez, gurasoen poza dira eta gurasoen batasuna, umeen poza eta horretan dirau *baradisu* amaren etxeak.

1.1. *Amane, Amarene*

Ene jaiotetxea *Amane* zan lehenago, *Amarene* gero. Hala ere, etxearen tokizena Bardetxe da auzoarentzat, baina jaiotetxea amarekin bateratzen gendun *Amane*¹ eta *Amarene* deitzeraino¹. Hanartean ostaz genekian etxea Bardetxe zenik. Bardetxe? Nor bizi zan Bardetxan? *Amane* aitatzean ostera, ba genekian, ama etxean zela, “Ama!” deitzea baino ez gendun, han agertuko zan ama. “Zer behar dozue, laztanok?” -amaren erantzuna. Behar genduna, barriz, ura, ogia, sagarra, gozokia... Eskolaume ginala eta egarri etxetik ate, *Julinanera* joaten ginan, ura edaten. *Juliana* zeritson atea idekitzen eta ura edatera ematen zigun andrea eta kantxinak agortzean, barriz, iturrira ostera bat egiten gendun eskola artean, “dagonean bon-bon, eztagonean jun-jun” moldatzen ginala.

Beste gozo bat eukan norbere etxeari *Amane* deitzeak, beste nabastarrea eta jabegoa, bada, *Amane* deitzetik *Geure*, *Geurera* aitzera salto bat baino ez zegoen. Lagunartekoak ere *Geurera* gonbidatzeko eskua emoten zigun. “*Zuenean* ondo, baina *Gurean* hobeto” ume artean eztabaidatzeraino.

Geuk ere, ez uste, txikitan geure barrabaskeriak egin ditugu: Noiz edo behin txoriabitan joaten ginan auzotik aparte eta lagun batzuk txoriabia ikusi bai, baina ikutu ez egiteko lema jarraitzen gendun, batez be arrautsekin eta harago kumeekin ba zegoen. “Ez ikutu, txoriamak abiari gorrotoa hartu ez diezaion”. Txorikume ahula eskuan hartzean, ostaz sentitzen gendun urretik pioka ebulan txori amearen larria, ohargabe ilunean genuen oraindino begirunea, *Amareneko* amaren deiadarrak eta txori abiaren apeguko pioak. Ez genekian amarenetik abira, etxetik abira, analogizatzen, hagaitik lagunetariko batzuk zakartxoak ziran halako bizigunetan.

Amarenean bizi diraino, ekuru dagoz abere kumeak. Kubiamak

1 *Ama* izen propioa lez hartzen gendun eta *ama>aman* “aman etxea” genitiboa egokitzen, “Joseñ txamarrea” eratara eta ez “Joseñen txamarrea”. Geroago baten, izen berezia orokorretik bereizteko *-re-* artizkia sartu gendun, eta *Amarene* ere esaten gendun, “goazen geure *Amarenera*”.

ba daki zuloaren ataka takatzen eta edozki orduan, kumeei atea idekitzen, edaraziz gero, ostera ere, azagari demoniñoei atakatzeko. Txoriameak abiraino dakarkie txitoei gozaria. Zuloan bizi-rik jaio diren kuitxoak edo abiko arrautsetik burua atera duten egaztiak, bizian eta urbiletik erakutsi digute zertan den bizi abentura. Zuloa edo abia uztean, orduan izaten dira larriak, orduan eiztari ankerrak, orduan iñoren odolzaleak, orduan andiak txikia jan irrikak. Izadia jakinduriaz ezezen, harriskuz beterik dago eta jakinduria horretan da, harriskuari iges egitean. Amak ere, ikasiaren buruz daki inork baino hobeto zeintsu diren umeen bizibideko pausoak.

Gure biziguneko mundua, txoriaren abia>kabia antzera, ezarria izan da lurbiran: txoriabia zuhaitzaren adarrean, gizakien bizigunea, kosmo zabaleko, adartxo honetan. Ez uste adar bakoitzak bere kabia duenik, ez galaxia bakoitzak gizakiontzako bizigunerik. Txoriabia zuhaitz adarraren pentzudan dago eta haizetan kulunkatzen da. Gu ere eguzkiaren ardatzean eten gabe mugitzen gara, gure ikuskizunen adigarri eta babes makoa dugun zerupean. Handik ura biltzen dute gure mendiek eta erre-kak sortzen dira gure egarriaren aserako eta gure baratzen bus-tigarri. Eguzkiak egunero laguntzen digu geure arazoan bidela-gun eta eguratzaren epelgarri. “Ez otz eta ez bero, hori da gure giro” esan ohi dugu eta gauez “amaren sua” edo sutondoa. Kontuizu, dena aukeran, baina ez ardura eta ahaleginik gabe.

Haize zakarrak jotzen duenean, txoriabia lurrera erori ainean astintzen du, baina abia belar lokarritz adarrari ondo erantzia dago. Ai, lokarriak etengo balira edo adarra bera autzi, arrautzak lurrean eta ondatuak lirake. Euri jasa denean txoriamak egoez aterpea egiten die kumei, amaren etxeari ur bitarako teilatuak bezala.

Txoriak zuhaitzaren altura bilatzen du, inoren eskutik jaregin, eta amaren etxeak eguzkiaren giroa, galaxia handiagoetatik berezi. Ilargira joan eta Marte arakatu dutenek ez dute idoro baratza non urratu edo etxea non eraiki. Gure etxea soilik lurra da, lurra baka-rrik, betidanik hala erabagita bailegon. Nork? Zergaitik? “Ez bai-gara bizi geure baitan”. Bai zihur, ordea, amaren etxean.



Paperezko abion bana eskuratu orduko, amaren umeak, Josu, Ane ta Mikel, txorien pozaz doaz zelaira. "Ni hodeietan", "ni zeruan", "ni eguzkiraiño". "Bai, kizkaldu eingo haiz" ... Ordu bi igaro direnean, gogara asaskatu eta gero, egarria zintzurrean, gosea tripan, "goazen etxera" hotz egiten du Anek eta Josu lainoetatik eta Mikel eguzkitik jatziazto eta aman etxera behingoan.

1.2. Amaren etxeko soloarien una

Aldi baten soloarien unak inutu gintuen eta sasoiko neska eta mutil egin. Orain ogia okinak ekarten digu egunero. Amak fota, ritxa eta abar bereizten zituan, baina guri gehien gustatzen zitzai-guna tremesa zan. Beltzeran, latz xamarra, baina biguna, gozoa. Garia azten ikusten gendun, "txikia nintzan, andia nintzan..." eta udabarriko zaparrada baten ostean, baserritarrak patxara handiz "kanpoa proba egiten dago" esaten zuan.

Bardetxeko garia ondo zoldua izaten zan eta poxpolinak kumak atera orduko itaitzen gendun. Poxpolin kumeak ez ziran itailarien eskuetan jausten, amek berekin oinez eroaten zituan itailarien aurretik eta pozarren "poxpolin" abeska jarraitzen zuten zati baten, galburua gertutik zuteino, elkarri deika. Gariak metatu irauten zuan soloan bertan aldi une batez, galgarauna amanetik salta ainean, garijoteen txanda eldu arte. Garijoteok auzolanean egiten ziran etxez etxe, batek hogeitane eta besteak berrogeitane auzolanean. Eskuz eta harrian jotea zen aldi bateko nekea gero makinaz emendatzen zena. Guda ostean, abas-tokoek eunetik hainbesteko "gari" *ordeum* kopurua kentzen ziguten, antxinako erromatarrei eman beharreko *ordea* bezala.

Artoaren urrezko bizarrak ere ezagutu genitun. Gari soloak eta arto soloak eta urterik urte uzta aldagarriko izaten ziran. Garia semendian ereiten zan eta urrengo uztailean uzta, zazpikina zuan umea beraz. Artoak ere halatsu, baina hiru-lau ile geroagoko epean.

Arto lastoari erantzia ondo ematen zuan indabak, lasto berean uzta bikoitza izaten zela. Indaba ahienak banaka banaka apartatu eta etxeko balkoetan eskegiten ziran, xibita ordurako ondo legortu

lekatik salta hainean egon zitezen. Auzuneko etxeak arpegi ezezaguna ematen zuten, balkoiak indaba ahienen marroaz antzaldatu. Solo arien una zan, una eta erabat guna. Gun haretatik jaten ematen zigun etxekoeri Amarenek, etxeko eta kalekoeri, bada uztaren erdiagino saldu egiten gendun, amak astero plazara egiten zuan osteretan. “Zerua portaten denean, denentzako egoten da” esaten zuan amak, euri ongarriak aipatzen zituela, edo “ura da, gu gara”.

Uztaren garauna ogi eta talo biurtzeko errotara bidea egin behar izaten zan. Amarenek ba zeukan Errotia izeneko urgune eta ur jau-sirik, baina uriolak behin maldan bera eroan omen zuan eta agur. Nik ez nuan ezagutu, baina tokizenak gogarazten dit han aldi baten errota zegoala. Niri astoa zamatuta eta Errekalde Beheko errotetara osterak egitea egokitzen zitzaidan egunez eta gauez. Guda ostean gauez, abastoko txorimaloei ezikusia egitearren. Neure angeru jagolea izaten nuan neugaz eta, amak esanda, hari kantatzen nion bidean bildur mamuak uxatzearren.

Soloarien ardurak ez zuan langabeziarik. Ostaz uzten zioten base-riari bakazinarik negutean, etxeko erredizak, lanabesak edo teilatua konpontzeko hainean. Ama ehunean eta aita gaztain zumitzez estoldak ehunten, ama txamarraginen eta aita abarkaginen, ama jostun eta aita arotz, arik eta eguzki berriak idiak uztartzeko ordua jo arte.

1.3. *Onenzaro edo zeruari omen*

*Onenzaro*² “Gabon gaua” zeru Jainkoaren omenezko ospakizuna omen zan gure asaben oroitzan, zeruari sor zielakoz *on* eta *un* guztia. Izan ere, zeruko ura baratzeko lurrak ezkontzen da, guri *onura* prestatzen. Gure amaren jorraiak ere hantze, etxeko ortuan, ekiten zion bedar txarrak kendu eta sukalkirako tipulak, azanoriak, babak, idarrak, marrubiak, etabar luzea prestatzen.

Uzta onari eskerrak, gure asabek negute lasaia igaro ahal izaten

2 Zeren aldia dela? Euskararen oroitzari eta herriko erritoen kate luzearenari galdetu behar. Gero gonbaratu gure mitoak beste herrien mitoekin. Izen bereko ospakizuna, *Anunzaro* deitua, ospatzen zan Babilonia zaharrean. Haien Jainko “zeru” Amaren semea *Anu* “zeru” zeritson, *Anunzaro* “Anuren azaroa” da. Haien aide urritek *Inu* “Anu txiki”, gurean bezala, *Inotean* ospatzen dugun->



Andromeda galaxia, lurra kokatzen den galaxia txikiagoaren ondoan. Niminoagoa da, halan ere, txori abia zugaitze andiaren adarretan. Edo gonbaratu lurbiraren borobila arrautsa batekin: Gure galaxia gure amaren etxea dagoen arbola bezala da, geure bizitokia eta babesa. Asieran etxea biribilean egindako *esi>etze>etxea* izan zeiteken.

zuten. Kaixan gordetako uruna orduan zan ogi gozo edo morokil beroa. Onenaroz herriak auzoko mendi gorenera igoten zuan zeruari esker-
rrak emon eta harekiko itunbena urtero berritzen: “zuk guri lagun eta
gu zure lagun” otoizten bezala. Mendian, ahal bada, sua biztu, txori-
xo muturra txi eta mokadua jan lagunartean³. Ez daukate, euki,
egiten dutenaren kontzientzi argirik, baina ohargabeen daroe,
amek bederen, umeak eskutik oratu eta haraino bultzatzean (ikus
16 or.) eta gizonezkoek ere ardao zurruta egin ondoren “legea
bete diagu” esatean.

Hor sartzen da bai ta ere, herri askok, kristautu aurretik, urte
buruan, uzta ona zela-ta, Goikoari eskerrak emateko ohitura.
hori Kixmi jaio aurretik ospatzen asi zan eta Olentzarok ikatz egi-
ten ikasi orduko. Gero, aldien berritzean, eleizak, Abenduan asi eta
Gabonaldi berezia antolatu zuan eta herriak abesti pozgarriez
jarraitzen du gaurdaino, Ama Jainkoaren zerutar *una* Kixmiren
etorreraz⁴ gizatasunezko *guna* bihurtzen digula.

>gunez, euskerak *Anu/Ino on, un, no, uin, ni, ene, une, hona*, etab. iturritik
bezala, analogizatzen ditueno.

3 Bilbotarrek Pagasarriira igoten dute, txiki eta andi, gizon eta emakume, aba-
deen gidaritzara barik, Abenduko laugarren domekan. Pagasarrin ez dago ermitarik,
(harrizko zutabe bat kurutzatxuearekin bakarrik) ez zeru idekia baino beste santu-
tegirik. Beste herri askok mendiketa bera Gabonzarrez egiten dute, zeren edo noren
omenez egiten duten ez dakitela, mendizaletasun utsaz, behar bada.

4 Kixmiren mitoa dager Ataunen, J.M^a Barandiaranek kontatzen digu-
nez, asaben siniste aldia, kristinauen sinistra eldu zenekoa. Lehena eta >



Egualdi lainotsu eta guzti, **Paga-sarrira bidean** gora, ohiturazko legea betetzearren. Aurten (2016) zazpi milek igon dute, ezer ez ta festa, esan ohi den bezala, txistu eta tanbolin eta bbk antolaturiko laguntzekin. Gogorrago dute Gabonzarrez toki askotatik Gorbeia igoten dutenek. Ohituraren apostua da. Mendiak berez tira egiten du, umeari gurasoen eskuek lez, hagaratik ohiturazko ekintza bat egiten dugunean, geure ohargabea argitzen zaigu eta arketipo horren jainkotiar funtsaz konturatzen gara...

Urtarrilean hodeieri begira ezeze, jarraiko Inotean Ama Jainkoaren seme *Ino*⁶ Jainkoari *inoak* abesten dizkiote eta inzinizko eskariak egiten, harek bezala, lurtar seme-alabek *eñea* ugari izan zezaten. *Inotea* zan “Inoren garaia”, (Ikus Inotea 17 or.) *Ninot* Valentzian, sutxaplio larrian milatik *nini* baten irudia soilik salbatzen denekoa⁷.

Ononzaro eta *Inote* ospakizunok negualdi osoa betetzen zuten eta gero tartekatu zen Abendu-Gabonaldiarekin parekide hazi eta irauñ dute bata eta besteen arteko asarre handi barik⁸.

>oraina elkarkide joan dira euskal munduan, baina bata iluntzen zelarik, bestea argitzen.

5 “Urte berri zereki? Urteko eguberri guziak kareki” Bidangozen esaten denez.

6 *Inoa* Jainkoari egin goralpena da. Sumarren du asiera idazki mota honek Sumertarrek *inoak* eskariekin nastatzen zituzten. Euskeraz *ino* “esan” da.

7 *Ninot* hori eta *Inote* lehengusuak dira, euskera eta iberiarra bezala, nahiz Inoterien asieran barik, han azkenean ospatzen den. Han kartoizko piurak denak erretzen dituzte *Nini* batena izan ezik, *Nini* hori etorkizun oinarri bailitzan.

8 Eliz gizon batzuk ez zuten Jainkorik berezi klerikarismo okerreanean ere. Hagaitik irauñ du errien siniskerak eta debozino hoiek, Frantzisko Aita santuak Jesuiten 36^o batzarre orokorrean aitortu duenez.



Txikien eta nagusien taldeak osatzen dituzte “inude eta artzaien” taldeak Bera, Etxalar eta Lesakan. Honako hau Donostiako nagusien pasea da. Antxina “inude eta unaien” kalejira deitu bide zan, **INO+te** formatik bai-dator *Inoteri, inude, eñe, aina, nini, unai*, etab. zerrenda luzea. “Bestetan ez bezela, hemen gaztedia/amaren sabeletik dator ikasia” abesten dute. Errittoa da: Amaren etxea amaren abotsa entzuten den ikastola ere bada-ta...

Baserritik kalera, kalea mendian (ezker aldean) eta kalea kalean (eskumaldean) herriak ohargabe ilunetik argitaratzen diharduen ahalegina. Zelan ohartuazi barne arketipoa? Jung maisuari deitu? Errittoa eta euskara, horra gure barne historiaren argigarria. Ezer ez ta festa orduoro, baina haratago, barne ilunean, zerbait geihago dagoela...

1.4. *Suilaro, neguko sugarria*

Ama arketipoa aurkitu dugunez gero, egoki da Aita eredu zaharra ere aitatzea. “Amaren sua” esan oi da⁹, baina sugarriak aitzak igaro ditu bere bizkarrean, edo gurdian. Amaren zeru itxasoak ozkil zegoken, *Utu>su* garrak goizetik gauera, asi argi txintatik eta iluntzera, berotuko ez balu. Horra, bada, *Aita* izen eta sinbolo egina, *uTu>aita* arketipoa. Utu Aitaren jarraipena urrago eta Amaren zeru anila dunduago.

Inu analogiaren errepikatik Barandiarenek ere, antxina baten “zeru” hori *In* izan behar zuela ohartu zigun, eta euskalkiak berak aurkezten digu *Utu* ereduaren senidetetasuna ere, *Iduzki* izena bizi-rik gordetzean¹⁰. Euskaldunak bere baitan, ohargabean, ditu arke-

9 Bittor Kapanaga bere tamainako igarlea izan zan euskaldungoari dagozkionetan. Behin Gontzal Mendibil kantari lagunak G. Arestiren “Aitaren etxea defendatuko dut” olerkiaz berba egin zion eta Bitorek apalik erantzun: “Halan be, euskaldunon artean, obe *amaren sua* ospatu”. Zelan igaro, ezpaere negute luzea, nola itzuri otzaren ortza, amaren sutondo barik?

10 *Iduzki* “eguzki,” Nafarroa Goian, “ehortzi” Andoainen, *Iduzkibegia* “eguzki printza”. Nola daiteke izen bera “eguzki” eta “ehortzi” adierazteko? “Analogia da hizkuntzaren garaipena” (M.Müller). Iduzkiak egiten duena bera egiten du gizakiak: hemen sartu, han, beste munduan, urteteko. Analogia ezeze, kristau fedea dago hilen ehorzketan. Berdin gertatzen da jatorrizko forma *Utu>otsi* hartuez gero, *>utzi>itzi*. *Utu>Idu+-zki, -zka* nimino kasta adierazten. *U->I-* eratorzea, berriz, hona *uturri>iturri, uduri>iduri, udi>idi, uri>iri*, etab.

tipo hoiak eta euskaraz eta euskalkiez baliatzea baino ez du baitatik argitaratzeko, gure Eskola Nagusiek pizka bat argituko balute.

Utu>*su* eratorriak *Suilaro* dakar negu gorrian eta *sutarako su-garriak*, *su+atzeak*>*suhaitzak* eta euretan porrondoko deritzaion mokor lodia. Beraren mutur lodia etxeko suteraino sartuez gero, negurako ezeze, asmotan urte guztirako lorra izan zeiteken amaren zaintzapean, *Utu* goitarrak *suatzeari* usten diolako berotze aleginaren txanda: *su* jainkoa etxekotu zenean, etxea toki santuaren einera heldu zelako, hotz, jainko dohaia sartu zela etxean.

Mezkirizen Abenduko hogetalauan goizetik mokor bi jartzen ziran sutearen alde banatan. Behin biztu eta urte guztian iraun behar zuten amatau barik, aitortzen du etxeko neskatoak. "Iduritzen zitzaigun Jaungoikoain amoriua bezala iduki behar genuela etxean"¹².

Izan ere, *sua* eta *ura* elementu atsegin eta erabat itzelak dira eta gure aurretikoek jainko indarra ikusten zuten eurekan. Sumerian, adibidez, kauta handiko erabagietan epaia ematea ur jainkoari usten zioten, eta obendurua ibaira botatzen zuten. Hori bai zan jujea benetan ordezkatzeta eta ez Erdi Haroko ordalia¹³.

Euskal jendeak ere arduraz hartzen du *su* eta *ur* elementuekiko harremana: "ura eta *sua* belaunetik berakoa" esaten duenean edo "ura eta *sua* morroi onak, baina ugazaba txarrak", eta sukaldeko suaz: "etxeko *sua* etxeko autsaz estal zazu", etxeko *sua* errito bereziaz ixiotu eta itzaltzen denean, Mezkirizko aitorleak dinon bezala¹⁴.

12 J. M^a. SATRUSTEGUI, *Mitos y creencias*, o. c. p. 91.

13. Uretatik salbu bada, errugabe, itoten bada, errudun. Suarekin ere berdintsu egiten zuten Erdi Aroan Europako jende kristautuek. Erromatar Eskubidea XII onartua izan zenean, berriz, orduan torturak ordezkatu zuan. Euskerak bere umetzak ditu *orde*>*ordena*>*orden*>*ordalia* beheinipehin, baina bere eskolak ez du onartzen, berari, euskarari, eman izan dien epaian.

14 Honela dino ohikunak neskatoaren ahotan: "Jaungoikoak emandakoe-ekin *sua* egin. Oira faterakoan hautsez estaldu, gero Paternoster bat erresatu eta Jaungoikoak gordetzekorekin urrengo goizean *sua* piztu". (J. M^a. SATRUSTEGUI, *Mitos y creencias*, o. c. p. 91). Hitza eta ohikuna elkartzen dira erritoan. *Sua*>Jainkoari eta aingeruei eskeiniz, esan ohi da: "Jainkoak duela parte, Aingeruek bertse hainbertze, etsai gaiztoek batere", sutondoan belau-nikatuz, gurutzak egiten zaizkio eta laratza kakoaz joaz, esan: "ez piztu, ez itzali". (ibi, 92-93)



*Sukaldea, bekosua, tximinia, amaren etxeko eskaratza, neguko giroa, txingarra oratzeko suatzak, sua gartzeko auspoa, amaren su zaintzako kakoa, ontziak, aitonaaren zizailua, ordu galduak ipuinez jantzeko auke-
ra, joanen oroitza sentikari egiteko lagunartea, euskara lantzeko eskola. Afal ostean ere, larretetik zintzilik tupiña, "laratzak ezagutzen ditu etxeoak", etxeoek laratza ohortzen zuten Larunbatez etxeko zendu, jainko txikiak, minki oroitzean...*

Besteugarrien izenetan *Utu* analogiak idoroten ditugu: *idulki* "mokor atal", *iduria* "sugarri xea", berarekiko txeraz *iduri* egin "antza hartu", *iduriko* "antzeko", zuzenbidean *iduri* izan, *edu*, *ide*, *dusto*, *doi*, segurtasunean, *ota*, *otatu*, *oso*>*osatu*, lorpenetan *tot* egin, *itu*, *iduki*, *idoro*, abian *iduli*>*itzuli*, *ostera*, aberedian *udo*, *idi*, *uxo*, etab.

1.5. Iduzkiaren Jotea

Eguzkiak urtu du ia otsaileko lantzurda, astiro baina iduzkia itzultzen ari da. Ezin du urtu izotz guztia, *Utuk* otara *jo* nahi du, arketipoz adorea zor zaion iduzkia animatu egin behar da, aurrera *jo* dezan. *Jote*¹⁵ zuzendariak adarra *jo* du, iduzkiaren martxa asi da (Ikus or, 21), apal lehen pausoetan, baina bere garapenak ematen digun esperantza *ito/itoitu* baitatzen zutela gure arbasoek.

Unori inoak eta *Uturi joteak*, biek ere barne *inzini* eta *otoitzekin* tartekatuz, nolako nortasuna, halako berba bai-da ulergarri jainkoen eta gizakien artean, hatarako asmatu bai-zuan *Tot* jakintsuak ere idazkizuna, jainkoen eta gizakien arteko ulermenerako. Hizkuntza herrien arteko ulergarri izatetik nastera itzultzea, Ama Jainkoari maesa eskua kentzearren¹⁶, Babelek egin obena izan zan.

15 Euskaldunen problema gure aurretikoen martxa ez ezagutzean datza: ezjakinez "jota" izena erdalkeritzat jotera. Eguzkiaren *joatea* "ida" uler-tzen dugu, baina Inoteriz ospatzen den *Joteak* mugidako erritoaz lotzen gaitu.

16 F. ZUBIAGA, *Ama eskolako hizkuntza orokorra*, or. 77 ss.



Baserriko barazkiei zion estimuaz, gure amak kaleraino eta etxeko balkoeraino ekarri zuan ortulautza: haziak, landarak, lur ona. Balkoia eguzkitara dago, urak berak ornidutzen dizkio txorrotik hara, hodeiek ematen ez dutenean, etxeak berak zaintzen du haize zakarretatik, haize gozoei bide ematen. Zer gehiago? Ura, eguzkia, haizea eta lurra: gure biologiarenean lau elementuak, gure iruditeriaren lau sinbolo eta iturriak eta hizkuntzaren lau lehen arketipoak. Denerako ornigarria

Aldi bateko Ama Jainkoaren babesa galdutzak edo aita mendeak gauditukotzat eman zutenean, Iduski Jainkoagana iduli zan debozinoa, Harri Haroan nonbait, geinu erraldoiaren zirrikadaz¹⁷. Hala ere ez zan galdu osoro Ama Jainkoaganako abegia: ama-aita arketipook, norbere baitako *animus* eta *anima* orekagarriak bezala, ezin bananduak bai-dira, ohargabe ilunean ere.

Ez da aztertu nahiko ama+aita arketipoen goraberan euskera hizkuntzak izan duen eragina, gurean ez bai-da galdu Ama Jainkoaganako atxikitasuna¹⁸ eta bere alaba den emakumeak, adibidez, Ikastolan egiten ari den lana lekuko.

Euskararen arketipo behinenak, analogietan ugarienenak, gizarteko familiaren egitura ondoen azaltzen dutenak, etxearen lau kantoietan, eguzkiaren sortaldetik sartaldera *Astea*>*Ast*^(v) eta *Ostea*>*West*^(v) eginak bailiran. Gero kurutzatuko zaizkie Ifarra eta Egoa Aireko erraldoiak, haize gozo edo zakarren eta Lurreko geinu apalaren oinpekoa, loi edo apaina, gizaki bera garen irudi igarokor, baratzeke lore eta fruitua, garapena eta azaga.

17 Ideologoen artean Nietzsche-k, idurimen bereizgarri horretara jo zuan, giza gurena gizaki beragan bilatu irrikaz, nahiz gurenak arrunta oinperatu.

18 Iruña-Beleian, III gizaldiko kristianoek *Pater noster qui es in caelis* euskeratzean, ez dinoe “zeruetan zagozana”, *sutan zarena* baino. Belearrek amatar eskolako izanik, euskararen arketipoez baliatzen dira eta zeruan Ama *eseria* dakusenez, Aita ereduia *jutean* eta *sutan*, *joan* halako jardunean ikusten zuten. Amari zeruan *eseri*>*essere*>*ser* zegokiolako, “ama da” esateko eta Aitari, berriz, zeru zehar *jo*>*su* “aita *doa*, ba dihardu” aitortzearen, amaren etxeko arazoetan bezala, artzaintzan, goldaketan, arrantzan...



Iturengo *Jotean* maisuak turuta *jo* du eta *joaleak* txilinteri *otsean* kalez kaleko *Jotea* asi dute *Utu* iduzkiaren omenez. *Inori inoak* eta *Uturi joteak*, hori da legea, eredu bakoitzak beretik sortzen bai du hitza eta izena. Kalez eta baserriz ibiliko dira, heuren helburua ez delako jendea entretenitzea, izadia esnatzea baizik eta ereindako edo ereiteko azia jator hazi dadin, gorriminak eta gainerako gaitzak soronetatik ahienatzea. Errittoa bete behar da, ez bai-dago *Jotea* baino plagizida hoberik. Ohitura honek Mediterraneo inguruko beste herrieekin kide egiten gaitu eta gure arbasoen asmoak hobeki ulertzen, haienekin adostuz.

1.6. Aireko eroiak eta Orenzaro

Haizea airean dabilen elementua da eta elkarren artean orekatzten dute mugikeren erritmoa. Haize ona gorriminaren aurkako emendio ona da, haize zakarrak edo otzak kalteak egin ditzake amaren etxean eta baratzean. Haizeak eguzkia eragozten duten lainaberrak astintzen ditu eta loretasun giroko arnasa eman landaretzari.

“Haize erauntsiak, ura” dino baserritarrak, edo “erreka haizeek bueltan eurixe”, “norat haize , harat ohial” errepikatzen marinela, itxasora begira eta herri arruntak: “utzi haizeari teilatu gainetik pasatzen”. Herri jakinduriak “haizea, ura ta sua norbere eskutik” dinonean hiru elementuok mende-ezin geinuen antzeko egiten ditu. Euskarak *aide/aire* formak ezagutzen ditu, *Utu* eta *Erra* direla euren geinuak. *Utu* zihurrago Sumeriako eskolan, *Erra*, Egiptokoan.

Erra da Egiptoko *erraldoia* > *eraldoa*. Ama Nut inudearen seme da eta egunero argitara ematen du eta egunero erraira baitaratzen. *Utu* den borobilaz, *Errak arrauts* itxura du eta arrandiz, *arranoa* du abere kutuntzat, eta ortziko artzaintzan *Ora* bere zaindari, ortzak agoan. Aldi bateko euskaldunen *Ortzi* bera da, Ortzemendi/-Montorzi-koa, aritik arrira eta iritik irrira euskal mingain eta ortzen arteko dardara hitzaren ahozkerarako ustiatzen duena, *arranoak* bezala, *erpez arrapatu* egiten duelarik eta *orak* antzo, *ortzez oratu*.

Euskerak antxinatik nabari du *Utu/Erra* arketipoen arteko tira-bira, batak *uda*, besteak *ura*, *eudi/ euri*, *idi/ iri*, *edan/ eran*, *eder-*

si/ *eresi*, *idakurri*/ *irakurri*, etab. *Utu* formak zaharragoak direla, *Erra* egiturakoak baino, Egiptoren ondoan Sumer izan zenez.

Euskaldunek *Orenzaro* deitzen zioten Gabon ospakizunari, *Atoren*¹⁹ seme jatorra *Or*²⁰ zutelako gogotan Jesukristo *sortu*²¹ aurretik. Ala, euskaldunek erratu egin zuten Gabon gauari *Orentzaro* deitzean? Ez. Aldian aldiko argibidea jaso zuten eta ospatu. Mitoak lehenaz zubi egiten digu, zubiotan ibiltzen ez jakitea, kultura falta da, ama eskola iguintzea, matxismoa den bestean. Politikak ere ez du nahi guk begiak idekitzerik. Itxu, tonto, esaneko nahi gaitu, eta halatsu maiz elizak berak, gure lepoa dogmaz kargatu duenoro²².

Erra arketipoaren teologiak ba du beste adarrik gure artean. Bere ereduaren monosilaboak *erra*, *erru*, *erro*, *erri*, *irri*, *ira*, *ar*, *are*, *arri*, etab. errepikatzea baino ez dugu, edo *erratu*, *erruki*, *errotu*, *artu*, *arritu*, etab. konponketak egin, gure Hiztegian eta ideen baitan duten alderdia astatzeko. Hizkuntzan mitoanalisi egiten ere lagunduko digu eta ez bakarrik erratuen errukia irizten erretora-gandik. *Irakurri*, beraz, *Erraren* mitoetan²³.

19 *Ator* maite jainkosa, *Erra*-ren alabak seme bi izan zituan *Or*, seme *aitorra* eta *Set*, seme *setatia*, bata amaren esanekoa, bestea bekaitzak errea, anaia-
ren eraile, gero aitaren eraile, Osirisen belaunaldian gertatzen denez, edo
Ambotoko Mariren seme Mikelats eta Atarrabi, on eta gaizto analogiak bezala.

20 *Or* ahozkatzen zuten koptoek, *Horus* idazten grekoek, formaz aldatu,
benetako eroea eurena edo eurak asmatua zela adierazteko. Euskaldunok *ora*
“txakur” dinogunean edo *Oromendi*/*Montoro* oroitzen dugunean, *Horus* ku-
tsua ostera, *Ursumendi*/*Montorzi* ahozkatzean. Euskerak *Utu*>*uso* singela
urso indartzen du arketipoz, *Usamendi* eta *Ursumendi* gogoratzen dituela.

21 *Tortu*>*sortu* dator, amagandiko *sorrera*. Jesukristori liturgian “zuzentasun
eguzkia” deitzea mitoaren argibideari jarraitzea da, bada kosmoaren analogiak
kultura guztien adierazbide orokor dira, eta “analogia, hizkuntzaren garapena”.

22 Dogma ez zela ulerkorra? Orduan “credo, quia absundum” gomendatze-
raino, “ea sinistuz, ulertzen dudán”. Atoratuta gauzkae egunik gabeko gauean,
gau utz>*chaos* bihurtzen dutela eta Ama Ator-en eskolak ez du holakorik egiten.
Estatua *amaren etxe* bihurtu arteino, soloa, baratza, ortua landu beharra dago.

23 Hóna laburki: *Erra* jainkoa zahartu zenean, bere gortekoek arramantza
sortu zuten haren aurka. *Erra*, arrenkuraz eta irak hartuta, erio ordeaz aurrada
arras zuntzitzea erabagi zuan. *Ator*, alaba aitorrak, aitaren ohoreak eroanda,
leoi-eme burua eginik, herria erazoka ekin omen zuan, arik eta *Erra* arbasoa,
aurrez errukiturik, odol irudiko uraz ordituz, alaba baretu eta erria erosi zue>-



Ator⁽⁶⁾/Hator⁽⁹⁾, Or seme aitorraren ama, Erra-ren alaba, maite jainkosa. Or egunero, urso bihurturik, eguzki osterea egiten du *ortziz* eta gauero atosten da, atotsi, amarenean. *Atorrek atoratu* egiten du Or semea. Agatik euskaldunok ez dugu aztu seme-alaba aldenduei *Orenzaroz* “Ator, ator, mutil, etxera” abestea, etxeko denok Amarenean *atoratu* nahi bai-ditugu. Hagatik *Ator* koptoz ere “Or semearen etxea” esan nahi du. Mito hau ulertzen ez duena “inconsciente colectivo” ohargabe orokorrean sartuta dago. Ez du ama eskolara *torri/etorri* nahi. Ausaz Set konplexua du edo grekoen Afrodita bakarrik dakus edertasunean. Atorren burukoa, adar artean eguzkia, sendiko ikurra du, Erra aita, Or semea, ortziko eroiak

Bere *iran herria eraso* zuenak berak, *errukiturik*, bere *aurrak erioari erosi* zizkion. Ohar, Erra errukitsu eta Ator erraibako ematen diren. Haraz gero, gure teologian “rescate” *eroskunde* deitzen da eta *erosi gaitu* “salbau gaitu” esateko. Funtsean *erori* beharra al dago, *erosi* ahal izateko. Nolanahi, ohatzekoa da *Eros* grekar jainkoaren nastea, hareek Ator maite jainkosaren Or semearekin heuren gustoko *Eros*, maite jainkoa, konpondu zutelako. Eta zer da jainko horren patua? Bada, esku bat az *erosi* eta besteaz *erriazi* egiten duela, gizakien merkatuak ohi bezala²⁴.


Arrenkura izena mito bizia da, Jung-en gardiz hizkuntza bera denez, eta *Erraren kura*>*gura* adierazten du, bai eta sentikeraz

>no. Ikus (*Rescate de la Humanidad de la Destrucción* ANET, 10-11). Halako teologiaz herriari ohar egin eta iraultzaileei zentzabidea erakusten die, *Erra* arketipoaz *arte*>*artetsi* “magia” egiten zuten orduko apaizek eta faraoiak. Gizartean ordena jarri behar zan eta *ordena ordainaz* ulertzen dute, hori bada *ordea*>*ordeena*>*orden* gehiengoan jartzea. Hortik ikasi zuan latinak ere herriaren lepotik *ordea* “gari” kopuruzko zerga jasotzen. Hala euskerak *ordeaz ordaindu* dinonean edo euskal herriak: “ordez orde egiten den justizia baino hoberik ez da”. Haien apaizen predika euskal munduraino heldu zelako susmoa euskera bera da. Eta ez da harritzekoa, Iruña-Veleian bertan ere maisu koptoak aurkitzea, K. gerortiko. III eta IV gizaldian.

24 Hori da, izan ere, erotikaren mundua, amatar eskola, matxisten bordiona bihurtzea, amaren *eritsia*>*eresia* bihjim urtzean egiten zuten bezala eta gure artean amaren *ortuaz*, pinudi edo sastai egiten dutenen antzera.

25 *Arrenkura*>*rencor* “motivo de queja/rencor” edukin batetik bestera baitako jokera gazi-gozoak eragiten dion aldea dago.

Olentzero eta Mari Domingi asto bete eta otar bete erregaloekin Berako Inoterian. Bejondeizuela! Herriak berak gidatzen du mitoa, hizkuntza bera bezala. Horretarako ez du Zaintza berezi beharrik. Olentzero eta Mari Domingi biak dira, Gabon ospakizunera deituak, Olentzero ikasgina eta Mari Domingi, Barrutiaren Gabon antzerkitik oratua. Zer esanik ez da Mari Domingik txukunduko duela Olentzero piura burutik oinetara, herriari sor zaion izpiluak eskatzen duen heinean Eskerrak beratarrei horren gusto sotilagatik.



>renkor gaztelaniak euskaratik jaso duenez. Arazoa kultura ba-koitzak *kura*>*gura* barneratze eta egoztean agertzen da.

1.7. *Ilu auldua eta Olentzero*


Jainkozko eroietan *aulena Ilu* da, Ugariteko antzerkietan eta batez ere, haren semeko *Balu*-gan agertzen denez. *Iluk* ere ba-du Urartun bere *Oldea* edo *Aldia*²⁴. Izenak geureak dira, *ole*, *ala*, *hola*, *olo*, *aul*, *hil* bezela eta pertsonaiak, berriz, mitikoak. Gure hitza jainkozko eroiengan oinarritzen da, hagaitik Jung maisuaren gardiz, “hizkuntza mito bizia da”. Jung sikiatrak ez zekian euskerarik, baina jakitekotan, zihurragotzat zeukaken bere ustea.

Ilu-ren mitoa Ugariteko antzezkiunetan²⁵ agertzen da. Garai haretan Ugarit erdi-amatar kulturako irauten zuan. Atiratu zan Iluren emazte eta onularia eta Anatu Baluren bikote burrukaria. Eroi gizatu bezala, Baluri dagokio, landaretzari bezala, urtero neguan *hiltea*. Alde batetik *Yammu* “itxaso” ugaritiarren ugaro le-kua eta bestetik, *Mot* “mortua”, bizitza eta biologia, amaren etxea harriskuan jartzen duten elementuen aurka burrukatzen da.

24 *Ilu, Ala, El* bera da semitarren ahozkeran. *Alde/Aldi* jainkosak lurra-
rekin du harremana. *Urartu* “Mesopotamia” grekoz, Eufrates buruan kokatzen
da eta sumeriar kulturakoa zan. Euskarak bezala, “Jainkoa” *Ino* deitzen zuten
eta Nork/Zerk aditz kasua ere ezagutzen zuten. Urriten lehengusu ziren.

25 *Lucha entre Baal y Mot*, MLC or. 213-135.
Lucha entre Ba’lu y Yammu, MLC., or. 157-212.

Haldi landaretza *aldiaren* Ama Jainko urartiarra Amaren baratza antolatzen dihardu. Idia buztartu eta haren adar gainean oina ipinten *oldartu* da. Aberearen *oldea*>*golde* gizatzen da, lurra astintzen. Lurra *lantzeko* are izenak *nabas, are, golde, exa, laia*, etab. herri eta kulturen arabera. Utu kide *idiak hildoa idekiz* doa, soloari uhaltasuna erazten diola eta ez simboloan bakarrik. *Haldi* Ama Jainkoak *landarak landatzeko* edo *aldaxkak aldatzeko aldia eldu* dela dino: *babeserako aldaizeak* edo *bero larregitik aldentzeko geriza egiteko landairen bat, aldian aldiko landakientzat alor berezia lortu* eta *oles* egin edo *aldia jo* *Haldi* Ama Jainkoari, jainko bakoitzak bere *aldia* eta *elea duenez gero, dagokion alabantza merezi du-eta*.



Ilu bera zahartzaroan *ahuldu*>*oldu*>*old*⁽⁶⁾ egiten da, *lurreko loian labandu* edo *ola* deitu nahiz, *lezeko lorioan largu* dagoela. Ugartiar kultura proto-feniziarra izan zan eta grekoen aurretik iberiarrekin arremonean bizi izan ziran. “Arremon” horri deitzen zioten grekoek *harmonia*, gero euskaldun askok hitz hoiek erderakadatzat hartzeraino. Ezjakinak amaren etxea ezeze, ama bera saltzen du. Ezjakina arerioaren kidea da herrigintzan. Ezjakin eta drogatu nahi gaitue, euren esaneko, *Baal*>*abele* astotxoaren antzeko. Hortan da oraindino gurean Eskola Nausien eta Ama eskolaren arteko borroka, *Baal eta Mot* pertsonaiena bezala.

Hala ere, *Baal alim* “errime” eta *alimu* handiko dager Ugartien eta hebertarrek ere *Elohim*, jainkoetan *alena* deitzen diote, euskeraren gehiengo kasuan. Eurak gugandik ikasiaz, ala guk eurekandik? Ez, danok *Amaren eskola* deitu beste *eskola*²⁶ zabalago batetik gatzela baino, *sjole* grekoek eta *schola* latinak ere deitua.

26 Antxina betizuek eta beste ganaduak Ekurrola eta Mendiola *oletan* eta beste barrutietan bazkatzen zuten. Gero baserri bakoitzak bereak erosoago etxekotzarren, etxe ondoan *etxe*ko *ola*, etxeari erantzi, >*eskola* “abeleak etxekotzeko esparrua” sortu zuan. Eskarmendu ona izan zan. Umeen sena ere ikasiaren buruz, argitu egin zela? Bada eredia eta izena egin zegoen hanartean eta grekar eta erromatar eroi armatuak ere *etxekotu* egin ziren azkenean. Gero *ikastola* asmatu eta bultzatu dugunok ere ba gendun, eukitez, aurreko eredurik.

amaren etxea

GRAMATIKAKO PERTSONAK ETA NOR ORDEKOAK

AN/ona	UTU/dui	RA/iru	ILU/lau	BA/bost	KA/sei	AS/zazpi
en/ni/no	tu/tou/zu	er/ar	ille/él	ba/banek	ego/eketa	txe/je
my, moi	tto/you/yo	eurak	le/la	beste	gu/kau	txeia
nor/inor	ide,ti/ich	ura/era	alguno	bat/batek	kide/quién	zein/zer
eni/mihi	tui/tibi	ari/ark	lui/ler	vobis	cui/cuyo	sibi/si
nos/noster	ode/zoin	ori/orrek	allelon	vos/vester	gure/ekeien	sfeis/sfon
nemo/nick	deus/tots	urlia	alter	hic/hoc	ekeinos	se=ses
neu/neure	su/zure	euren	illius	berendia	kori/qué	ése, éste
mengano	zutano	urlain	ulain	fulano	quaedam	sandia
nadie	uts/todo	rien/res	alako,algo	pan/bakotx	gauza/cosa	ezer/ze
norbait	autos/tal	eren	lo/los	ber/bera	aquel	zerbait

“Jakinduriak bere etxea jaso zuan, zazpi zutabekin ornitu zuan” (Ja, 31, 26)

II ZAZPI ZUTABEKO ETXEA

2.1. Hierogamia edo jainkoekiko eskontza

Amaren etxea bizigune ezezik, eskola ere bada, eta jakinduriaren eskuko argibidea. Kosmoko lau elementuetan beste hainbeste hizkuntza arketipo aurkitu ditugu euskaran. Honexek dira ama etxearen lehen lau arketipoak edo, Bachelard gure filosofoak, hain sarkor adierazi zuenez, “giza iruditeria josteko lau untzeak eta hitza uhaltzeko lau ormonak¹”, bada gauza haizatuenak adierazteko, behingoan jotzen dugu elementuokiko analogia bilatzera.

Jainkozko arketipoak deitzen diegu, *ur*, *su*, *aire*, *lur* gaiei, gure asabek lau jainko sortzailatzat bai-zituzten. Jung² sikiatrak berak ere *numentsu* “jainkozko” aipatzen ditu arketipoak Jainko zahar-

1 GASTON BACHELARD, *Psicoanálisis del fuego* (1938), *El agua y los sueños* (1942), *El aire y los sueños* (1943), *La tierra y la ensoñación de la voluntad* (1948). Cf: Poeta batek bakarrik analizatu zezaken gizakia lau elementuon bidez.

2 JUNG autoreak “norbere arketipoak eta Bestearen arketipoak” bereizten ditu, bada gizakiak arketipo mailan jainkozko egiten du bere burua. Arketipoak talde ohargabeen ditugun ipuin, ames, aztura dira, adibidez, “ai ama” esateko ohitura edo Inote, Jote eta beste ospakizunetan parte hartzen dugunean, hitz egin edo poetikoki edo hitz lauz idazten dugunean.

2º laburgoa : OIHUZKOEN ANALOGIA ARKETIPOEN ARABERA

AN	UTU	RA	ILU	BA	KA	ASA
ene/en	otoi/iso	ara/ario	alá(ar)'	bea/vae	ka/quia	ixi'/che'txen
enei	ut/ux/aida	ra/aira	olé/iole	ba/bua	gel/gora	jau'/chao
iño/año	txut/ixo	aro/urra	(h)il'lúe	ave'/afa	ako/ecco	asa'/ajai
oino	et/eit'/at	arraio	ola'/alló	eup/vah	gerô/coño	zaust
ena	uju/ujui/jo	arre'rau	ely(h)	puf/huf	agur	xapi/zape
ainü	otian/utinam	rayos	elas/alto	hip/epa	cáspita	txist'/chitón
aan	zut/tira,tus	arrano	ale/ela	vaya	kontuz	esti/este
ainintz	oste'/ospa	arren	al'alajina	balinba	agian	ezbe

Ohar: Oihuzko itzok monosilaboak dira gehien bat, eta jainko zaharrei egin deiak eta otoitzak. Hoiexek dira hizkuntzaren lehen ahotzak eta oraindino baserri giroan, hotz, amaren eskolan, gehien erabiltzen direnak. Errez bereinten dira jainkoei dei egitekoak eta gizartekoak. Batzuk erromanikar, latino edo hebraiera dira. Ama eskolan halako batasuna erakusten dute hizkuntza guztiak, batez ere “ama, ai ama, ay madre, etab” hots egitean. Hor dago hizkuntza orokorraren lehen otoi-itza. Hortik hara nahi den zabalera ta sakonera

ren bideetan aritzeko bailiran, teologian alegia, eta giza bide zidorretan ibilteko, baimen berezia behar bai-luen, aginduta baizegon “jainko izenik ahotan ez hartzea”³. Baimena ba zegon. Zerez bizi da gizakia jainko *ura, sua, airea* eta *lurraz* izan ezik? Edo arnasa hartzeko jainko *aireari* baimena eskatu behar ote zitzaion? Giza birietako *Asa/Atsa* izan zedila baimenaren sinboloa⁴ kosmoko eguratzza geure birien bizigarri hartzeko baimenduta garenez, bide beretik geure soina *Ka*⁵ eta baita *Ba* goiko eredu berbalagun aurkeztea erabagi zuten. Era horretan amaren eskolako zazpikun oinarri zituzten arte mailara elduko zan eta hala

3 Bigarren agindua: “Ez duzu Jainkoaren izenik ahotan alperrik hartuko”. Ez da Mariren aginduetarikoa, Aita aginteko semitarrena baizik.

4 Egipton *aj* agertzen da jainko aintza adierazteko doai eta Sumeren *zid* izena dager sagaratu munduan sartzeko giltzari. Ba ete du hitz honek euskerazko *txit>xit* formarekin zerikusirik? Horra, “*txit* eder, *xit* airoso” esatean, *Utu>ite>ide* arketipo *oso otatuan* bilatzen du analogia. *Aj* formak, ostera, arnas bideko gorgan ezpada, *as/ats* haize ufada soinuan daukake eusgarria.

5 Harrigarria ez da egitiar psikologiak gizakia *Ka*, *Ba* haztapenez ornitzea, *Ka* “materia, korputza, kabia, gaitasunak” adierazteko eta *Ba* “baita, psikea, barnea” adierazteko, euskerak balore berdinak ezagutzea baino. Beste aldera begiratzen dutenek indoeuropeismoaren lezan jausten dira. Hala konbeni zaielako?

3º laburgoa: AMAREN ETXEKO BARAZKI, BELAR, ZUAITZAK ARKETIPOEN ARABERA

AN	uTu	RA	iLU	KA	BA	ASA
anda, nabo	tipula	erro	lenteja. aliu	col	berro	aza
melón	trigo	arbi, rábano	olo, alolva	kipula	porru	esparrago
marrubi	adalko	arbeja	lechuga	kardu	berakatz	zainoria
mahats	idar	racimo	ilar, alubia	kalabaza	vid, vaina	escarola
ametz	zuatze	ari	lúpulo	garabanzu	borona	espinaca
madari	ote, toxo	arto	albérchigo	gari	baba>haba	eskanda
makatz	durazno	argoma	almácigo	iko	brécol,berza	espiliku
intxaur,nogal	dulunia	romero	olivo	kainabera	picu>higo	ezipel
endrino	toronja	urretze	limón	okaran	poma	txermen
madroño	zurgai	ereinotz	ilicina	gurbitze	abeto	sagar
manzano	tantai	aran	álamo	quercu	prune	txarba
naranja	udare	arte	olmo	carballo	peral	txerpi
mispira	zumar	aretze, arce	ler	kastaina	bago>haya	sahatz
melokotoin	chopo	roble	lizar	cupresu	pinu	sauce
maíz,	izai	urki	altz, aliso	gorozti	fresno	espino

aran>okaran, ari>gari, olo>col, erro>berro>puerro, iko>piko, etab. forma gizatuak dira.

aitortzen du Jakinduriak: “Jakinduriak bere etxea jaso zuan, zazpi zutabez ornitu zuan”. (Esa, 9, 1) Zergaitik zazpi eta ez hamalau? Ostarkuari galdetu, haren margoei, musikako notei, haren soinuei.

Giza arketipoak Jainko arketipoekin itunbena egitean, elkarren mintzakide, berbalagun egin ziran eta halako elkarteak jainkoeki-ko maite ezkontzaz ames egin zuan. Jainkozko arketipoa gizatiarrakin lotzean hiztegia largatzen du hizkuntzak, *on* zena *bon* egiten du, *un* zenak *gun* eta *aN* arketipo balore zenak, *san* erritoaren zehaztasunean. Berdin *uTu* arketipoan, *ide*>*bide* bihurtzen da, *ide*>*kide* bezala eta *edu*>*Xedu*⁽⁵⁷⁾>*xede*, arketipo guztiekin. Jarraiko amaren etxeko zutabeei jarraitzea baino ez duzu, begiz ikusteko.

Teologia mailan bestalde, itzelezko aurrerapena izan zan mitika eta mistika asmamen eta sentikeretan. Jainkoak etxekotu egiten ziran, sua etxe barruan (Ikus 19 or.) biztu zenean bezala, eta etxe-koak jainkoen lehenkusu, *Eneko*, *Anka* izenak dinoen lez. Izan ere, mitemak gertatu ziren eta behar zuteneko igarkisunak izan ziran. Amatar teologia zahar honek ba du zeresanik gaurko jainkobidean.

7 *Xedu* “angeru zaindari”, harek *xedatzen* ditu gure bideak. Cf: F. Z. *Origen y desarrollo del lenguaje (según el vascuence)* (2004)

4^o laburgoa: GONBARAKETAKO HIZKIAK ARKETIPOEN ARABERA

aN=uno	uTu=duo	Ra=iru	iLu=lau	Ba=bost	Ka=eksa	ASa=zazpi
ain/ein/oin	duin	aren	lain	bein/bai	cuán/qué	zein/asina
-en/-ino	zoin	arean	ala/ola	bezala	gino/gardi	zelan/selon
ansi/antzo	edu/uti	are	lez	veluti	gisa/guisa	jas/yes/ez
onan	ide/adin	orrela	olan	bardin	kide/equale	sic/así/sí
nola	oso/total	eratan	aulan	bezain	cual/gara	sano
muy/anitz	txit/sumo	real	aulan	behinen	como	sane
inobre	super	areago	alyn	presque	geiago	ya/según
ainbat	tanto/tal	urreean	alako	parecido	igual	semeios
máxime	thusto	eurrez	lar	vix/pene	guzti	aski/asko
nahiko	doi, soil	erruz	alaso	harto, bien	gutxi	aseki/assed
minus	ttantta	ralo	labur	poxi/poco	ka/quia	eskaz
noski	utique	real	alegia	vere, bai	egiaz	certe
ante	tint/edo	ordea	aliter	bestela	contra	extra
nahiz	todavía	or	alor	baina/pero	agian	siquiera
modu	tankera	era	lege	baremo	kriterio	zentzu

Bide berak sortzen ditu santuak eta eroiak, batzuk amaren esaneko eta beste batzuk setatzu *Or* eta *Set* umeen pareko (ikus *Ator* or, 23), edo *Mikelatz* eta *Atarrabi* antzo, gero ere ikusiko dugunez.

2.2. Gorputza, Ka kaizua eta gaia

Gizakiak gorputzean topatzen ditu lenengo bere gihar eta gaitasun almenak, gero barnean⁸, barne amesak. Egiptoko sikologiak *Ka* eta *Ba* bata bestearen *kabia* bezala ikusten ditu eta *Ba ave* "txoria" antzo marrazten du. Norbait hilda gero, *Ba* egan doa eta *Ka* gelditzen da, *kabia* utsa, *ave* "txoria" egatzen denean. *Ba* erastunak erpetan dituela dager, harekiko *fedea* adierazten. Hortik sortu zuan giza asmamenak *Benu*^(k)>*Fenix*^(g) txoriaren mitoa, noizbait bizturik, asierako kabiara itzultzeko minak bailegon.

Ka arketipoa, *Inko* formatik asi eta *inkai* etorri zan amaren baratzean, *ama* alaba *amako* datorren heinean eta zero *mako*⁹ dantzarien babes eta edergarri edo *errege*>*arje*^(g) izen.

8 Biak batean direnez, hiztegi ariketan ez da funtzezkoa zein behinen den esatea, asmaketan *Baita* da nausi eta ekintzan, soinaren kapazidadeak, *Ka* alegia. *Gogo*, barne antzi bezala, frutakien "*koko*" ibiltaritik hartu analogia da.

9 Arku dantza eta Indalo eroi inkaiei eta *Eneko* errege izenaren duin dator.

5º laburgoa: ABERE IZENAK ARKETIPOEN ARABERA						
AN	UTU	RA	ILU	KA	BA	ASA
ñu/amulo	idi/uso	ari/uro	ele	akar/cabra	buey/abel	txahal/chevre
enara	toro/azor	orotz/urso	latxa	canard	betizu	zekor
anate	atto/ate	rocín/rucio	oilo	gallo	pollo/pato	asto
ansar	idizko	rebeco	liebre	caballo	para/burro	zezen
aine/auntz	adari, udo	orix/orkatz	alazán	gamón	beiga/aper	zaldi
uaina	chivo	or/ora	alano	can/keleb	eper/perro	txakur
mulo	toto/ozar	reno	lobo	camello	beor, pavo	acémila
muflón	otso/tsobu	arito/ardi	lince	conejo	oveja/brevis	cerda
merina	sues/zorro	urde/arko	euli/luki	gorrino	verrac	txarri
anduriña	txori/zurita	urogallo	alondra	gavilán	bela/paloma	asino/asno
namer	dogo/suge	arieh	labi/león	katu/gato	bull/apo	sapo

oilo>gallo, ato>asto, arko>verrac, ora>perro, amulo>camello, etab. forma gizatuak dira

2.3. Norbere baita, Ba benaren bidea

Ba arketipoaz gizakiak baitatu egiten du jainkoen kosmoko ekintza. *Ino>ena* “egia” badator, gizakia *Ba+ena>bena*¹⁰ egokitzen da, jainko egia eta giza baitako egia bereizten. *Ba* baitako siko-logia euskarak Egiptoko jakinduriatik jaraunsi du¹¹. Elkar hizketan adostasunera heldu ahal izaten da, baina norbere baitan bakarka, esango luke Jung maisuak, zer dakike Batek Bestearen laguntza gabe arketipo mailan, “ez bai gera geure baitako”? (Joxemieli)


Baita indarra *pentsuda>pensus*¹² “*pisua*” da eta Ka giharduraren gaitasunak gidatzen ditu, amaren eskolako izan nahi ba-du. Maaten balantzaz pisatzen ditu eztabaidak eta haren pisuak *bentzuten* duen alderantz doa *pentsuda* eta *petsamendua*¹². Kosmoak gidatzen duen ama eskola horrekiko loturak maiz aztoratu egiten du Ka grinaturen aske kanora eta gizaki beragan gerra¹³ sortzen du.

10 Urliak benetan ari zela adierazteko, antxina *ena, ená* tartekatzen zuan esaldi bakoitzean, jainkoa egiaren lekuko harturik; geroago *bena, bená* errepikatzen zuan. Lacan ateok ere, Nietzsche bere maisuarekin batera, hori salatzen du: “Jainkoa hor dago no eta to artean, esaten duguna *bena* “egia” ote den lekuko”.

11 Harrigarria da “*diálogo desesperdo con su ba*” DB n° 26 p- 92-98.

12 Maat Amaren jakinduriak balantzan pisatzen ditu Ba animak. Balantzaren *buruko>fulcroa* Maaten ikurra dela, berak *bentzuten* bai-du. *Bentzu>pentzu* dator, *>pensu* entzuten du latinak eta *pensé, pensamiento* sortzen erderek ere.

13 Hala aitortzen du Paulok ere: “Bada, ez dut egiten nahi dudana ona, ezpate, nahi ez dudana gaizkia egiten dut”. (Rom. 7:19)



Ezkerrean: Nut, Ama antuaren eta Geb<K+B gizatasunaren, artean Shu espazioa dager, nortasun biak banantzen. Zeru mako, Amaren etxe, "gauez" nit⁽⁹⁾ izarratuak, inutu eta ugatzatzen du Geb gizakia. Eskuman: Geb K+B nor konposatua da: gaitasunaren grina eta baitasunaren bena ditu burrukan eta Geb buru xabe, sube buru, eginik, Baradisuko zirika da. Gizakia amaren eskolatik jaregin, burunahiko izan ames.

Ka grinatuak amaren eskola utzi eta bere baitaz amakatzea¹⁴ erabagitzen du. *Pta* jainkotuaren *abateak* ama errai bako sorkuntza amakatu iragartzen dute Menfisenean, *be+ots>bihotzak abotzari* bidaltzen dion atsan. Gerostik Ama Jainkoaren sorkuntza baztertu eta *Pta* jainkoa gertatzen omen *ta tenen*¹⁵, haren Berbak denaren sortzaile direlaketan.

Gilgames eroiak ere, erokerien ames, gaztedia gudura deitzen zuan eta Uruk-eko gizadi baketsua aztoratzen eta Kosmoko legeak apurtzen ekin zion: Umbaba basajauna erail, baso sakratua eratzi eta eroi burua eginik, Inanna, maite jainkosa zapustu egin zuan, bere maitaleak jainko hilezkor heinera jasotzeko ez zelako, eta uhaltasun seinu zen Zeru Zezena ere plaza erdian eratsi zuan¹⁶, gaurdino toreatzaileek ohi bezala.

Gilgames akadiarrak hasi zuen iraultza Babiloniako apaizek erri-itualli burutu zuten, Ti+amat, Ama Jainkoa, eraso eta hiltzat aldarrikatuz, Marduku giza jainko gerlaria errege goraltzatuz¹⁷. Kosmo Amaren etxea porrokatu asmoa zuten. Jarraian persiarrek, grekoek,

14 *Amatu* ezinean, *amakatu>amagar*, hatarako *magia* erabili eta heuren heineko jainko magikoak sortu. Horrela *Bata>Pta*⁽⁹⁾ jainkoak eta haren apaizek Maaten eskuko seinu guztiak oratu eta Ama bera desagertarazten dute, matxismoari bide eginik. (F. Z. *Ama eskola hizkuntza orokorra*, p. 78-79)

15 *Ta tenen*⁽⁹⁾ "Aita denen" da euskaraz. Eskola hortatik, "Hasieran Berba zan [...] eta dena berak egin zuan" (Jon 1.1 ss) esatera ostaz dago bi mila urteren aldia.

16 *Gilgames*, VI,I ss. (Ikus or. 49)

17 *Enuma elysh*, passim.

erromatarrek, etab. elkarren ondamentiraino ekin zioten amaigabeko gudan. Heuren guda grinak gaurdaino irauten du matxismoaren setakerian, politikan berere. Eta, hala ere, Amaren etxeak iraunen du.

Grekoek *Geb* giza jainkotua *Gaia* jainkosatzen goraltxatu zuten, Egiptoko abateen ziriak eta bi asmatuaz, kosmoa irauli eta “zeru” Amaz “Amalur” eginez. Espilura begitu beharrez, albora adi jantzi diren euskal ume iputargitu askok ere ez ete dute Anboto Mariren gonatarako joskile hoberik asmatuko, amaren etxeak iraun dezan!

2.4. *As espiritu eta sakratuaren azkarria*

As azken arketipoa aipatu dugu, jainkotiar eta gizatiar arketipoak etxe bereko nabaztarrez elkartzeko dohaia duelakoz. Aldi baten aintza-bizitza faraoiari bakarrik zegokion “*aj*, jainkoekiko aintza” azaltzen du egitiar jakinduriak¹⁸. Sumerren *zid* elementuak errituko santutasuna dino¹⁹, halanola euskarazko *txit*, *xit* formak. Hobeki uler dezakegu hitzaren ariketa batez: *An>San* “santu”, *Utu>Shedu* “zaindari ona” datozela ikusiz, *Ator>Istar* “maite jainkosa”, edo *Ekur* “mendi santutegia”>*Zikurat*, *Akar>Sakara* eta *Erra>Exarra* nortasunak jainko serbitzari eta tokiak “jainko santutegi” bihurtzen direla. Orduan uler genezake *Antxo>Santxo*, *Sansomendi*, *Sant+Urtzi*, etab. izenen berri gure tokizenetan.

Arketipo honen eragina gizakiaren bizitokia adierazteraino eldu zan *Utu>su* elementua barneratu zenean: *esi*, *eze*, *etxe*, *etxa* dino-la: *Ibarretxe/Ezibar*, *Dorretxe/Zizur*, *Etxebarri/Barretxe* formatan. Artean giza bizitokia *ola*, *iri*, *baita*, *bit*, *ux*, etab. deitzen zan. Izenok bakoitzaren, toki, aldi eta emendioaren arabera irauten dute.

As arketipoak badu agian Ka eta Ba beste giza arketipoen artean ere zeresanik, *Shu* nortasunak duen bezala (Ikus 31 or.), hotz, giza gaitasun eta baitasun artean oreka sortzeko dohairik, bata bestearen deabru zirikari gerta ez daitezen, Paulok aitortzen duen bezala²⁰.

18 JEAN LEVEQUE, *Sabidurias de Egipto*, 11.

19 RIES J. *La expresión de lo sagrado en el mundo sumero-babilónico* DR. o. c., p. 1577-1578-.

20 “Haragian akulua eman dit [...] hiru aldiz kentzeko eskatu diot eta “aski duzu nere grazia, Paulo, ene ahala aulerian gaintzen bai-da”. (2 Kor., 12:9)

6º laburgoa: GIZA BIZITOKI IZENAK ARKETIPOEN ARABERA

AN	UTU	RA	ILU	BA	KA	ASA
-ne/enea	udd/ux/ota	uri/iri	uli/ili	bury/villa	gela>cela	etxe/etxe, es
mena	dona/house	ortu	ola'ul	borda/baita	korta,cava	esol'sel/sala
masía	domu/ostatu	arce	legor/lorio	bit ^(b) /bar	egoitz	ezi/iza,isva
morada	txoko, zoko	arjaion	alberge	bar/barraca	casa/oko	txa, txaola
mandio	saroi/tegi	areto	aljama	abaro	koba, gobea	ceca/eskepe
mansión	torre'dor	arpe	alondiga	pazo	ekua/oikia	zaguán
mansard	thoxa,choza	restop	leku,locu	palatu/palazio	casba	estia/sarobe
madrasa	tugurio	retiro	lekhotz	palloza	cuarto	chabola'sel
monasterio	taberna	ermita	alcoba	bastida	ekur, kabi	eskuri/seg

As arketipoak Ka eta Ba artean harartekoarena egiten du. Jung autoreak ere baita biziaren gora-berak eta osotasunerako bilatzen dituen ornigarriak aipatzen ditu, *animus* eta *anima* heurretan. Giza arketipoen arteko burrukan As da erritoaren lege²¹. Lege hoienganako begiramena apurtzea gizakiaren baloreak azpikozgora iraultzea da.

Berau da gainera, giza "espirtua" aipatzen duen arketipoa: Gizakiak zuzenean eguratsetik hartu eta *asa/atsa asperatu* egiten du, hotz, birietan hartzen dugu. Ez da ikusten, ez ikutzen, haizeak sakar mugitu ezik, eta birietan asperatzen dugunari "arnasa" de-ritso. *As+biritu>aspirar/asperatu* eta jarraian *>spiritu* dino latinak. Belar zukuakino du *espirtuxua* eta "alkola" adierazten du halako analogiaz. Giza soinak, *Geb*-ek alegia, ba du belarrak²² adina bizitza beragan eta harago, nahiz salmoak (103:16) zera dinon giza-kiaz: "Belarra bezala, goizean ernetzen da eta arratzean igartzen" edo eta *Geb* berak ere, mitografian (Ikus or. 41), Ama Antuaren baratza bailitzan, soina landaretzaz jantzia erakusten duen. Zer nahi duela *Geb*-ek? Jainko haina izan? Jainkosarekin ezkondu? (Or.31)

Maitasunak bere adierazbideak dauzka eta honela dino maite alabak Kantikan: "aurkitu dut ene barrenak maite duena, oratu eta ez diot lagako, nere amaren etxean sartu arte, ni sortu ninduenaren ohantzean sartu arte" (Kant, 3, 4). Amaren etxea, Baradisua bezala, maitasunaren egoitza da, maite sorkuntza den heinean.

Mitologian toki bereziak aipatzen dira gizakien eta Jainko harremane-

21 Nondik dator bestela, As deitzea lehenengo baloreari dirutik kartetara eta, analogiaz, gol gehien sartzen dituenaren kategoria aipatzelo?



Aker burudun esfingeeak zain-
tzen zuten jainkoen toki sakra-
tuko bidea Egipton. Barruan sak-
kerrak odol sakrifizioak ezkeintzen
zizkien jainkoei. Guzti hori
aldatu egin da. "Errukia nahi dut
eta ez sakrifiziorik, Jainko ezau-
pidea nahiago, odol eskeintzak
baino". (Oseas 6:6-7) Aker ti-
po gutxiago, beraz, eta arketi-
po argituagoak norberegana, ba-
tek ez bestek gaindi ez gaitzan.

tarako, mendi aproposenak zeru Amarekin topo egiteko. Ainamendi, Anboto, Aitzgorri, Gorbea, etab. Haietan zeukan, nonbait, Ainak, Marik, Gorritik, Jonagorrik, etab. minduentzako abegi arpea.

Aukerako mendien peituz, Ur uriko Dumuzi erregeak zigurateko *gigunu* deitu kaperan eraiku zuan Inanna jainkosarekiko maite itunben edo ezkon erritua egiteko unea, horrek ekarriko baidzion herriari zoriona eta ugaltasuna. Honezgero, ohar genezake ze asmotarako diren Onenzaroz herriak egiten dituen mendi ostereak, horrexelakoak bai-dira talde ohargabeen argitu barik ditugun mito biziak.


Egipton mendi antzeko piramideez landa jainkoen temploak erai-ki ziran etorbide berezien helburuan. Etorbidea *aker*²² burudun esfingeez zainduta zegoen alde bietatik toki sakratua. Barruan leoi narruz jantzitako *sakerrak*²³ abereen odol opariak-eta egiten zizkien jainkoei. Egoki zan *aker* izena As arketipoz santutzea bere jarduna ere sagartzeko. Egokiago, oster, mitologiako eredu batzuei agur esatea, ez arketipoei, aker tipoei baizik, hizkuntza bizian bezala.

22 *Aker* izena *Ka+Erra/ari* osatzen dute, Erra gizatua beraz. Abere hau aintzat hartua izan da gure baserrian, batez ere, beste ganaduaren gaisoak ahienatzeko emendio bezala. Beste zenbaitzuk ez dakit zeren sinbolo bezala ere bai. Hortik gaueko akelarreak eta aker-tipoen irudimenak eta salapenak.

23 *Sakerre/ sakher* izena ia azturik daukagu euskal hiztegian: 1 "*giza errebesa*", 2 "*ontzi gidaria*". Latinak *sakeros* konposatzen du, akerrren kastaz arazoa hobetzen ez duelarik. Hiletak Nilo ezkerraldean izaten ziran eta *sakherren* ofizioa zan ontzia gidatzea.

Eden
edendua.

Orduan
Jainkoak
gizakia
Eden-go
baratzean
ipini zuan,
lurra landu
zezan". (Has.
2,15)



Ba dakigu *Geb* sube astoratua dena eta idazlaria bera ere epaipean dagoenarren, emaztea ematen duena errudun. "Zoritxarreko zuek fariseu eta idazlari azalutzok". (Mat.23:23-26)

III AMAREN ETXEKO ITUGINAK

3.1. Uren gardentasuna

Gizakia bere zoriaren historia mitoetan idazten hasi zenetik zikinduxe dager iturrien gardentasuna. Ahozko berba zan amaren eskolako hitz orbanbagea. Idazlarien eskolak, ostera, uts ematen zion amari eta amaren eskolari. Asieran, Baradisua zenean, hone-la kontatzen du idazlariak. Ez daki nolatan, eta ez talakoan, subea agertzen da Baradisuko Jakintza arbolaren ostroen artean eta emakumeari itano dinotso. "Nahi dun jainkoa adina izan?" Eta emakumea, halako arinkeriaz, behingoan subearen esaneko egin omen zan. (Has. 3,5). Nor zan, bada, sube hori? Dakigunez, *Utu>su* dator, beraz *sube* "norbere sukarra" bezala da, geure odolean bilduta dugun berotasuna, geure lurkoitasunean daroagun erreten bizia. Hagaitik da *Utu+Ilu>odol*, zeru antzi eta lur ondarre, bizi iturri zainetan, birietan airea asa>atsa den bezala.

Ama etxeko Baradisua Sumerren gertatu omen zan, han agertzen bai-da Baradisuko lehen mitoa Enki eta Ninursag senar-emaztearen artean. Senar-emazteek ohi bezalako gora-berak izan zituzten artean, alabak jaio zirenean. Enki senarrak matxista urten bai-zuan. *Sube* nortasun hori *Su.ap* da sumerieraz. An "zeru" jainko aitak bere seme *Enki* bidaldu omen zuan lurreko

urak antolatzen eta Sumer aldeko ibarrean Baradisua sortu zuan (Ikus or.37). Gainerako Baradisua giza ames beraren aldakiak dira hor-emenka. Zorionaren erdian, erraturen bat gertatzen dela beti eta, azken baten, Enkiren kalteak kutsatu egin zuela *Nin-ursag* “andre *ur-saka*”¹ eta Ama Jainkoak emendatu behar umeen kalteak. Amaren etxean ere, senarraren eta umeen gaisoak osatzeko, etxeko baratzean sendabelarren saila eratu eta lantzen da.


Sumerren, han gertatu zan lehen uriola ere. Lurrak legortean ura behar eta ur-eske ahieruz lurtairek. *Ubartutuko* ehiagora izan omen zan. *Nergal* arduradunak zeruko andeparak idegi eta *galarena*² sortu omen zan. Urak errekarritik urten zuan eta ibai egaleko erri asko ito egin ziran. Gaur bertan ere, eta ez arinkeriaz, “ura da, gu gara” eslogana xurxulatzen zaigu. Eta egia da “urik behar ez bagendu, Ama Jainkoak ilargira-edo bidaldu gindeikezan.

Ura, zeru Amaren dohaia, “ama, ura” eskatzen du umeak, karameloa bera baino minago. Uraren ornigarria kale edo baserriko sukaldean eta herrien etorkizunean. Ez da zilegi fracking egitea, petrolio zurrupan urtegiak pozoitzea, ez papertegiez errekarrik zikintzea. Uraren alde egin dugun ahalegina, herriaren burrukarrik garbiena izan da. Utzi ibaiari nasai bere bidean eta, nahiz bide batez errotarako edo argitarako bere bultzada uztiatu, utzi bizi erretenak uretakoan bizigarri izan dadin. “Ura da, gu gara”.

Bero denean, uraren freskura bilatzen dugu ibaian, itxasoan edo bainuan eta bide batez, Sortaldeko jendeak ausnartu duen jakinduria gogoratzen: “Ez da nahiko errekan bainua hartzea, uin hoiek nondik datozen ohartu gabe”.

1 Asieran ama eskolako hizkuntzak sumeriera eta koptoak hein baten euskararen antzekoak ziran edo alderantziz. Baina amari gizartean lehentasuna kendu zion matxismoak ama eskola hori ere nastea erabagi zuan eta hein batean lortu ere, eta gero Babeleko naasmena izan zela aldarrikatu liburu santuan.

2 *Gilgames*, XI, 20 ss. Cf: Gertatuen oroitzapena egitea dagokigu, gaur “memoria histórica” egiten den bezala, gizakiaren eskarmenduak geure egiteko. Euskarak berak deitzen gaitu oroitzapen orretara: *Ibartutu=Ibarsusi*, *Galarren* deitzen duguna, *Nergal* itzulia bera da. Orain *enbata* deitzeko ohitura sartu da. Lehena ez da aztu behar, gaurkoari jarraitzeko; euskararen azterketan lehena dugu gida zihurragoa, hizkuntzak sustrai izpirik gal ez dezan.



Euskararen oroitzak “*ur goienak, ur barrenak*” oroitzen ditu Burundako erritoan, goi-beheen lotura aitortzen duela. Ostarkuak, adibidez hoi en arteko zubia egiten du, urak iragoten, alegia. Urteko urak zihurtatzea Urta-rileko ardurarik handiena eta Urdiaingo ospakizunak auzoari “*etxe honetan sar dadila*” bakearekin osasuna” opa dio.


3.2. Eguzkiaren txera

Utu>ide eta *kide* dugu bidaztiok, *Utu musu>Dumuzi*⁽⁶⁾ zeritzon Inannaren maitaleari, eguzkiaren arpegia zuelakoz. Zenbat hola-ko analogiarik ez da entzun gure amen esamoldetan. Kalean eguzki nahiko ez badugu, mendira eta ondartzara goaz eguzki gosez. Aberatzek abioian sartu eta Kanariasera doaz. Baserritar-rrak soloan hartzen zuan nahiko eguzki. Baserriko neskek, maiz ondartzara joaten direnak baino, morenagoak ziran geuk ezagutu dugun aldi baten, Nafarroako mutilak XII-an Aymeric autore-ak bezala. Eguzkia argia eta osasungarria da-ta. Eguzkirik behar ez bagendu, Via Lakteara barik, Andromedara-edo bidaldu gin-deikezan, amaren etxea, ornigarri guztiekin prestatu zigunak.

Ez da nahiko, hala ere, azaleko eguzkiaz txarmatzea, lurbirako haren ostera osoa jarraitu barik, gure asabek egiten zuten bezala. Hagatik *Utu>ide* izan nahi zuten, lurrean bezala, zeruan ere, *Utu>-duin* izan, *Utu>to>txo* nabaztarrez, ama etxeak bere gaineko zeru ma-koan dituelako arketipoak. Norik jasoko gaitu gu goiko amaren etxera, egunero bidea egin eta egiten erakusten digun eguzkiak baino? Gure asabek hilobietan “iduzki sailduak”, “eguzki harrituak” *Uduskiaren juso*³ *zuzena* sinistagarri egiten zitzaizen gure arbasoei. Hagatik

3 Hori da Utuk Amurabiri emoneko *sozta>txotx*, aginte seinua, “alkatearen makila”, hizkirimiriak galdetzen duen lez: “Zer da basoan jaio, basoan asi, herri-
ra etorri eta bera nausi”? Orduan “mekasuensotz” birau egiten zuan euskerak eta
“meca...en la ley” gaztelaniak. Upelaren zuloak ere *txotxaz* ertzitzen dira, sagardo-
aren upelean, ostera, *txotx* murristuxe geldituko da gure kulturaren aulerian.

Kosmo egiari esker, iraun egiten du herrien jakinduriak. “Ez naiz etorri lege zaharra ezabatzera, osatzera baino”(Mat. 5:17). Euskal atarietan maiz agertzen zen lege zahar eta berriaren eskontza sinboloen sailean: Eguzki lorea eta Jesusen Bihotza fedearen inkulturatzeko mailan. Batak bestea dakar: Kosmo jakinduriak, giza jakinduria. Baina alderantziz ere, egin daiteke bidea, gizakiak kosmoarekin duen zilbor estetiko giza jakinduria sortuz.



etortzeko zen mesias Kristori (Mal 4:1-6) iduskiaren analogia eransten zaio, herria gidatzeko legelariak *Utu*-ren *idea* eta *otsa* hautematen dute. *Utu iduskia* izan zan, uriolean *Utani-pistin*⁴ uretatik *itoituz*, bere ontzira *otatu* eta herioari *ostu* ziona. Ez *udui* bakarrik, beragandik *uduki* dugu *zuurtzia*, hizkuntza mailan⁵. *Utu*>*ide*>*idea* ezeze, >*bide*>*bidea* egiten du euskerak, *Utu* arketipoari zion >*fide*⁶⁾>*fedea*, alegia, argitzen zaio aldiari aldiko distiraz. Arketipoen konplexuak argitzea dagokigu talde eta nor bakoitz mailan. Euskarak eskola giroan bai, baina familiako berotasunean galtzen doala? Aztertu beharreko auzi galanta amaren etxean⁶. Kaltegarri duela eskola? Ez, ama eskolako hizkuntzak ama eskola behar duela baizik. Sikologiaren izenean? Eta Ekologiarenean. Amaren etxea, ekologia ere ba-da. Jung sikologistak “arketipoak” aipatzen ditu, kutsaduraren begiraleak “ekologia” dino. Hizkuntza mito bizia denez gero, bizitik bizira doake bizkorrago.

4 *Gilgames, XI, I, 188* passim.

5 Euskerazko hitzak, batera edo bestera deitu, arduraz gaitzeko izango litza-ke, mezu arrigarri baten guri ezbalira. Euskararen arketipoak jarraitzea era bitako osakuntza ekar lezaio euskarari eta euskal kulturari, euskara osatua bilatu nahiez gero. Ingelelesa bezalako hizkuntza murriztuak ez digute balio, linguistika egiteko, *brexite*<*berezitu* konplexudunek ez dira ama eskola zaleak.

6 (*Deia*, 2017, 22) Andres Urrutia Euskaltzaindiako Lendakariak, ardurazko arazotzat jotzen du halako berria, 30 urtez euskararen norma edo eredu lan-tzen jardun ondoren. “Euskera batu bizia” aipatzen du eta euskalkien beharrez-ko berma eta ornigarria. Ez ete da eztabaidatzeko eta itunben bidez adostaduna lortzeko garaia? Ikasiko dugu noizbait demokraziaren eskakizunak betetzen.



Uretan blei eta eguzkitan mozkor, grinak ematen dueino, ura ama arketipoa eta sua aitarena bai-dira. Kosmo jakinduria da amaren etxeko zuurtzia, osasuna eta atsegina, bere neurrian, amaren baratzeko osakai gomendatuaren antzera.

3.3. Aireko eroien errak

Erra eroe gazte *eroska* dirudi Egiptoko mitoetan, bide arrunta arrigarri egiten zaio aideko orbidean eta Maat Amaren gida eta bere *ank>angura* lagun behar ditu, iterakoa erratu ez dezan. “Zer gertatzen zaio, bada? Lurraren biran kukurio dagoen subetzarrak bera irentsi irrikaz itxaroten diola urteera-sarreretan”. Mozorroa aldatu, arkameluarena egin, bera den erraldoia, kakarraldo itxusi biurtu, etsaiari marro egitearren... Tot idazkariak, ontzi berean ostetik, kontrol zehatza egiten dio. (Ikus or. 41)

Izan ere, *Erra>eroi* beste, *ero* dator hizkuntza ahozkatuen *ereduetan* eta *erre* eta erabat *erru* izatera prestatzen da. Buruauste horrek hako jainkozko *eredua Erra>erio* harriskuan jartzzen zuela. *Errensube* bildurgarriak oratzen bazion oratu, irensten bazuan irentzi, lurdia bere argi barik, ilunbean utz zezaken une berean sekulako. Hagatik arren jainkoei, Erra bizi dadin.

Erra zahartu zenean, aldamenekoak bere aurka arramantza sortu zutelako susmoa izan zuan. Errak bere aurrak arras garbitzea erabagi zuan, ekintza ankerra Ator alabaren (Ikus or. 23) eskuetan usten zuela. Lana amaitzear zuela, *arrakastaz errukiturik*⁷, alaba, masuzta sumoaz orditurik, aurrak ondamentitik

7 *Erru>erruki* elkarrenak dira eta nonbait, aurren egilea bereen *erruan errukide* egiten dela adierazten digu, asieratik aske izateko sortu zituelako. Gaurko ekologia ardurek ba dauke Erraren mitoan zer ikasi

erostearen lortu zuan. Horrela *Erra*>*erru* ta *erruki* hitz fosilak mitoaren kondairaz eta haren argitasunean obeto ulertzen ditu euskara bera den mito biziak, aldi bateko Unamunok ere amorematen zuen bezala⁸. Euskal ildotik erosoago argitzen dela diglosian dagoen euskalduna. Aldian aldiko jakinduriaz “bere zemaiez damutzen den Jainkoa” (Jl,2,13) argitzen joan denarren, *erruki* hitza eta salbabideko ideak ondo errotu zeuzkan.


Erraren arrakasta oinarrizko jakinduria da teologian, gero asmatu diren teologien igarkizuna bezala. Haren jakinduriaren *erranak* eta *eraginak argi* agerten dira euskeraren oroitzan. Egipton *Ra* forma dager, idazkeran behinipehin, aurreko bokal barik, koptoak kontsonanteari ematen ziolako lehentasuna.

Erra, teologiaz landa, biologia, psikologia, eta bere ereduko enziklopedia da. Aireko egaztietan, adibidez, *An* ereduia *anate* bada, eta *Uturen* aideko egaztia, *ata* goitarra edo *uso* zaulia, *Errak arranoa* aukeratzen du eta harago, *erron* deituko dio kabian *arrautsa* ezarteari, eta horrela *Ilu*-ri dagokion *oilo* kastak ere *erron* esango du bere *arrakastaz*. Orobat, *Utuk* lurrean *udoa* edo *utuku*^(s)>*dogoa* duela etxezain, *Errak ora*⁹ du etxezain eta artaldezin eta ardiaren aurretik doan adariak *arranaren* durundua eramango du, *artzain* txistu eta abotzaren doinua *errazten*.

Erraren errabia ere gogoratzen du euskerak, aipatu igarle Joelek bezala, baina ez hainbeste Inanaren *damua*, *Tamuz* bai-zeritson akadieraz *Dumuzi* bere maitaleari, jatorriz jainkotiar izan barik, “Utu musu” burua eginarren, aldioro, landaretzak bezala, negutean odol galdu, hilduratu, zenduen lezean iraun behar

8 “Lo cierto es que en gran parte de mi país vasco -que es lo que yo conozco- aún los aldeanos que hablan castellano y son capaces de seguir, mejor o peor, una conversación en este idioma, si van a oír un sermón predicado en él, se quedan a oscuras”. (MIGUEL DE UNAMUNO, *Religión y patria* (1904) o.c. I, 1112)

9 Ardiaren ora>*artzanora* dator eta *etxeko ora*>*txakur*. Hau edonork dakike, baina gaztelaniaz esaten den *perro* nondik datorren jakiterik ez dago, hizkuntzako arketipoen bidez ariketa egin ezik. “Eskerrak euskarari” esan beharrak askotxo zapuztu ditu, eta “eskerrak, ama, egiten didazun gidagaitik” esatea baino ez da. (Ikus eskumako irudian Erra erraldoa orbia ontzian).



Erra eroiaren arka>**barkua** orzantzean gora eta arratzean beera goiko uretatik beeko uretarako *orbian*, Errensubiaren arramantzak ekidintzen. Ontzi erdian doa, arrano buru duela, buruan bera den oropila eta sugeñoa subetzarraren aurkako abisari eta, batez ere, aurretik Maat Ama duela gidari eta Tot eskribaria ostein eguneko zertzeladak zehatz-meatz apuntatzen. Gainerako pertsonaiak ikus 31 or.

izaten zuena udaberrira arte. Harago, Inanna, jainko alabak, protesta egin zuan ugoldeko ondamendia ikustean¹¹. Eta damuarren, jainkoei omenaldiko oparia egin zien, eta giza zoritxarraren errudunetarikoz zen Enlil jainko armatua opal maiko zurrutatik astandu egin zuan, “zorga jokatu zuelako ugoldea erabagitzean”¹².

Erra aire dator, ruah^(h), *arnasa*, eguratzetik geure birietaraino doan elementu ikusezin arina, geuk geure errezunden ezarduraz edo erratuez karbonoz zikintzen duguna: lantegiko labeen, eta gazaren tximiniez, laino pozoituez, droga errekiniez, etab. Jainko *arnasari* “espirituari” *arren* eskaten diogu gaurdaino.

11 “Jainkoen batzarrean nola aipa nenzaken erio zigor asmorik? Gizadia galtzeko erasoaz berba egin nuan, neure sorkariak galtzeko erabagiaz, neuk aziak bai-dira hain maite ditudan herriok. Zelan bete nezaken eurekin itxasoa, arraintxoak bailiran”. (*Gilgames*, XI,120-123)

12 *Gilgames*, XI, 168.



Aralarko miraria: **Errensubia eta Teodosio**, Goñiko zalduna eta *Mikel Enangerua*. Zerua bere aurren orhoaz erruki da, erortzetik erosten ditu. Aralarreko Santutegian gaurdaino abesten da: “Mikel, Mikel/ Mikel guria/ zaizu, zaizu/ Euskal Herria”. Historia, mitoa eta sinbologia elkartzen dira, zeruak galtzaileen alde erantzun dezan. Amayurko gudariak ez al zuten izan federik nahiko? XX-neko gudari armatuen adoregarri Euskalerriko Zaindariaren estampa aukeratu zutenean? Errensubia sinbologia izanarren, ez da zain eta gihar bako zerbait, ikusten ez den espiritua. Erresuma txikiak, handien aurrean, herri aulak indartsuen zemaian jasan izan duten bakoitzean aurren orhoa zeruraino doa eta euskeraren oroitzak gorde ahal izan du horren eredia...

3.3.1. *Errensubia eta Mikel Enangerua*

Erraren teologian *Errensubiaren* mitoak urruinatu egiten ditugu gaurko fedean, hotz, munduaren biran izkutatzen den azpi-sube erraldoiaren erasoetan ez dugu sinisten. Aldi baten Erra haurra irentsi nahian eta Erraren argi barik, mundu guztia ilunpetan uzteko arriskuak larritzen zuan herria. Egipton Erraren orbiaz arduratzen ziran. Maat amaren jakinduriak gidatu ezik, uretan galdua litzateken (Ikus 41 or) eta eztalako marmarra zan: “ba ete da halako umekoa amaren ondarea jaraunzteko?”¹², gizarteko gertakizunak, jainkoen familiako gertagarri sumatzen bai-zituzten.

Egiptiar mitologiako subetzarra bera da gero, ez nondik eta ez handik, Bibliako Baradisuan agertzen dena, (Ikus 35 or.) edo haraz gero, herri zuhurtziak Euskalerriko Donienez salatzen duena “subeak eta zapoak erre” eta harago, Teodosio Goñiko zaldunari gertatu zaiona: Aralarren omen zegon bere pekatuaren

12 Ez da harritzeko geroago ere Iruña Beleian egitiar misiolaririk ama Balentina etxeko katekesian agertzen diren ostraken arabera. *Errensubia* ez da, beraz, “sube errena”, *Erraren subia* baizik, *Errensubia* “aman gonea” esaten dugun bezala. Mitoanalizatu ezik, ez dago hizkuntzen jatorria ezagutzerik.

Ilu jainkoa, *ilargia* ikurtzat duela, sumeriar irudian. *Ilu*>*il* dator, izan ere, eta sumeriarrek ez zuten jainkotzat, *aulezi* gai-zoen *lekuko zelako lekuan lekuan*. Euskerak *loi* eta *lur* dino bere *elairean*, *aul* eta *ol*>*oldu*>*old*⁽⁶⁾ *hilkorren legean*. Alenaren oroitzapena *Olentzeroz* (Ifarrean halloween) ospatzen dugu, jainkozkoetan *laugarren* arketipoa argitzen zaigula. Euskerak *Alena* dino, hebraierak *Elohim*, arabeeek *Ala*, euskaldunek *Alajainkoa* zin eginez eta “*il Lelo*” *lelokatzuz*. *Ilargi* edo *iletargiari* dagokionez, astearen *lehen* egunari *astelen* deritso, *Alena* beti delako *leen*, -h edo -h- gabe. Nola daiteke *laugarren* arketipoa *leen*? Nondik asten den bat kontatzen azkena edo *lenena* izan bai-daiteke...



ordain aita santuak agindu poenitentzia. Orduan bere irunsteokoko asmoz lezetik urten omen zitzaion *Errensubia*. Ezkerrak une berean, haren *erresuak*¹³>*erresatuz*>*erraztuz*, Mikel Enangerua, buruan Kurutzea zuelarik, ez beste irudi ezkristauen eratan ezpata eta lantzaz armaturik.

Guzti hori IX-garren gizaldian gertatutzat ematen da, Goñiko zalduna mahomatarrak borrokatu ostean etxera zetorrelarik, bere ezkont-ogean bera ez zenarduna aurkitzean, guraso biak itxumustuan erail zituenekoan. Baina *Errensubia* izena ez da arabeen garaikoa ez XV-go gaztelania, Oñazko zaldunak Gaztelako erregearen lerroetan, Nafarroa borrokatu zueneko edo aita santuaren bulaz baliaturik, Nafar Erreinua irentsi zueneko.

Bizkaian “Aita San Migel” dantzaz abesten zaio Mikel Deunari eta haganako jaiera noiztikoa den susmatzen dugu. *Errensubia*, berriz, eskerrak euskerak mitoak argitzeko duen artesiari, eta alderantziz. Hagatiak esaten zuan Max Müller, erlijinoen gonbaratzaileak, hizkuntza zela historia horretan sinisgarritasuna zuen bakarra, herriek jainkoekin hizketatzeko erabiltzen zutelako¹³.

3.4. *Ilu, jainko alena*

Lurrean bizi garenarren, ostaz ezagutzen dugu gure aurretikoek jainkotzat zuten *Ilu*>*Elohim*^(h), *Ala*^(ar)>*Alena*¹⁴, udatean *aala* eta negutean *aula* ta *auleria* erakusten diguna, *Iluil* edo *Lotazil*¹⁵ izeneko garaian. Bai, aldi batean, sukaldeko *laratzeraino* (Ikus or. 19) sartu zitzaigun *Ilu*-ren teologia eta *Larunbatero* egiten oroipena, eurak bai-ziran etxeko autsekiko harremana. Ba liteke erritual hau erromatarren garaikoa izatea eta lehenago *Sapatu* deitzea, heberkeraz lez, hotz, *zapatuen* eguna, etxeko eskaratzean bertan lurperatu eta lur *zapatuan* zirenen gomuta.

Egia da *Ilu*<*loi*>*lodo* dator eta hara garoaz. *Ala* ere, amaren etxea maiteki hartzen duen tokia da, noizbaiten Baradisu deitua eta baserritar senaz *landu* genduena eta gaur bertan ere “ama eta arreba bezala, maiteki onartzera gonbidatzen zaiguna”¹⁶.

Lurra lantzeko eman zitzaigun. (Has. 2,15) Lurra lantzeko ezpalitz, Marten ere eraiki zeiteken amaren etxea. Lur landua lantzar uzten denean, sasia ugaritzen da soloan. Lur landu eta ongarritua gure amaren eskola izan da Neolitostik hona. Industrialismoaren larregikeriak aztertu eta hein batean emendatu ditugun kalteak egin dizkio gure lurrari. Eta hor dogu ekologia, amaren oharrak bezala, deika eta deika.

14 *Ilu* jainkoaren semetzakoa *Balu*>*aliyn*^(w) “*alena*” zeritson ugariteraz ere gehiengo kasuan. Ugarit ugaroaz bizi izan zen herria, gero Fenizia deitua da, kulturaz sumeriarra. Sumeriarrek bezala, euskerak ere ezfidakor, “tonto *alena*” bezalako esakeretan erabili du *alen* hitza. Baina hor da euskarak nongo lehen-gusuak izan dituen jakiteko eta ohargabeen duguna argitaratzeko, *alajaina!* Exegesia ikasten dutenek ere ez lukete hebreoa ikasi behar euskararen orde, biak gonbaratu baino. Haren deskribapenik zehatzena euskerak dauka “Jainko *alena*” forman. *Larunbata*<*Lares*, -*ium*^(v) “*Laritzen batza*”, Erromak jainko etxetiarrentzat onartua eta *Lardero* izenez Inotean, txitxiburduntziz ospatzen dena.

15 Izen batzuk baztertu egin ditugu ezjakinaren poderioz, baina *Ilu* izenak argi dino nori oparitu *ila* dein, hain zuzen, erein hazia *lotan* gordetzen duen *Lotazila*. Euskara bera ere *Lotazilean* dugula, hotz, ohargabeko arketipoak argitu gabe, izen batzuk Hiztegi Orokorretik kendu egin behar lirakela ere entzuna da, euskal forma soilenak bedere, bizirik iraun ahal dadin. Lurra kenduz, hazia erne?

16 *Laudato si*, n° 1. Cf: Franzisko Doneak eguzkiari eta haizeari “anaia” deitzen dio, eta “arreba” urari. “Goratua izan zaitez, Jauna, arreba uragaitik”.



Agate Deuna besperan makilen dunbotsez auzoz auzo abestera urteten da. Zertarako makil hoién hotsa? *Ilu>lo* dago, *lotan* dago, *loak* hartu>*lokartu* eta itxartu egin behar da, erne berri diren babak proba egin dezaten. *Ilu lotia lotatik* ixartzeko joaleak arran eta txilinteria handia erabiltzen dute, Nafarroan-eta. Herriak lurrarekin harreman estua bizi zuan/du eta gauza bera eskatzen digu gaur ekologiak, lurra ere bizi dugun “amaren etxea” dela eta hagatik, zerbait bizi eta *elikagarri* zaiguna bai-da.

IV. GIZA JAINKOTUA, ETXEKALTE

Anunna^(s) zeritsen *Anu* jainkoaren umei, guk *amana*^(eus) esaten dugun bezala¹. *Anunnaki* ziran, ostera, lurrera bidalitako angeruak, askasia nastua ziran, beraz, erdi angeru, erdi gizaki.

Gizakia umetzaroan amaren agintepean zoriontsu bizi izan zan, gaurko esperientziaz ere antzeman genezakenez. Jung sikiatrarren gardiz, gizakiak norbere arketipoa bermatzeko Bestearen arketipoa bilatzen du. Ospetsu egin ziran Ama Jainkoaren agintea itzali eta haren aurkako umeteria botere armatu zanean². Ustez,

1 Forma hoietan ikusten dugu *-na*, Noren kasua egina. *Anunna* “angeru” da eta *ainanino*^(eus) “deabru kume” gu umetan, gaiztakeriaren bat egiten gendunean. *Anunnaki*^(s) zeritsen *-ki* “lur” gizarteko angeruei eta heuren gidariei *anunnakene -ne* gehiengo forman. Euskerak, atzizkiaz aurrizki eginik, *angeruen>en-angeru* (Ikus or. 42) ere egin du *doniene>endone* kasu berezietan.

2 Mikel enangerua bera ezpataz edo astamakilaz armatu (Aralarreko Mikel Enangerua, ostera, kurutza buruan soilik dager), beste geinu batzuk geziaz edo makilaz armatu agertzen dira, aita aginteko jainko armatuen antzera.

batzutan jainkozko Beste ereduaren antzera jokutzen dute, edo Bestea baztertuz edo erailez, norbere burua jainkotzen. Kapitulu honetan eroi edo etxekalte hoietariko batzuk aurkezten ditugu, literatura zaharrak eta mitografiek kontatzen diguten eratara. Aitiatiar nagusigoaren garaikoak direnez, denak dira gizonezkoak, Inanna izan ezik, baina bera da nahiko askoren aurrean.

4.1. Enki, “ur barrenen” banatzaile

Eroi hau Sumerreko baradisutik ere ezagutzen dugu. Eskumaldeko mitografian lurreko uren banatzaile agertzen da, sorbaldeetatik bi erreka Burano^(s) eta Tigelet^(h)/Eufrates eta Tigris dariozela. Dilmun Baradisuan Ninursag³ emaztearekin nahiko matxista portatu zan, ikusi dugunez, baina Inanna-rekiko apostuan zearo galtzaile urten zuan eta, hala ere, amore egin zion halako galpenari nolabaiteko “emazten faborez” ontzat ematen zuela.

Babiloniaren garaian *Enuma elish* liburuan Ea⁵ izena hartzen du eta beragan asten da “jainkoen aserako gerena”, aita ordezkatzearren, SU.AP^(s) asaba erail eta AB.SU^(s) ama alargun utziaz⁶.

Sumer “marra goiena”⁷ lur landuaren ondoko itxasoan Dilmun ugarte ondoko urpean egin omen zuan Enkik bere jauregia. Behin Inannak bisita egin zion eta garagardo apustua egin eta gero hasi omen zan bien arteko aposturik famatuena, ikusiko dugunez. Lurretik aparte eta kalapeko jauregia bere uren arduragaitik izan zeiteken edo Enlilen gezietaatik igesteko amarrua. (Ikus or. 47)

4 Ingelesak, grekoak bezala, *h* ugariz josi ditu hitz asko eta anarteko euskaren zehaztasuna kaltetu, *Ninhursag*, *Hator* edo *Horus*, adibidez.

5 Akadiar etorkinek ere ez ziren makalak sumertarren aurka jainkoen izenak aldatzen, Enki>Ea, Inanna>Ishtar/Isara^(h), Utu>Shamas, etab.

6 (*Enuma elish*, I, 3, Nota) *Apsu/Suap*^(s), *Busu/Sube* irakurten dira euskeraz, “eme/ar” adierazten. Jainkoen aserako geren hortatik askatzea izan zan gero Ea-ren seme Marduk eroiaren magiazko ekintza zoro eta galgarria.

7 Beste hizkuntzek ez dakite Sumer izenak zer esan nahi duen, baina euskerak badu biderik *Marko<Marrako* formetan bezala, *marra>mar* datorrena jakiteko, itxasoa delako berezko *marra*, tokizenetan erabilten dena. Erromani-koek, ostera, *mare>mar* “itxasoa” soilik adierazteko erabilten dute. Erromak ez zuan aztertu, Erromak guda egin zigun eta ahalik eta kalterik andiena bere garaian.



Jainko armatua Enlil da, bere ikurtzat hartu du Inannaren leoia. Akadiarrak sartu ziren Sumerren: Aita jainko aginteak ordezkatzeko Ama Jainkoaren agintea. Eskuman Anu jainkoak Enki, uren ornitzaileria, izentatzen du lurtean. Erdian Utu >iduzkia mendartetetik itoitzen da, itaia eskuan, bide egiteko. Inanna, ego loredun maite jainkosak bere meen ardura jartzen du bere zaintzapean.

4.2. Inanna, zeru-lurretako erreginaren me-ak

“Emakume jakinak bere etxea eraikitzen du” dino *Esakunak*, (Esa.14,1) eta euskerak “andra gurenak etxea lausaturaino betatu daroa”. Euskal jakintzarena egin zuan Inannak, behin bere erdi jainko askaziko Enki uretako jauregian bisitatu zuenean eta berekin garagardoa edatera apostu egin. Etxea eta jauregia Inannak Ur uriko errege Urnammu-renean zeukan une haretan.

Enki edaten eta unadaka berotzen joan zan, Inannari zion abegiaz. Ba zekian zerbait eskatzera zetorkiona. “Nahi dunana emango dinat, bai ta...” Erronka bakoitzeko Inannak: “Onartzen diat” erantzuten zion eta aurrera apostua. Enki zan denaren jabe lurrean, eta uztiatu egin behar zuan Ur uriko gendeak ezerean faltarik izan ez zezan.

Enkik eritsia, Anuk onetsia eta Inannak uztiatzea izan zan. Egun haretan Inannak Ur etxea lausaturaino bete bai-zuan, edo eta gurean esan oi denez, “onean, onean, andrearen gogoia bete zan”.

8 *Kurunu* zeritson erritualeto garardoari, hotz, *koruena*>*corona*. Amak deitzen zidan *kururun* forma ere hortik datorke. Egia ete garagardoarena? “Beti garagardoa edaten duenak beti ura edaten du”? (*Proverbios de la colección sumeria I, 105*)

Gizarteko politikaz ezin denean, zerbeza edanean, “asmoz eta jakitez, txikiak andia bentzuten” ere esan ohi denez. Eta sumertar eta akadiarren arteko politika ganora zertan zen jakiteko (or. 47) begiratzea baino ez dago. Ama erregimena amaitu dela? Gora ama!

Inannak Enkigandik jasotako eskubideok hoiiek dira Inannaren *me/mei* deituak. Euskarak ezaguna du hitza *me, mee, mei*, “zorrotz, zauli, pin, sotil, artezi” adierazten, edo zuzenean *eme, emazten* eskubideak berreskuratu nahi bai-ditu *Inannak*. Izendatzen eskubideetariko batzuk eskubide batzuk politikoak dira, “nausigoa”, “koroï gorena/ -gurena”, “errege aulkia” adibidez⁸. Beste batzuk jainkoekin dute zerikusia “jainkotasuna”, “isipu eta abadegoa”, bezala, etab.

Etxatiarragoak dira “bizia eta erioa”, edo eta “suaren biztea eta suaren itzaltzea”⁹, “familia batua”, “aurgintza”, “maitaketa artea”, herrikoiagoak langintza artean “metalak lantzeko artea”, “arotz trebakuntza”, “zumitzgintza” aipatzen dutenak edo “musika”¹⁰.

Moraltasunari begira dagoz “egia” eta “gezurra” edo joan historiari, “ugoldea” bezala, eta “alamena”¹¹ edo bere bizikizunen gorantzian “lezera jaistea” eta “lezetik urtetea”, nolabaiteko berbiztez.

Inannak gizonetzkoen agintean ere, ba daki ama aginteko eskubideei eusten, eta eztalakoan, amarenak berreskuratu zituan sikologia mailan, aitaren politikari aurrea hartuz. Feministek ba dute Inannaren espiluan emazteen boteretze sailean eredu finik.

8 Nori zegokion zeruan eseritzea, Ama Jainkoari baiño? Eta nori aurre-ra jo eta joatea, Iduzki Aita Jaunari baino? Konta zezaken Enkiren aurrean, ea nor zan Aretako Jauna atxurdinen petxara behartu zuena, zeru eta lurreko bere entzuteak baizik, zeruko urdina bezain berea zelakoz lurreko atxurdina.

9 Amaren etxeko ohiturak begiratzea baino ez dago. Erritualari dagokionez, (Ikus nota 14, or. 18-19) edo *etxandera* > *santera* nortasunak etxeko eta auzoko iletetan zuen eskua eta elizako jarlekuen jabetza.

10 Inannari harri bitxiétan zeru urdinekoa gustatzen zitzaion eta arribitxi horren kutiziaz atoratu zuan Aretako Jauna. Musika interpretatzen dagoneko aurrea hartu die emakumeek gizonetzkoek, bada ariketa ordu gehiago eskatzen du eta kemena, Inannaren kemena eskatzen, musika tresna emeki jotekoa bai-da.

11 Aipatu dugu Inannak izan zuan tamala eta damua eta harek jo zuan aienea berak sortu umeak lokatzaren pare eginik ikustean. (Ikus Nota 11, or. 41)



Gilgames eta Enkidu-k Inannaren Zeruko Idizkoa toreatzen dute bien artean. *Utu* nebaren abere kutuna *Idia*, ugaltasun eta adorearen seinu zeruan eta lurtean eta Inannak Gilgamesen arrokeriak zigortzeko Anu-ri eskatua. Uruk uriko plazan aurre egiten diote eroi biek eta giltza egin idizkoari. Haraz gero, matxista odol zaleak “neu nausi edo muturrak autsi” politikan zezenketa dute joku aukerako.

4.2. *Gilgames, eroi eroa*

Gilgames Uruk uriko errege izatera eldu zan eta danbor otsera herriko gazteria goizetik gudura mogitzen asi zan. Alamen nahiko entzun zuan Anu jainkoak eta, Gilgamesen zentzabiderako Aruru amari haren kideko seme bat eskatu zion. Enkidu basatia izan zan, arik eta emakume batek eskolatu eta Gilgamesi aurkeztu zion arte. Orduan izan zan ames guztien gilia eta apostu guztien kantxa. “Hik hau eta nik bestea egingo diagu... Umbaba horrek ere jakingo dik nor den nor. Zedroen basoa txikitu behar diagu”.

Aizkorak hartu eta Humbaba basajaunaren zainpeko Zedroen basora eldu ziran. Kukurio itxaron zioten sarreran eta, basajaunari zazpi gonak janzteko betarik eman gabe, Gilgames eta Enkiduk bien artean eraso zioten eta hil Humbaba basajauna. Basoak eiagora jaso zuan haren heriotzean eta jainkoen basoa erori zan.

Algara handia sortu zan Uruk uriko plaza nausian eroiek kontatzen zutenaz. Ishtarrek ere abegi irripartsua egin zion Gilgamesi. “Zatoz Gilgames, izan zaitez ene senar” [...] Gilgamesek erdeinu arpegia erakutzi zuan. “Zer eman beharko dizut, zurekin ezkontzekotan?” [...] “Ez zaitut emaztetzat hartuko” [...] “Nongo

12 Jaun Baba edo Basajaun hori entzute handiko eroia izan zan gizadiako elementuen zaintza eta ekologian. Zuhaitz tantaien erorketak atera zuan arrabotsa “Libango basoraino eldu zela” dino liburuak eta Humaba bizirik zela oraindino. Eta guk Iratiko basoan izan zuela bere kideko Basajauna almadieroen lana begiratu behar zuelako. (J.M^a SATRUSTEGUI, *Mitos y creencias*, 133-140)

senarri egundo gorde diozu fedea?" (VI, I, 6-32). Gilgamesek haren maitaleen historia eginik, ordez haiek jaso zuten esker txarra salatzen du. Berak ez duela holako biderik jarraitu nahi. "Eta ni, maitatzen banauzu, ondore berdina emango didazu". Ishtarrek hori entzunik, aserre bizian zerura igon zuan eta Anu be aitaren aurrean negar baten eta Antu bere amaren aurrean negar malko ustuzan: "Ene aita, Gilgamesek irainez bete nau"(VI,I, 79). [...] "Sortu egizu niretzat Zeruko Zezena Gilgames hori ondatu dezan" (VI,I, 94-97).

Ostaz, baina bereaz urten zuan Ishtarrek, baina Gilgames eta Enkiduk elkarren artean giltza egin zioten Zeruko Zezenari. Festa andia izan zan gero herritarren artean erioen ekintzagaitik. Gilgamesek, arroturik, ohiu egin zuan orduan: "Zein da gizonen artean ederren? Zein aintzatsuen gudarien artean?" "Gilgames da ederren gizonen artean. Gilgames aintzatsuen gudarien artean". (VI, I, 182-185)

Gilgamesek, hala ere, saminki jaso zuan zerutiko ordaina. Egungutxi barru Enkidu kidea gaisotu eta hil egin zan eta bera, larriak emanda, bide erratu, alderrai jo zuan mortuan zehar hilezkortasunaren bila, Ugoldean bizirik urten zuan Utanipistinen-gana. (VIII, III, 3). Nora zoaz, Gilgames? galdetzen zioten bidean. "Heriotzaren bildurrez nabil ordekan zehar. [...] Maite nuen Enkidu laguna orain lokatza da. Ezin dut suerte bera jasan" (X,II,7-15) Mirabe batek galdetu zion: "Gilgames, nora zoaz bide galdu? Bilatzen duzun Bizia ezin zenezake idoro. Jainkoek gizadia sortu zuztenean, Bizia heuren esku utzi bai-zuten eta heriotza eman gizakiei" (X,II,15-19).

Aholkuei jara eman gabe, aurrera ekin zion Gilgamesek Utanipistinen bila. Ugoldean salbatuak hilezkortasunaren belarra eman zion. (XI, I, 268 ss) Ba zetorren Gilgames hilezkortasun belarra eskuan etxerantz eta iturritik ura edateko aldameneko harri gainean utzi zuan. Gilgames ura edaten makurtu zela, sube batek belarra jaso eta jan zueneko, eskatak berriztu zitzaizkion (XI,I,285-289). Agur hilezkortasun belarra Uruk-eko baratzean landatzeko amesak.

13 *Gilgames* arte ederrenaz asmatu liburuak ba du ekologia eta gizatasuna maite dutenentzat naiko lezino. Emakumeak dira giza sortzaile: Aruru, Ugoldearen aurkari: Inanna, Enkidu zibilizatu zuena: emakume librea, Gilgamesi aholku egiten zien gelazainak, Gilgamesi hilezkortasun belarra eman ziona: Utanipistin>



Ptah<Bata>batu (Ikus 52 or.) jainkoak batu zituan Egiptoko jainko guztiak eta euren ahalmenak. Ama Jainkoaren seinu guztiak eskuan ditu: *menat* idunekoa, *uas zotza*, *Dyed* zutoina, *Anj* aingura eta *Ma.at* Ama Jainkoaren seinuetan oinpekoa. Hala erabagi zuten Menfisko abadeek eta hala irauin zuan Menfis Egiptoko uriburu izan zaino. Euskaldunek ere “Bat, bi” kontatzen eta “Jainkoa Bat era bera nahikoa” esaten ikasi gendun; amaren mendea ahienatu zenekoa zan eta aitaren nagusitza aitatu zenekoa. Egipton Deltako *eritziak*>*eresiak* 500 urte irauin zuan, Tebas uriak *Amon Ra* eta *Mut/Nut* jainko parekideen bien nagusitza berreskuratu zueino...

4.3. *Ptah, hitzaren magia*

Menphisko apaizak Egipton etxegintzaz, arteaz eta merkataritzaz dirutza ezeze, botere handia lortu zuten Egipton eta dinastia sortu Tebasen aurrean, Goiko eta Beeko etxeekin *bat* eginik. Hagaitik *Ikupta*^(w)<*oiku batu* “etxe batu” deitu zan >*Egipto*. Euren aginte etxeari iraupena emateko, *jainko* izena aztertu eta “Bat, batasunean” jarri zuten haren funtsa”. *Ptah*^(k) deitu zioten eta haren predika egin mediterraneo inguruan. Gnostikoen pentsamoldeak eta Erdi Sortaldeak, Egiptok berak baino, hobeto hartu zuan idea.

Harrigarriagoa da orduko Euskalerriraino ere jainko horren berri eldu izatea, euskal etnografiak ohartzen duenez, “Jainkoa *Bat* eta bera nahikoa” jakindurietan ezeze, katekesi forma luzeagoetan gogoratzen digunez, hako “ez dok hamairu” erantzuneraino¹⁴. Kristautasun garaian ondo ikusten da “gure Jauna bera da

>nen emaztea eta xedera, neurritasunera, ekarri nahi zuena: “garbitu egizu burua eta uretan blei egizu; begiratu egiozu eskutik oratzen zaituen seme-txoari; datorrela emaztea ezbaigabe zure altzoan lo egitera; hori bai-da giza-kion zoria!” (*Gilgames*, X, III, 25-28)

14 Honela hasten da kantagaia: “Esak bat, gure Jauna bera dok Bat, berak salbauko gozak gu. Esak bi. Erromako altara bi, gure Jauna bera dok Bat, berak salbauko gozak gu...” Horrela jarraitzen du leloak “Hamabi, hamabi apostoluak...” aipatzeraino eta “Esak hamairu” galdetzean, “Ez dok hamairu!” planto egiten du.


Adapa^(s)/**Abata**^(eus)>**Ptah**^(k) hitzen jatorria*: *Adapa* Eridun Enkiren tenploko *abadea* izan zan, berak ezarri zituan erlijinoko errito aratzak. Itzuli bat dago *ada+pa/ab+ata>abate>abad* zerrendan eta gero, *abade>apaiz* datozenak. “Jainkoa Bat eta bera nahikoa” esan ohi da. **Bata**>**Ptah** dator, ain zuzen. Koptoa eta euskera elkar ulertzen dira. Jainko hau **Ba** arketipoz gizakiagan baitatua dago. Bere aldarrria “*La teología menfita de la Creación*” da. **Ptah** jainkoak hitzaren bidez sortzen du: bihotzean erne eta ahotzez gauzatzen, *bihotz/abotz* aldarrikatzen duela, geroago *Enuma elys* eta *Génesis* liburuetan ikusten dugunez. Sorkuntza honen bidez, **Ptah** *ta tenen*^(k)/*aita denen*^(eusk) izatera dator. Hagaitik dino euskerak: *Batek badaki* “Jainkoak daki” edukinaz. Orain bada, **abata**>**bata** dator eta>**Ptah**^(k) honek beragan batzen dituelako jainko guztiak. Beraz, euskerak zenbakiak aldatu behar izan ditu, halako teologiaren misiolari koptoekaitik: lehengo *hona*, orain *bata* izan beharko eta *dui, bi*. * *Adapa* Sumerren, jainkoen serbitzari *abata* izan zan. Menphisko *abadeak*, jainko serbitzari izatetik, burunahiko egin ziran, hotz, jainkotu egin ziran eta aldaketa hori beti gertatuko da *adapa/abata>abate>abade>apaiz* den artean...

Bat” kantagaia, nahiz handik eta “hamabi apostoluakino” koptoen jainkozko oktoadak aztu eta kristinauen arteko santutegiak eta santuak aipatzen ziren. Hala ere txundigarria¹⁵ da jainko *Abata*>*Bata*>*Ptah*-ren eta haren *abate>apaiz* misiolarien mezua euskaldunengana eltzea eta *Anu>ona/uno* zenbakia guk *Bata>bat* aldatu beharra, zoria edo “jatorrizko pekatua” izatea.

Menphisko *abadea>Ptah* argin eta arotzen maisu izatera eldu zan Deir el-Medina-ko artisauek, urrea lantzen zutenek bedere, heuren Zaindari bezala adoratu zuten. Ñañoak omen ziran bitxigileak eta *Ptah*-en seme, *pateko* deituak, hain zuzen ere gero ijitoek diru lapurrei eman izena eta herrien irudimenak *Patakon* goraldua.

Aita aginteko sorkuntza teologiak haraz gero hitzaren magiari eman zion garrantziaz, Ama Jainkoaren amatasun sinboliko edo fisikoari urrezko koroia ostu zioten, lapurtu heuren bitxitegirako.

15 Txundigarria da Iruina-Beleiako ostrakak faltsotzat ematea, Balentina etxean, aurkituriko jeroglifiko batzuk, Nefertari izendun-eta agertzen direlako, *Egipto>ijito/egiptano>kitxano* hitzak gaurdaino erabilitako izenak ezbailliran.



Bitxiginak tenplorako egiten zuten lan, begiraleen menean. Bitxigintza metalurgiaren sailekoa zan. Metal bikainez landa, kolorezko harri esanguratsuez edertzen zituzten: lapislazuli zerulegia, jaspe orlegia, berbizkundearen sinbolotzat. *Patekos* deitu langileria hau *Ptah* jainko beraren segimeneko nanoak eta bere ardurapeko gendea omen ziran.

Menfisko Sorkuntza Teologiak honela dino: “bihotza asmoen sorgua eta ahoak hala adierazten digu. “[...] “Atum¹⁶ jainkoaren eneada bere azi eta atsetatikoa zan, baina [Ptah] Eneada bere hagin eta espainetatikoa da, aho-espainek ahozkatu izan direnen izenak”.

Bere arte/magia etxegintzara eta taxugintzara zabaldu zan, “beraz jainkoak zur, harri eta bustingi diren taxuetan tokia hartu zuten.” (*ibi.*, 60) eta jainkoak *ka* “taxuetan bizi ziran eta berdin bustingilariak, bustina lantzen zutenak, euren lankideak ziran”¹⁶.

Beraz, *bihotz-abotz* loturak lortzen omen du benetako sorkuntza garbia “*ino, in edo esan, izan*” arabera, odol kutsu gabea, alegia. Esan diezaigula gero Platonek zeintzu diren idea garbiak, ezelako materian edo odoletan zikintzen ez direnak¹⁷. Edo zein den eskontzen ez direnen apaizgo sagaratua, eta gainerakoen apaizgo arrunta.

Haraz gero, *bihotzak* maiz buruarena egin du gure kulturaren eta liturgian, egitiarren sikologiak gure hizkuntzan, “bihotza” *cor*¹⁸, ustez “jakintsua oharketan baztertzen den barne santutegia delako”¹⁸. Eta garaiotaraino sentikaria ulermenaren gaindi jartzten dugu sarritan, ausaz, magia erakargarriagoa egiten zaigulako, bizitza bera baino.

16 *Atum*⁽⁹⁾/*Item*^(k) “berez de *ide*>*idea*”. (*La teología menfita de la Creación*; 55) ANET. 44-5). Cf: Ohar aldeak: “Atum jainkoak bere fisikoaz “azi” eta “as/ats” bidez sortu zuan, Ptah jainkoak, ostera, bere “aho-espainez ahozkatu hitzekin”, naiz eta gero materiak beste artegintzara zabaldu bere izantasuna.

17 Arketipoz *iLu*>*loi* dator eta *Logos*, idea goitarren *lekuko* bezala ezin onartua zan gnostikoentzat: “Jainko- seme gizatua, nola izan zeiteken Jainkoaren *Logos* (Jon 1.1.) eztabaidatzen zan, *Logos* arketipoz *lurkoi* zelako. Hitzaren akatzak.

18 *La Enseñanza de Amenemope*, 5,9, DB 10.

amatu/amakatu>magia: Euskerak bai, argi dezake zer den *magia*, itxurak egin eta tati egitea, politiku askoren antzera. Amaren alaba bat *amatu* denean, ume ederra agertzen da. Norbaitek itxurakeria askoz, zerbait agintzen duenean, *amakatu* egiten du: *amatu/amakatu* elkarren aurka datoz, *muin/muineka* bezala. Horrela, *amakatu>amagar* dator gaztelanian ere, eta *amaka>magia*: engainuzko ondarea, planta asko, gero sonbreirutik *muineko* bat atera eta erakusteko. Hatarako, hizkirimiriak ere erabilten dira, hitz arraroak bailuen magiaren giltza. Amaren erraiak maitasuna dute, ez magiarik, ez hitz trukatuaren gezurrik; amatasuna erdeinatzen duenak egiten ditu *magia* saioak, bai eta gizakiek asmatu jainko berriak (dela Marduk edo Ptah, dela Zeus edo Brama) eskeintzeko, denak gizonetakoak hatan ere, sor-kuntza berria egin asmo zutenek: *amakatu*, *amatu* ezinean...

4.4. Marduk, Ama jainko eraile ankerra

Hitzaren *magia* bizitzatik aldentuz, ames munduan orekatzen da eta bizitzak gogaiarazten duenean, bizia erailten du, gaurdainoko estadistikek erakusten digutenez. Hitzaren *magia* Menphis-ko apaizen amarrua izan zan. Amarrua honetan zan: jainko amatasuna lurkoi eta usteltzat ezetzi eta baztertzean eta, Babilonian Esharrako apaizak aitortzen duten bezala, Ama bera gaiztotzat salatu eta erailtera bultzatu zuteneko ausardian¹⁹. Zer dela-ta? Jainkoei haseratik egotsi zitzaizen ogena: Eak erail bai-zuan Su.aP asaba²⁰. Ogena garbitzearen, Kingu erail eta haren odolaz gizaki berria sortu, jainkoen menpeko serbitzari, jainkoek askatuz²¹.

*Martu>Marduku*²⁰ dator, entzute zaharreko akadiar kasta aukeratu zuten apaizek, Babilongo herriari jainko berria aurkestean. Gurasotzat Ea aita eta Dankina ama jartzen dizkiote eta jainkotza-

19 Babiloniako *Enuma elish* liburu egile apaizek heurak dinoe Marduken amarrua izan zela. (*Enuma elish*, IV, 91)


20 *Ibiden*, I, 45-69

21 *Ibidem*, VI, 5-38) Gizakiek jasaten dute jainkoen errua. Hor dager *jatorrizko pekatuaren* aipamen bat eta apaiz idazkarien amarrua.

20 *Martu maurtu>mortuko* etorkina zan, Sumerren "eskondua" *maritu*⁽¹⁾-*maritxua*<Mari ama jainko ezagunaren familiako egina, baratzain ona izan omen zan, *Marti>Martxo* ilak eta ekoizpen goiztarrak duen famaz eta *Martiniko*



Halako temploak dakar halako jainkoa: **Marduk** Apaiz idazlarien kalkulua izan zan, beste toki askotan bezala, *abade*> *apaizen* kasta jainkoen babesean edo aitzakian euren boterea eta erreinua bultzatu zutelako. Erreinu horren aurka Jesus, Nazaretoko igarlea bakarrik ausartu zan.



rako, berriz, armetan ezeze, magiazko trikimailuetan eskolatzen dute: “Bai, Marduk, zeu zara benetan gure apentzaile! Mundu guztiko nausigoa eman dizugu. Batzarrean jar zaitezanean, zure hitza gailen izango da. [...] Soineko bat jarri zuten aurrean. [...] Erabagi ezak [esan zioten] egin edo desegin, eta heure esanera gertatuko duk. Ideki ahoa eta soinekoa desagertu egingo da; esan berriro eta soinekoa garbi agertuko. Esan eta egin. Ahoa idekiala, soinekoa ahienatu egin zan. Berriz ere bere esanera, soinekoa agertu zan. [...] Bere guraso jainkoek haren hitzaren eragina ikusi zutenean, poztu eta ohore egin zioten: “Marduk errege da!” Errege makila, jarlekua eta palua eman zizkieten eta etsai guztiak urtikatzen dituen ezinbesteko arma: “Hoa eta akabatu ezak Tiamat hori”²²! [oldartu zuten burrukara].

Tiamat<*Tia Ma.at* bera zan, berez *ama+aita* konposagaiez osatu izena, *amari* lehentasuna kentzearren, aurrizki ere *aita*>-*tia* ezarri ziotela aurrizki. Askok sinezten dute gizakia Jainkoaren sorkaria dena, gutxik ostera, halako “jainkoa” gizakiak sortua denik eta halatan liburuetan kontatua. Nortzu izan direla horren sortzaile? Temploko apaiz idazleak izan dute hatarako sena, bai Menphisen eta bai Babilonian. Kristinauen eleizan ere orain eztabaidatzen hasia da, ea nor den Ebangelioko Jesus eta bere apaizgo arrunta eta orokorra izkutatu duen eskua, Elizan klerikalismoa eta apaiz sagaratuen boterea horren bestean bultzatzeraino...

4.5. Magiaren apaizgoa

Herriaren ustetan ama zan sortzaile, baina amaren esaneko ez diren semeek magiazko berbak asmatu zituzten ama eskolaren aurka eta magiazko sorkuntza aldarrikatu, amatasuna, biologia kutsatu eta hilkortzat salatuz. Magiazko artea aldarrikatu zuten eta sorkuntza garbi lez aurkeztu. Honen apaizak jainkoekiko harreman zuzena dute, heuren ustez, erritozko santutasunaren jabe dira eta heuren esku sagaratuak bakarrik egin diezaiekete jainkoei opariak.

Apaizen talde, lobby berezia da, eta temploko erakundearen serbitzari dira, teologian ikasketa bereziak egiten dituzte, dogmatan dute begia eta erregearen aholkulari izatera eltzen dira. Euren erritoetan urrezko ontziak, esku sagaratuak bakarrik ukitu ditzaketanak, erabilten dituzte, jantzi zabal eta koloretsuak jantzen dituzte herriaren aurrean, ondo ezagutu eta bereziak ager daitezen eta harrigarriena! euren hitzera bakarrik jasoko da misterio handia aldarean edo pekatuen barkamena aitortegian.

Herria umetzaroan zela, apaizen arteko batzuk, batez ere, baserriko apaltasunean eta herri maitasunez, emendio ona ere egin diote herriari, herri kultura bultzatuz, hotz, fedea inkulturatuz. Honetan, adibidez, euskarak, asko sor die gure abade-apaizei.

Dagoneko, ostera, herria hein batean eskolatu denez gero, eta burunahiko sentitzen delarik, ez du hainbeste bitartekotasun beharrik apaizen aldetik, ez eta Jainkoarekiko harremanetan. Bidea egina dago, geu gara bidelari. Egoki zan komunikabideetan aurreratu duguna "lurrean bezala zeruan ere" amestea. Zuzenbidea ere irekia dago eta demokrazia deritso, herritarak, gizonezko edo emakumezko denak, berdintzen dituen, nor bakoitzari boto bat eskeintzen diona eta jada, ez dago Euskalerrian emakumezkoek parte hartu ez ditzaketan txokorik, ez sakristiarik... Ez legoke egon behar. Eztabaida ez datza, emakumea apaiz bai edo ez, hein batean, bateatu guztiok "erreinuko abade/apaiz" garenez gero, ezelako bereizketarik gabe. (Gal 3, 28) *Berezi*>fares dator hebraieraz, eta herri arruntetik goragoko mailara igon nahia ez da Ebangelioko deia, ez asmoa. Hori *fariseoen* irrika da. Euskera hain argia ez balitz, ez legoken *fariseo* forma "itxura zalea" aldatu beha-



Fariseuek begitan dute Jesus "Zuen maisuak zer dela-ta jaten du zergalari eta bekatariekin? [...]" "Ez dira osasundunak meriku beharra dutenak, gaisoak baizik. [...] Ikas zazue, beraz, harako: "Errukia nahi dut eta ez odol oparirik. Bekatariei dei egitera etorri bai-naiz eta ez santuei." (Mat 9:10-13)

rik izango²³. "Arpegi biko" ere ba-deritse halakoei. Historian zehar, arazoa zenbat eta goizago ohartu, argiago gelditzen da geroko gizaldien ondarea eta Baradisuko erratuen subea²⁴. Nazareteko igarlea beti jarkitu zitzaien halakoei eta euren ustelkeria salatzen zuan²⁵.

Magiazko apaizgoa erromatar enperioak kristinauen elizan sarturiko ziria da. Itxura eta eragina eskeintzen zion, baina barrua usteltzen, bardinen arteko familia zatitzen, aberatzak eta pobreak banantzen, arrak eta emeak bereizten, ikasiak eta ezikasiak aipatzen...

Hitzaren magian oinarritzen den apaizgoa, "klerikalismoa bezala, eleizaren gaitza da" (Frantzisko aita santuak) eta bazkuna egina duen erakunde gaitzo horrek ondamendira daroa eleiza. Gaitzotik datorrena gaitzoa da. Elizako giltzak, Ebangelio bera bezala, herriarentzat da eta herriari itzuli behar zaizkio. Eleiz gidariak azken ahalegin handia egin behar dute Ebangelioaren izenean. Jadanik bidean da...

23 Bereizketa horrek eliztarrak *eleiz gizon* eta *herri gizon* "clérigo eta secular" banandu ditu, eskola, ardura, boterea, eukiak, janzkera eta bizibideak aitzaki, batez ere K.G. III gizaldiraz gero. Baina hasierako eleizan dena zan denen asmoa eta eginkizuna, emakume edo gizezgorik berezi gabe.

24. Demokraziaz ere ez dagoz denak konforme: Boto bana denontzat? Aberatzak botoak erosiko ditu orduan, boteretsuak maipetik eskua sartuko. Ustelkeria salatuko begiraleak, sagar zindoak ere usteldu egiten bai-dira...

25 "Sorta astun eta egarigaitzak, jartzen dituzte besteen sorbaldeetan, baina eurak eriakin ere ez dituzte ikutzen". (Mat 23,4) "Zoritxarreko zuek lege irasleak!, jakituriaren giltza ostu duzuelako; ez zarete zuzenbidean sartu eta sartzear zirenei eragotzi egiten dizkiezuelako". (Luk 11:52)

4.6. Apaizgo arrunta denontzat

“Jada ez dago ez judu edo grekorik, ez etxeko edo petxakorik, ez gizezko edo emakumerik, denok zaretelako Kristo Jesusengan bat” aldarrikatu zuan” (Gal. 3:28) apostoluak eta hala izan zan, Erromako Enperioak kristinauak berekotu zitueno eta, ezta-lakoan, enperioko sakristauak kristinauen elizan sartu zitueno. Hoiiek ziran mitologiatik hona: *adapa/abata* > *abade* > *apaiz* enda sagaratu ezagunak eta Jesusen denporan kristonak entzunak, baina gauzea enperioko xedera, halamoduz kudeatu eta zenbait arazotan ekinak izan direlako, gaurdaino eleizan iraun dutenak.

Heuren akatzetan bat emakumeei katea jartzea izan da, elizako arazoetan sar ez daitezana, eta jarraian, eliztarrak bitan banandu zituzten: elizgizonak eta herrigizonak²⁶. Emakumea, ostera, bere duintasunaren kontzientzia hartzen doa eta eleizaren lehen hiru gizaldietan egin lana oroitzen eta Nazaretako Profetak heurrekanako zuen abegia baloratzen. Beraz, elizari ere, magia gutxiago eta fede gehiago eskatu behar zaio: ez da zertan olio sagaratuaz inor sagaratu, denak bai gara bataioan sagaratuak²⁷. Gainerakoa magiaren itxurakeria da moduetan eta grekar eta erromatar filosofia eta politika mainatan: jerarkia dena, gotzain edo apaiz, Ebangeliotik ate, enperioko jainkoen ordezkari bihur zitezen lurrean, herrien askatasuna eta baztertuen lehentasuna ekidinez.

Sakerren lana ere desagertu egiten da aldaretik, haren hitza ez delako ezertarako, zerutiko dohaia baino²⁸. Auzia ez da “emakumea apaiz bai edo ez” untzean, hori baino sakonagoa da, bateatu guztiek elizan arazo denetarako eskua dutela aitortzea da, txikie-

26 “Herrigizon, eleizgizon” formak ez dira egokienak “klerigoak eta laikoak” adierazteko. Historikoagoa litzaken “klerigoak eta kristauak” esatea, bada “kristaurik ere ez zan agertzen” formak erabiliak izan dira.

27 “Todos los miembros de la comunidad, fieles al testimonio de Jesús y dispuestos a entregar la vida en la lucha final de la historia, se vuelven sacerdotes de este gran “sacrificio” que es el amor que se mantiene firme en medio de la persecución” (X. Pikaza; *La novedad de Jesús: todos somos sacerdotes*, p. 108).

28 “Kristo bera, etorkizuneko ondasunen abade nagusia, artean dugula, tenplo eta santutegi zabalago eta duinago, giza eskuz, edo geuk eregineko barik, eta ez akerreren edo zekorren odolaz, bere odolaz baizik, sartu zan behin betiko Santutegian, gure betiko eroskundera lortuz. (Eber. 9:11-12)



“Bilatu egizue Jainko erreina eta gainerako guztia gehigarri izango duzue”. “Zuen artean ez inori eman aita izenik, zeruko zuen aitari izan ezik...zuek nebarrebak zarete elkar artean”. Zuen artean nausia izan nahi duena izan daitela denon serbitzari.” Holakoxeak dira Jesusen irakatzia...

netik hasita, hatan ere, kristinau guztien duintasun, ezagutu eta erabagi ahal dadin, denok ere izadiko, amaren baratzeko emaitz bezala, uretik eta lurretik eginak garenez gero, ur ardo bihurtu-nekotik, esateko (Jon, 2), bateoko uretik berbizi izan ginanean.

Haraz gero, urak eta izadiko beste aipatu elementuak osatzen dute gure katekesia ere, Joanen arabera: Jesusek emakumeari edateko *aN>uin* “ura” eskatzen dionean, eta ordetan, Jesusek egarria betiko kentzen duen ura eskeintzean (Jn. 4. 5-29); jaiotzez *uTu>itxu* zenari *iduzkiaren* argia ikusteko dohaia eman zionean (Jn. 9); Jainkoak *eRra>erran* hitza=*errana*=berba Jesus bera dela adieraztean (Jn 1:18) eta azkenik, gure *iLu>hilkoratasuna* lurpetik hara berbizteko agintzarian. (Jon, 11)

Gizartean bazkune guztiak dituzte euren gidariak, sortzaileak eta eroeak, denak ohoratzen heuren iraultzaileak. Amaren etxeari ere iraultzailerik argien eta nabarienak aukeratzea dagokio.

Apostoluen garaian, Magdalako Maria izan zan Jesusen jarraitzaile sutsuena, gizonezko besteak bildurrez alde egitean, kurutzeraino lagun egin ziona, haren bizkundearen berri neba-anaiei eman ziena eta zakabanaturiko jarraileak berriro batu zituena. Magdalako Mariari apostolu tituloa kendu eta haren Ebangelioko gehigarriak utsal emanez, badaezpadako, “zazpi deabrutik osatu” (Luk. 8, 2) emakume damutu arrunta zelakoaz, baztertu zutenek ez dute eleiz gidari izateko duintasunik. Jaioko dira obeak. Bidegabekeria hori aitortu eta emendatzeko ezkatzen diegu eleizako deitu gurasoei.

V. AMAREN ETXEA ETNOGRAFIAN

Ekoetnografia ere deitzen zaio etxe eta barne, une biok, batzeari, *une* eta *gune* elkartzean bezala. Uneak tokia eta haren giroa aipatzen ditu eta, *guneak*, tokia etxekotuz, lurrak berez edo landuz ematen duena. “Amaren etxea” lur landua da, aldamenean du baratza, bada, lureko frutuak gozagarritzen dute egunero amak prestatzen duen gozaria, janaria eta afaria. Eskerrak baratzehorri aldi bateko gizaki, etorkin, alderraiak “bertan gozo” eginik, ipuinetako ardi zentzundunak bezala, planto egin eta bertan, amaren etxean, finkatu ziran. Baratzean ereindako aziak eta amak landaturiko barazkiak bi eta hiru ilabeteko denbora eskatzen bai-zuten frutuari begira. Ba, “bertan gozo” egin eta, itxaron egin behar zitzairen. Orduan sortu zan Sumerren Dumuzi unaiak “Inanna, ene jainkoaren etxea” aitortzea ere, *Sagarra* deitu *Maite Kantikan* edo hako Egipton Atorrek (Ikus or, 23) bezala, bere semeak beragana atoratzea.

Gure etnografoen irasle eta maisu Joxemiel Barandiaren eskuetik amaren etxean sartu eta atartetik eskaratzera, bizien etxetik eta fededunen elizara jarraituko diogu, milaka urtetan ehundu den kondaira eta historia sakonago ikusi ahal izateko.

5.1. Amaren etxea, jaiotetxe

“Fraile nombradu” ninduenetik eta hara, hamabi urte igaro ziran jaiotetxetik ate. Egunez ezinean, maiz gaueko ametsetan egiten nuan ezinezko igesa, amesa gertatu beharreko ordu beratan urratzen zelako. Ama bizi ez zelarik ere, etxeak berak eta nebarrebek haraz gero, amaren akordua. Tokiak, tankerak eta “etxe” izenak berak gure izaeraren gordailu: *etxe>esse>iza* arabera eta *etxariak* halaber, *>eseri>essere>ser* nortasuna¹, leku hain ezaguneko seme eta erabat munduko adizkide egiten ninduelako.

1 Ez da ondo ulertzen *eseri>essere>ser* datorkenik, Isis Amaren *jarleku/ eserleku* koroia eta gure amaren etxeko eta elizako *jarlekua* kontuan hartu ezik. Kristo, zeruko aintzan goratua izanez gero, duintasun berrian irauna bermatzen, “*eserita dago*” (Rom.8:34) aitortzen bai-dugu, ohorea eta irauna ezeze, *izantasan* berria adierazten dugula.



Umeek baratzeko marrubien txokora eltzen direno konturatu dira ohargabeen ortuko belarki-zainduren emaitza miragarriez. Orduan amaren errekaok egiteko ere ba-dira eta etxeko baratzean urak, eguzkiak, aireak eta lurak elkarkide daramaten jokuaz konturatzen dira. Baina amaren etxeaz landa, nork erakutsiko die jakinduria?

Amareneko baratzak berak ere etxeko eskaratzaz eta kuman, hotz, *etxeko askan* >*seaskan*² dagoen umearekin zubi egiten duelako. Halaber, amaren etxe inguruan diren gauza guztiak euskararekin lotura egiten dute, amaren etxea euskeraren biotokia delako, eta hagatik *ama-euskera* deritsogu geure hizkuntzari³ eta halakoxea da bere jakinduriak: “ume bako etxia, lore bako lorontzia” edo beste hau, “umeak eta etxea, esperantza betea”⁴.

Ez dogu esaten euskera etxean egiteko hizkuntza denik, eta nahiz herriz txiki agerten garenez mapan, iragarrita dago “euskarra, jalgi hadi plazara”, argia ez delako imilaun pean gordetzekoa. Amaren etxeko senari sor diogu euskera bera eta azkenaldian, “ibarrera, ibarrera” baserritik kalera egin duen saltoa. Behin kaleraz gero, muga gabe, plaza egina du eta arketipoez jabetzea.

Baserrian jaio denak baserriko barzetzetik jan eta nerabe egiten da eta, nahiz kaleratu, baserritik jaten ekin beharko dio, nola baiteko ekoetnografian hazi, jantzi eta iraun gura badu. Tokiaz aldatu gaitzke, baina ekoetnografia aberatzak nonahi seinalatzen.

2 *Ume*>*kume*>*kuma* dator, umearen materia edo ontzia azpimarratu nahi denean. *Ume* formak arketipo goitarra dino, *kume* “abereen edo txorien umeak”, be (lurreko) arketipoa. (Ikus or. 66)

3 Nola da? *Eskera, euskera, ala uskara?* Bata besteen ume ematen dute hitzok. *Esi*>*ese*>*etxe*+*-ko*+*era* bada, *eskera* da. Gure ahozkeran esurrea punpatzen eta indartzen dugu eta hatarako *eus-* diptongatzen.

4 G. GARATE, *Atsotitzak*, o. c.

5.2. Amaren etxea, eskola

Esi>*etxia* egiteko, arbaztez eratu eta asmatua izan zenez, berez dagokio etxeari etxeokak eztea, *esi*>*ezi* hizkune datorren loturaz. Etxeak geroago asmatu zuan *eskola* izena, munduan kultura guztiak berea egin dutena. Etxea menditarra eta bezatu abereen lorioa zenean, *ola*⁵ deitzen zan. Giza bizitokiak bere baitan sua sartuaz batera, lortu zuan duintasun maila eta jainkoen omenerako bere eskuz asmatu egoitza erritozko *txit santu* arketipoaz silatu nabaritu zuan, etxe-izen eta abizenetan.

Ibarraldeko etxeak harriz ormatuak eraiki ziran, harriak eta arriluak tximiniari erantzun ziezaioken eta mendiko olan antolatzen zen abeltzaingoa eskurago eukitearren, etxe aldamenean *etxeko ola*>*eskola* eraiki zan. Gero esango dute guk grekoengandik hartu gendula *eskola*, edo erromatarrengandik. Ez. Guretzako ganadu txarrak izan ziran euren garaian. Guk amaren etxeaz *eskolatu* behar izan ditugu batzuk eta besteak, “azi eta ezi”, alegia, eta indarrean eurak baino gutxiago izanik⁶, euren menpetik jaregiteko, “asmoz eta jakitez, txikiak andia bentzuten” arabera. Eta horrela ekingo diogu “umeen zentzuna, etxean entzuna” esaten, aurrera jarraitu nahi badugu.

Etxean ama izan da etxak eskolatzen lehena eta zer esanik ez auzoekiko harremanetan. “Etxekoandreak kultura ekintza batzuetan parte hartzen du [...] etxeko denak euren arbasoekin elkartasunean bizi izateko duten beharraz eskolatu, gurasoei dedu izaten eta auzoekiko harremanak zaintzen”⁷.

Beste autore batzuk ere ama eskolaren ustekide dira: “Umeak etxean ikasten dute bizi guztiko moldea emango dioten baloreak. Etxetik at ere ikas ditzake baliabide asko, baina etxeko adin samurretik hara jakingo du besteak errespetatzen, elkartasuna bilatu eta norbere burua estimatzen”. (Campbell, *Cuando dios era mujer*)

5 *Ola Ilu* “*loi; lur*” arketipoaren ereduak da. *Lur* jainkoak orekatzen du, eta *Ilu*>*lo* datorrenez, (ohar negute *lotaldia*) han dauka Iluk bere lorioa.

6 Batez ere gure herria, Ama jainkoaren eskolako izanik, armañ zaildu gabeko gende baketsua izanik, jainko armatuen xedeaz gu zapaltzera etorri zirelako, matxismoak gaurdaino duen lerdeaz gu pozoitu eta zuntzitzera.

7 J.M^a. BARANDIARAN, *Mitología vasca*, Ed. Txertoa (1979), or. 70



Ama ta lau seme-alaba, alabak, amaren sokune berberaz txikienaren adikunea ernarazten du. Lau ikasle dira eta elkarren lau irakasle, ama maesa dela; etxea, eskola. Etxea, baratza, eskaratza elkarren gertu ba dagoz, ekologia bera izango da ikasleen ohargabe-an arketipoak eta haren sinboloak argitu ditzakeena...

Zer esanik ez amaren etxea defendatzen duena ama eskolaren alde dagoena. Baserrian hain argia zen ama eskola, kalean ere boterea hartzen ari da. Baserriak, ekologia eta etnoekologia bera zelako, hobeto bereizten zituan amaren eta aitaren egitekoak, kaleko industriak, ostera, ekologiari gainartzen zion unean, amaren eskua laburtu egin zan eta dirubide berriak zekarren arrokaria nabaritu. Gaur demokraziak eta emakundeak bere punturagi-no giltza egingo dio gizonezkoen nausikeriari⁸.

5.3. Amaren etxea, temploa

Gure asaben tenploa ganadua ekuritzen zen garaia izan zan, asieran abereak jainkoen eskuko baiziran. Udako beroan ganadua non *ekuri*, han zan *ekuria*⁹, han *guritzen* ziran, han *gorde-tzen*¹⁰ eta han antolatu lenengo *kortak*. Gero baserri etxe bakoi-tzak izan du bere abereentzako korta egokitua eta *etxe* markaz o-

8 F. ZUBIAGA, *Ama eskolako hizkuntza orokorra*, or 99-110.

9 *Ekur* izen hau >koro dator, "mendi koroa" adierazten eta gure eleizetan ere, kantarien *korua* eta dantzarien *korrua* egiten duena. Izen honek Sumér garaietan agertzen da "mendi tenplo" edo "etxe goratua">*zikuratua* adierazten. Forma berak *kur>kura>kurri>kurtu/agur>agure>guru>gurtu, gora, gori>gorri*, etab. berekotuz itzulbira eman dio munduari, toki-zenek direla lekuko. *Ekurrera kurritzen>currere^(u)>correr* zan erromerian eta bertan eraiki ziran lehen ermitak, hango *agure>guruaren* estalpetzat.

10 Ordutiko eredu azmatuak dira "San Antoniñok *gordeta*" goralpenak, *ekur>korde>gorde>gordo>en-gorde^(gaz)* formak ere ordutikoak direlako.



Izadia bera da tenploa: zeru anil edo anubipean, bera da ganga, bera alderik aldeko arku bakarra, alderdi bien arteko zubia egiten duena. Beean dagoena gora begira jartzen du, eskuak zabalik, goikoari dei egiteragino...

horatuko abereak: *txakur, txahal, txekor, txarri, txertu*>*cerdo*, adibidez, eta baratzeko *espezie*-emaitzetan: *txarba, txermen, txerpol*, etab., *es-* labelaz janzten dira: *esparrago, eskarola, espinaka*, etab.

Halabaina, amaren etxea tenplotzat hartzeko arrazoia ez datza etxeak barazki edo ganaduarekiko hartu zuen arduran, ez eta amaren seme-alaben heziketan. Etxea jainko sua barruan hartzeko gai izan zenean, orduan lortu zuan santutasun seinua, etxean sua sartu ahal izatea, *uTu>su* jainkoa onartzea bezala izan bai-zan. Neguan etxeari ematen dion bizigarria ohartzeko da. (Ikus or. 66) Etxean ur iturria¹¹ sartu izan bazan lehenago, ohore berdina izan zezaken, jainkozko lehen arketipo biok direlako hizkuntzari bultzada gehiena eman diotenak. Joxemiel Barandiaranek sutondoa “Andre Mari” geinuak zaindua aipatzen du¹² bertan. Etxeko sua gainera, etxeko zenduen gauean argi egiteko baliagarria zen, “galtzu baten zuzia behenipehin”¹⁴.


Joxemiel Barandiaranek beste susmo batzuetatik antzematen dio amaren etxea tenploa dela esateko¹². Lenengo, etxea, eliza bezala, zenduei lur emateko oituran, iluntzean etxeari eta elizari hiru bira emateak lekarken kaltea aldarrikatzean. Zergaitik? Hildakoek etxeagana duten apeguaz, zenduekin topa egin zezaketen eta euren arteko delakotzat eraman. Zapatu edo Larunbateko¹⁵ ospakizunak ere, etxe

11 Energia berrigarriok “jainko” izena hartzen zuten Sumerren. Euren legeak ezin aztertu auzietan *ibai* jainkoa hartzen zuten epailari eta oraindino Erdi Haroko herri kristautuan *sua* izaten da ordele. Hagaitik dira hizkuntzaren lehen arketipoak ere *AN>uin* eta *Utu>su*.

12 J.M^a. BARANDIARAN, *Mitologia vasca*, o.c., or. 58.

14 *Ibidem*, or. 59.

15 Pertsu edo tupina sutan berotzeko *laratza* (ikus or. 19) tximimian erantzi burdinezko kakoa zan, sutondoko nortasun berezia, *Larunbata asabatza>Sabata*. *Asabak* “antepasado” *asabatuak>sabatuak* ziran. Erri->



Jarlekua <jarri<jesarri/ezarri lekua, alegia, hilaren gorpua egortzen zen tokia, lenengo amaren etxean, gero eleiza barruan, geroago eleiza inguru edo kanposantuan. Jarlekuan egiten ziran hilaren aldeko otoitz bereziak, argizarien eskeintza, ogi *toina*>*duina* deituaren oparia eta dirua. Igaran gizaldiaren erdigunera arte ondo ezagunak genituen erritualok. Han elkartzen ziran etxeko ohiturak eta kristau siniskerak erabagi elizkisuak (J. M^a Barandiaran, ibid, or. 60) Argazkian Amezketa-ko oroitza eta museoa. Etxe bakoitzak Jarleku eskubidea zeukan. Nahiz *etxa anderea*>*santera* den, auzo bakoitzak serora ordezkaria izaten zuan

barruan *ekur*>*egortzi* eta lur *zapatu*>*Zapatu*>*Sabat*⁽ⁿ⁾ erritoak zain-tzen ziran, amaren etxeak bizien eta hilen ardura bai-zeukan.

Bestalde tenploei bezala, amaren etxeari igesbideko *asilo* eskubidea (Ikus or. 66) eman izan zaio, Bizkaiko Legeak ere onartzen duenez, eta aipatu autoreak jarlekuaz landa, gogarazten digunez.

Teologiak berriak argibide hobeak izango lituzke amaren etxeari tenplo izena eta ohorea emateko, Jainko seme-alaben sorlekua dela koa, adibidez, edo kristauen baloreak ohartuz, eskonduen kabia, giza maitasunaren gunea, gizarte bizitzaren lehen maila, etab.

5.4. Amaren etxea, asaben jarlekua

Emakumea senarraren etxera eskontzen denean, etxeko sukaldeaz bezala, etxeak elizan duen jarlekuaren ardura hartzen du, urrengo igandean. Horrela etxekotzen da, hotz, etxe berriaz jabetzen, etxeko bizi eta hilen ardura hartzen duenean¹⁷.

Jarlekua kristinauentzat denez, bateatu gabe hiltzen diren aurrak itozurean edo etxeko baratzean ehorzten ziran. Etxeko *senduak saildu* ziran beste gabe eta *beatuak beatu/o*, euskara amaren hizkuneak dinonez. Inori sinistekotan, euskara amari behenipehin.

Latinak edo erromanikoeak ba dakite zer esan nahi duen *bea-*

>tual hoiek banantzen du gehien bat karistiar eta badular gendeen arketi-poak, euskararen bereizketak ere hor ikusten bai-dira argien.

17 J.M^a BARANDIARAN, *Mitologia vasca*, o.c. or. 61, nota.



Ama, alaba, iloba (kuman): amaren etxea kate iraunkorra eta lokarri egina da, eskerrak auzokide ezberdinen buztarriaz: euskerak, eskolak, jakintzak “umeak sukaldia saniatzen du”, ekonomiak, oroitzak, otoi-tzak, beharrezko giroa eta nortasun eraginkorrak ditu: izenak, abizenak, historiaren lorratzak, arkeologia, etnografia: lehena, oraina eta geroa...

tus, beato, baina ez dakite *beetu* euskeraz “abajar” esan nahi duena. Era berdinean latinak eta romanikoeak ba dakite *sanctus, santo* zer esan nahi duen, baina ez dakite *zendu/zaindu*¹⁸ “hila, santu” denik. Ez da harritzeko etxeak hainbete santurekin, jarleku oinarria eta tenplo fama izatea, naiz gero elizak bere aldaretako ereduak dizdira aldarrikatu eta auzoetako ermitez bultzatu.

Elizaren alde esan behar da, dakigunez, ez zuela amaren etxeko fedea ukatu edo kondenatu, beste fede batekin trukatu, bateratu, elkartu baino. Lan horri deitzen zaio “inkulturatzea”, hotz, fede berria herriko kulturaren baratzearan erein eta sustartu, bada “ez naiz lege zaharra ukatzera etorri, osatzera baizik” (Mt. 5, 17) esana dagoenez. Guri herri jakinduria “hilek itzi ondasuna, ez beza inork erdaina” jarraitzea dagokigu.

18 Hizkuntza gizakiek euren Jainkoarekin hitz egiteko era da, beste ezerk baino sinisgarritasun gehiago du. “Filologia eta mitografia gonbaratuak geure historia erakusten digute” [...] “Platonek eta Aristotelek barbaroak ikusten zituzten tokian guk anaiak ikusten ditugu”. (MICHEL MESLIN, Müller F. Max. (1823-1900), D.R. o.c. 1261-1263) Autore honek, hizkuntzen analisia kimiaren ondarretaraino helduko dela dinonean, R.M^a Azkue garaikideak zera jardesten dio: “beste hizkuntzakin izango da hori, ez euskararekin” (*Diccionario Vasco-Español-Francés, Prólogo, XVI*) Ez, noski, euskera bakarrarekin, ene maisu, euskera gonbaratuarekin baino.



Gernikako Arbolenaren inguru, Herriko Batzarrak erabagiten zuena eta gizaldi gizaldi herriak barneratzen zuena eta, Bizkaiko Forua liburura jaso orduko, herri hautatuak buruz zekitena. oraingo bisitari eta turistei Euskal Herriko historia bizi-bizian aditzen ematea, munduan ba garela esatea ardurazko lana da. Aldi bateko greziar misoginiak baino pedagogia hoberik egiteko aukera dugu gaurko *Orube>Europa* honetan, baita ere gure igarleak kantuz aldarrikatu zuen mezua “eman da zabal zazu munduan frutua”.

5.5. Amaren etxea eskubide gunea

Amaren etxean jaiolari *etxa*¹⁹ deitu zaio, eta *txo* forma bezala, *txe*, *txeia* erabili dira, lagun urkoaria deitzeko. Ohorezko dei hau ez da izan euskaldunena bakarrik. Zeren ohorez, galde genezake. Ama etxeko seme-alabek asmoz eta jakitez jaso izan duen ohorea, hatan ere, nork bere duitasunaren estimuagaitik. Toki aratzean, eskaratzean, mitoak azaltzen duenez, jainko urak eta jainko suak atanda egin zutelako.

Amaren etxean jaiok ez zuten gero izan, erregeari petxarik ordaindu beharrik, berezko duintasunaren jabe zirelako eta jainkoen onezpena izan zutenek ez zutelako behar beste babesik. Hagaitik aldi batean Gaztelako erresuman *etxak* eta *petxak* bereizten ziran: *etxak* ez zuten zerga ordaindu beharrik, *petxak* ostera *be>pe* mailakoak *pecheros*²⁰ zirenez gero, errege edo kuntiarri *petxa* ordaindu behar izaten zioten, baina ez euskara zalatariaren erruz, jauntxuen arrokeriagaitik baino²¹.

19 Iberia aldean, Balentzian bertan, *che* erabiltzen da balore berdinean eta, zer esanik ez, Argentina, Uruguay eta beste toki batzuetan.

20 *Pechar* se entiende como pagar impuestos, y existen algunos impuestos con el nombre de *pechos* o *pechas* en Navarra y Aragón. Puede considerársele en su uso extendido como sinónimo de “plebeyo”; y más impropia, con la condición de “contribuyente”, que es la propia del Estado contemporáneo.

21 Herriko *Foru<borogatua*k ez ziran izan jantxuen gustokoak, baina gurean herrien jatorrizko askatasun hori zaintzeak zaindu gaitu.

Eskubideetan dager *fogera*²² deitu nortasuna ere eta *sua* zan duintasun horren ezaugarri. Etxe *zuloa* hagaitik zan *asilo*²³ esku-bideko tokia. Aipatu dugun etxeko zenduen jarlekua eta harekiko erritoak ere amaren etxeak gaurdaino jagon ditu eleizaren aurrean, ikusi dugunez, "herrik bere lege, etxek bere astura" denez.

Duintasun eta eskubide legeak ere *etxe>es>ez* seinuez, amaren etxeko santutasunez labeldu agertu eta ugaldtu ziran orduan, hala nola *Eneko>Etxanike>Inigez* azaldu zan, *Pero<Txapero>-Perez, Martin>Txamartin>Martinez, Txakorta>Kortaza>Cortez, Txabela>Belaza>Velez, Bardo>Bardetxe>Bartez*, etab.

Suak, sakratua delako, sukaldea santutzen badu, *zugaitzak* ere *<su>gai* den aldetik, izan du gure artean duintasun geriza, etxe bakoitzak, eta herri bakoitzak berea izateraino: artea, aretxa, in-txaurra, etab., pinuaren arrakastak, ames joanak aztuazi dizkiguno²⁴.

5.6. Amaren etxean, etxandera>santera.

Amaren etxea eskola bada, nor da maesa, ama izan ezik? Amaren etxea tenploa bada, nor abadesa, ama izan ezik? Amaren etxea asaben jarlekua bada, nor haien ordele etxean eseritzen dena, ama izan ezik? Orobat, amaren etxea santutegi bada, nor da santera, etxeko anderea izan ezik? Euskerak urten behar zigun etnografiak jada "ministra, sacerdotisa"²⁵ bezala aipatua zuena, gauza bermatuago geldi zedin: *etxa anderea>txandrea>Sandra* datorren bezela, *etxanderea>santera* dator hizkuntza guztietan.


Gizonezkoek elizaren eta erlijinoaren kontu nagusiak euren buru-entzat gorde bazituzten ere, antzina emakumeek ardura garrantzitsuak eduki zituzten etxetik ate ere. Besteak beste, elizen eta ermiten zaintza eta errito batzuk egiteko ahalmena. Hala ere, gehiegikeria

22 *Fogar<fos^(o)+gar<be+su+gar. Fos<besu/goi+su* "uduski saindu", *Utu>su* familia goitarra bekoarekin bereizten eta erabat elkartzen bai-zetorren, mito garaiko teologian.

23 *Sulo>asilo* dator, *Utu otsi>ostu+ola*. Ustez, uduskiak *ostatua* hartzen zuan mendi *ostean*, gaua igaroteko. *Asilo* eskubidea, (BARANDIARAN, o.c., or. 66)

24 F. ZUBIAGA, *Zuzentza eta eskubidea euskararen oroitzan*, or. 43-44)

25 J.M. BARANDIARAN, *Mitologia Vasca*, o.c., or. 70.



Amaren etxeko **jarlekua** eleizan, aldaretxo baten antzera, kandela biren artean, argizaiol xumea alboan duela eta Otxandioko aztia lekuko. Otoitza ama baten gogo-etzpanetan da. Hemen ez dago bera baino beste ordezkariarik gizakiaren eta Jainkoaren, hareago, Ama Jainkoaren artean, hemen benetakoa apaiza ama da. Honetan da auzia: “zeuk eman eta zeuk kendu zenidana..., bai, sinisten dut” eta fedearen argia, argia fedearen sinboloa bai-da, hilari lagun diezaion. Gure Bittor Kapanagak zera zinoan: “argizaiolaren argia, haize kontra ba dago ere, ez da amatatzen”. Ba al dago argiaren aurkako den haize ufadarik?

zelakoan, XVIII mendearen akabuan debekatu egin zituzten *serora* “arriba” edo *freira* deitu emakumen ekintza. (*w. Deustuko ermitak*) “Akabuen” dino, baina aldien buruan, azkena hasieraz lotzen da eta jada hasia da emakumen berboteretzea, ez lehengo eratara, jakina...

Hala eta guzti, ikustekoa da baserriko emakumeek gaurdaino euren botelatroekin pazko ur bedeinkatua zelan bateo pontetik jasotzen duten edo Sapatu santuz gaubelako argizariak etxera eroaten dituzten amaren etxeko edozein emendiorako. Ez dago la ia ardiak bedeinkatzeko apaizik? Han da borondate oneko emakumea bere ontzitxoaz eta ixipudun ardiak bedeinkatzen²⁶ edo argi santuaz hodeien aserreak amatigatzen “santa Barbara, santa Krüz, Jauna balia zakiguz” bezalako otoitzak ahotan.

Zer esanik ez dago, bestalde, ama bera dela Jainko Ama goi arketipoaren irudi bizia eta aita, aldiz, Jainko Aitarena. Aketipo biok erlijino mailan aldare berera jaso ezik, ez da argituko gure gizarteak jasaten duen ohargabe bortitz eta orokorra. Ez al da zuzena, bizia eman diguna eta heriotzean hartzen gaituena eta gure astunari lurretik gorainoko jausian bultzatzen gaituenari, amaren etxeko amari ohore egitea, lurrean bezala, zeruan ere?

26 Halantxe dager, foto eta guzti, F. Z *Ama Jainkoa*, or. 129, arratiar emakumea Gorbeara igon behar duten ardiak bedeinkatzen.

VI. AMAREN ETXEA IKERLAN

Jakinduria eta zientzia ez dira gauza bera, baina gaur zientziak baiezten ez duen jakinduriarik ez da onartzen. Froga bat gehiago behar du jakinduriak eta, zorionean, ez dago jakinduria ezaba dezaken zientziarik, batez ere, jakinduriaren oinarria kosmoa bera denean. Ekologiak, adibidez, energia berriztagarriak bultzatzen ditu, energia erregarrien aurka. Erregarriak indar puztagarriak eta galkorrak dira eta gainera gure bizitokia kutsatu egiten dute.

Kritika, ikerlana, zientzia, galderak eta erantzun zuzenak inoiz baino beharrezkoagoak dira, bada egiaren pauso baterako, gezurrak bi ibili ditu edozein mediotan. Ikusi, entzun, aztatu, ohartu beraz, eta atera argitara geure arketipoak, amaren etxeokak dira-ta.

Amaren etxeko lau kantonarriak ere energia berriztagarrien lekuko dira: ura, beroa, airea eta lurra. Ezagunak ditugu bere sinbolo eta izen mitikoekin, eskerrak kultura zarren idazki eta euskararen oroitzagaitik. Lau elementuok sorkuntzatik hona oratzen gaituzte, euren partele bai-gara gizakiok: indar berriztagarri.


6.1. Astronomia eta Ama izarratua.

Bizi dugun galaxiari *Vía Lactea* "esne bide" edo *galaxia* gerke-raz, izena otu zitzaionari gogotan zituan artean Ama Andiaren bularretiko esne tanto ixuriak¹. (Ikus or. 41) *Vía Lactea* deritson galaxia baino andiagorik ba dago kosmoan, egotez, baina ez dira amaren etxeko umeentzat kolonizagarri. Ez daukate urik, giza-kiontzat, otz-bero larregikoak dira, ez dute arnasbiderako atmosferarik, ez eta lur landugarririk, ez dugu oinazpiko lur au baino².

Giza biziarentzat unibertsoan toki aparta asmatu zuenak, giza-kiaren ardura berezia izan omen zuan, usten du antropia asta->

1 Ostera ere, mitora jo ezik, ez dugu tutik ondo ulertzen. Baina gau izarratuan Nut Amaren bularreko esne zuria ohartu zuenak amaren etxeko iruditeria zeukan. *Nut* edukinaz *nit*⁽⁰⁾ egin zuena, ostera, gozari gabe gelditu zan eta urieta-ko argi kutsaduraz ama izarratuaren ikuskizun eragotziak goi argi barik utzi gaitu.

2 Batzuk kastu andiak egiten dituzte beste planeta edo sistema baten>



Emakumea eta arbola. Ez bai-gara laboratorioriko umeak, ez plastikozko muinekak, giza muindun, seme-alabak baino. Arbolak sustraiak sakon sartuta dauzka lurrean, baina bere adarrak eta ostroa zerura begira dagoz, emakumea bezala. Emakumea ere lurrean oinak dago, baina baitatik zerura adi, handik bailetorkion den eta duen dena uneoroko bersorkuntzan. Zer nintzaken ni amaren erraietako umore barik, haren berotasun barik, haren odoleko oxigeno barik, haren gantzetako gun barik, amaren etxea kosmo bildua bada nerekeriko eta kosmoko lau elementuak nere bizi indar bai-dira amaren sabeletik.

penak. Bizitzeko urik behar ez bagendu, Marten ere bizi geintezken, eguzki galden neurtua behar ez bagendu, udea igaroteko kalte barik igaroteko, Andromedara edo beste galaxia batera bialdu gindeikezan, arnaserako eguratz garbia eta aproposa behar ez bagendu, bizi al izateko, iretargian ere bapo egon geintezkan, eta frutu emaile bihurtzeko lur egokia ez balitz Amaren etxeko baratza, Kosmoaren egilea ere ez zan izango Ama Jainkoa, ez eta gu ere amaren erraietan erroto eta amaren bularretan inutuak. Eta zer besterik, ez bai-gara, zorionez, laboratorioriko umeak, ez plastikozko muinekak, ez berunezko gudariak, edo guardasolez Siriotik harako puztu, puttezko inortxo. Beraz, antropia³ deitu astapenak, oharpen sakonera gonbidatzen gaitu. Izan ere, ez dugu beste biderik, Jung sikiatrak aipatu, geure arketipoak geugan argitzeko: geure baita eta ingurua.

>energia erregarrien arrobi bila. Horrexek dira etxekaltek: berezko ditugun energia berriztagarriak ezetsi eta erregarriez ito nahi gaituztenak. Ama etxeko umei sor laguntza, pobreen ogia, eralgiten dute eta behartsueri lagundu beharrean, denontzako kaltea ugaritu.

3 Antropiazko astapenak gizakiok bizi ahal izateko behar duen bizi-gune berezia eta bakarra ohartzuz, gure goi-arduratan norbait berezia dagoela aldarrikatzen du. Beraz, gure bizitoki den amaren etxearen kontrako erasoak guda larrieneko matxismo galgarriaren ekintzak dira.


Kaleko argi kutsadurak zerua eztali zigun aspaldi. Artean gaueko izarratua bera zan predikari, eta Nut Amaren oroitzak zerua urbilagotik erakusten zigun eta beste liburu barik, astronomo jaiok ziran gure asabak, izar nabarienak izenez ezagutzen eta zenbatzen bai-zituzten izadiko pantaila andian. Gaur geure neurriko pantaila txikiak etxe barruan dauzkagu, euki, baina ez dute gure sentzunak harrigarritzeko beste indarririk.

6.2. *Iduskiaren inguru mobitzen ei gara*

Guk eguzkia zeru urdinaren arkuan mogitzen ikusten dugu eta horrela uste izan zuten asabek: zerua Ama zela eta eguzkia, Aita. Amaren etxe baitan, kosmo txikian, ikusten zutena bera ohartzten zuten kosmo andian, etxeko ereduak arketipo orokor bihurtzen zituztela eta izen berean bildu: ama+aita > MA-AT^(k) "oinarrizko jakinduria" adierazten edo beste izenez NUT^(k) "ama sortzaile, inude" aitortzen. Astronomiak ere amaren etxea, gure lurra, eguzkiaren inguru mogitzen dela esaten digu eta, aldiz, eguzkia bera Via Lactea deritson galaxiaren biran. (Ikus or. 73) Nola asmatu galaxiaren zein tokitan dagoen eguzki sistemaren txokoa eta harago, gure amaren etxeko baratza? Ohar gabe ere, dantza arrigarria egiten omen dugu, orduko bi mila km, inguruko abiadan. Nork jartzen dio musika edo ritmoa dantza honeri? Eguzkia dela gure orduen gidaria eta ikusgarrien argiontzia, gau eta egun txorien, xomorroen kanturik ez dela falta.

Eguzkiaren beroaz erre ez gaitez, ANU/INU "zerua" > *ainubi* > *nube* beeratzen da, eguzkiari errezela egiten diola, eta maiz, in tzez eta euriz freskaten eta bustitzen gaituela. Asaben ustez, UTU "eguzkia" bera zan, *laino*ak sortuz, zeruko *uinaren uturri, udu, odi, tubo, tuxu* bihurtzen zelarik. Beraz ez da harritzeko euskalkiak

3 J.M. Barandianek gure arbasoek zeruari ematen zien izenetatik atera zuan, IN "zeru" izan behar zuela, bada, OST, ORTZ "zeru" degoen tokian IN ere agertzen bai da; hala nola *usturi/ inusturi, ostarri, inar*, etc. Hare gehiago "Es probable esta este vieja raíz sirviera para la formación del nombre INKO con que hoy se llama Dios en algunas regiones del País Vasco". (J.M. BARANDIARAN, *Mitología vasca*, o. c. or. 136-137). Eztalakoan ere, Joxemielek, euskera bidez, mitoa aztertetik linguistikian sakondu daitekela dinosku. *Euskeraren jatorri* zaleok, jarraitu maisuari.



Via Lactea deritson galaxian aurkitzen da Eguzki sistema eta bertan Lurra. Lau adardun zurrumbiloa da. Bere diametroak trilion eta erdi km. ditu, artean miloika izar dauzkala, uneoro jaio eta itzaltzen, festa iluntzeko suziariak lez, edo amaren etxean jaio eta hiltzen diren umeak bezala. (Ikus zer den Andromeda aldean or, 15)

“eguzkia” *UTU*-ren familiako *Uduski* ezagutzea⁴.

Eguzkiak erakusten digu lurretik zerura *itera>izera>zear* igoteko *idea>bidea*, hagaitik *Iduski Saindua* zeritson hilobien buru jartzen diren/ziren “harri gizonak”⁵. Asieran harri biribilaren *dorua* “anillo” zan, *dorua>adore* dator, gero, kristinau aroan, kurpil ardatz kurutzatua dager. *Dorukideak zorikideen* “ezkonduen” lotura adierazten du, magia eta nahia, agintzaria eta fedea, giza behartuaren bidera, aingura antzo, irtetzen direla. Lurreko ondakinetik harako asmoen itxaroan zura eta gero harri iraungarria erabili ziran. Hagatik “giza zurtu” eta “giza harritu”⁶ hizkuneak erabili ziran.

4 Euskalkiak euskararen memoria dira eta euskera beraren osasun seinale; euskararen zadorrak argitzen dizkigute. Ohore euskera dena bildu ziguten maisuei. Bilduma osoa ez da gorputzaren nekea, indarra baino.

5 F. ZUBIAGA, *La antigua religión de los vascos*, or.39-40.

6 *Harritu* “hacerse de piedra”, *zurtu* “volverse madera”, zorabio eta *harriskoetatik>riesgo* salbu izateko, “toca madera” esankizunetan bezala.

Euskaldunok koptoengan azaltzen den teologia jarraitu zuten aldi baten, Ama Andiarren ur goienen ugaroak indarra galtzen joan zenean, Utu>Aitaren *dorua*>*zoria* zihurragotzat-edo jo zutenean.

Aldi batean *Utu*>*otoi* zan, lehenago *Inu*>*ino* zen bezala, eska-bidea eta goralpena, bada *erresuak*>*erraztu* egiten zuan jainkoe-kiko harremana, koptoen >*ersu* ere apaizaren otoitzaldiko “*arenga*” zan. Bestalde amaren etxeko sutea, *beko su*>*foco* etorri zan eta go-ian denen berogarri eta argitzaile den eguzkiaren errepika gertatu.

6.3. *Eroi eraileak historian*

Gizakiak amaren esana ukatu zuenetik eta hara, amaigabeko eztabaidatan sartu eta armak hartu zituzten elkarren aurka. Amaren eskolako hizkuntzak balorea galduago eta armen indarrak andiago ziran eta hondamena garaile. Aitatiar mundu berriak herrien gudatez kontatzen zuten historia osoa: halako erregeak beste herriko erregea menderatu zuena⁷. Gizonezkoek medaila zaleak dira horretan. Inannak bakarrik irabazi zuan, daki-gunez, arma bariko guda bakarra⁸ eta, beraz, odol izurte gabeko guda, bere jainkotiar ahala goraiapatuaz. Amaren etxeko alabak edo jokerak bakarrik egin dezake amatigozko konponketarik.

Amaren etxea ere galaxietako zirimolean sartuta ekintza harrigarrian dihardu, etxekaltek bere oinarrietatik eten, eteteko, indar fisikoak eskuetan dituztela. Burrukaren itxumustuan dena ankaz gora jaurtitzeko kapaz dira. Amaren etxeari dedu apur bat baleutse, ez lioke “armagin”⁹ deituko euskal urkoari, armagina erai-

7 Erromako Kaiserren ekintza irakurriak edo Espainiako historian ikusiaz gogoratzea baino ez dogu. Guzti horrek irabasle eta galtzaileen arteko auzia anditzen du, ez konpontzen. Gure arteko herri kiroletan ere grina bera gailentzen da apostularien gizenerako. Kirola ona da, diru-apostua da txarra.

8 Inanak ospez bakarrik menderatu zuan Elam eta Irango erregea Agaitik Inanna oin bata leoiaren buru gainean eta haren muturretik katea duela irudikatua ere agertzen da. Inannak amaren boterea luzatzen zuan. (*El señor de Areta*, SAMUEL N. KRAMER, *La historia empezó en Sumer*) Gaurko irudiekin ikusteko, ohar Angela Merkel eta Trump gidarien politika. Kalte andia egin diezaikigu urliak, baita lezino galanta eman ere, geure aukeran.

9 Kirolaz aipatu duguna, ibartarrek lehen mailako futbola dute, “armagin” direlako edo izan zirelako? Ez, bere beteko kirolari direlako baino. Hiz->



Aylan Kurdi da. Siriako gudatik igesian joian. Turkiatik zehar Egeon izan zan. Aitak ere negar egin zuan eta munduko bihotz erdiak unkitu. Gudako eroi ero eraileek ez zioten barkamenik eskatu amari. Gazaren eta petrolioaren guda da. USA eta Europak, inoren solotik zehar euren portura atera nahi dutena. Energia galkorrik gabe, ba dute nahiko indar kosmoan betan.

le delako eta eurretan kimikazko armak laidogarrienak, denon etxea kutsatzen dutelako. Zorionez, oraindino ez digute asmatu guda ekologikoa, antikomikoa ausaz, baina erne gauzka, eduki.

Gu nolabaiteko enperioa bagina, agur gure etorkizuna, baina amaren esaneko irauten duguno, amaren etxeak babesten gaitu eta amaren senak gorde gaitzake bakarrik guda gizonengandik.

6.4. Sikologia eta amaren etxea

Sikologiak gizakiaren baita=psike^(e) aztertzen du, hori edonork daki, baina amaren etxeko ugazama nor den askok ez dute aitortu nahi, argi dagonarren. *Ugatz+ama* "bularra duen eta ematen duena ama da" ezbai gabe, jai berriaren gose-egarriak bertatik bertara asetzen dituen ama, hain zuzen. *Ugazama* hitz beteko ospea hartu zuan amaren etxeko seaskaren gunean. Sartu zan orduan patriarken boterea eta *ugazaba* eta *ugazaita* hitzak asmatu zituan *ugazamaren* eskola aurrean, nahiz ama ez denak ugatzik ere es euki, amatu ezinek ere, nonbait tukuarren, amakatu nahi izaten dutelako. (ikus or. 54) Amaren esne gozoak ere ba du zeresanik auzi honetan. Galdetu etxeko umeei, ezpaere.

Hagatik amaren etxeko umeez ezin izan dute aztu Ama Jainkoaren nortasuna, inguruko herrien aldareak soilik Aita Jainkoa aitortzen dutenarren. Nork amatigatu gure gizartea, ama berak

>kuntzaren matxismoak irain egiten die ibartarrei, "armagin" deitzeaz.

7 ^o laburgoa: NON, NOIZ, NOLA hiruko egitura, arketipoen arabera							
AN	UTU	ERRA	ILU	KA	BA	ASA	
NOIZ	<i>antxina/ein</i>	<i>atxina</i>	<i>arkhe</i>	<i>lehen</i>	<i>gaur</i>	<i>behin>fine</i>	<i>ia/jam</i>
	<i>ante/end</i>	<i>juis/tunc</i>	<i>eri</i>	<i>lehin</i>	<i>egun</i>	<i>fite/pronto</i>	<i>cito</i>
	<i>anartean</i>	<i>edonoiz</i>	<i>erainegun</i>	<i>olim</i>	<i>igaz</i>	<i>hodie/hoy</i>	<i>sempe</i>
	<i>mane/on</i>	<i>etzi/oxtian</i>	<i>arsa</i>	<i>laster</i>	<i>aguro</i>	<i>bihar</i>	<i>jamás</i>
	<i>nunc/nunca</i>	<i>adesa</i>	<i>aurton</i>	<i>lehengoa</i>	<i>goiz</i>	<i>berandu</i>	<i>atzen</i>
	<i>unquam</i>	<i>odie/atzo</i>	<i>orduan</i>	<i>luego</i>	<i>gero</i>	<i>postea</i>	<i>ayer</i>
	<i>nocte, nit</i>	<i>tandem</i>	<i>orain</i>	<i>aliquando</i>	<i>gauzez</i>	<i>bart/belu</i>	<i>sero</i>
	<i>interea</i>	<i>tarte>tarde</i>	<i>arte</i>		<i>bitartean</i>	<i>saepe, sarri</i>	
NON	<i>han/inon</i>	<i>edonon</i>	<i>arriba</i>	<i>allí/illic</i>	<i>acullá</i>	<i>biran, bee</i>	<i>aiz</i>
	<i>hona/amen</i>	<i>oste</i>	<i>aurre/or</i>	<i>allá</i>	<i>gain/gan</i>	<i>bean/baitan</i>	<i>cerca</i>
	<i>unean</i>	<i>sub/supra</i>	<i>ur/ara</i>	<i>lekutan</i>	<i>gora</i>	<i>post/ibi</i>	<i>asau</i>
	<i>aindi/undei</i>	<i>at/ate</i>	<i>urrun</i>	<i>lejos</i>	<i>gertu</i>	<i>abajo</i>	<i>asago</i>
	<i>nter>entre</i>	<i>tras</i>	<i>arte</i>	<i>alibi</i>	<i>hic/aquí</i>	<i>bertan</i>	<i>asero</i>
NOLA	<i>ondo/ongi</i>	<i>ederto/total</i>	<i>ariri/rápido</i>	<i>lar/holan</i>	<i>gisa</i>	<i>bien</i>	<i>asi, sic</i>
	<i>mal</i>	<i>txarto/subito</i>	<i>urri/urru</i>	<i>labur</i>	<i>gaizki</i>	<i>bon</i>	<i>zehatz</i>
	<i>onela</i>	<i>osoro/ostaz</i>	<i>arras/erruz</i>	<i>larguro</i>	<i>gustiz</i>	<i>apenas</i>	<i>eskas</i>

izan ezik? Zein da, izan ere, lenengo arketipoa gure ohargabeen, ama baino. Eta zer dela-eta gure asaben Ama Jainkoaren izenek, *Ma.at>Maite>Maidi*, formak bezala, aitortzen dute *Ama+Aita* arketipoen batasuna ahotsetik idazkizuneraino eta patriarken jainkoak beti amaren arketipoa ukatzen¹⁰? Hor dago gakoa.

Generoaren analisisa sartu behar izan da, “emakume jakintsuak bere etxea eraikitzen du” (Ja. 14,1) esana egia delako. Ez hori bakarrik, “emakume urenak etxea lausaturagino betatu daroa” ere dinolako euskal jakinduriak. Ohar, ezpaere, argibide honek ea harako Inannaren ontzi betearekin antzik ez duen. (Ikus “Inanna” or. 47)

Gizonezkoak bakarrik ezin dezake gizarteko ardura jaso, ez eramán. Amak ez zegiken utsik egin bere seme-alaben elikadurako arazoetan edo bere jaseko umeak apaindura osoz plazan aurkeztu gabe, bere-bereak direlako, bere baitakoak, berak tornutakoak. Orain, bada, *men/man* “azaleko kemen” eta *women*⁽¹⁾ “barne *men*” elkarrenak dira, hitzen truku guztien gainetik.

10 *Ama+Aita* “zeru+eguzki” kosmoko eredia jarraitzen da amaren etxean. Ala eguno zeruak ukatu egiten al dio bidea eguzkiari, edo eguzkiak sapotz zeruari? Ez eta egun ilunetan ere, lainozko errezelaren beste aldetik.

Zer dakus emakume honek zeru urdinari, horren adikor begiratzeko? Harridura halakoa! Ez da soaldi batekoa. Zer ote dinto uinen anilak, airearen gardenak? Ederra, argia, apaina, kidegoa. Gure amaren etxeko apaindurek gonbidatu egiten gaituzte...



6.5. Tokologia eta Amaren etxea.

Amaren etxea eta *umetokia* esatera dator hainbaten. NON bizi garela? Galaxian bizi gara, eguzkiaren sisteman, lurrian, hain zuzen, eta geure amagan erein zan gure nortasunaren azia, amagan *burutu* > *frutu* da gure nortasuna. Beraz, ama gure *umetokia* guretzat, > *tokou*⁽⁹⁾ “jaiotza” grekoentzat, hasieran ama eskolako zirenek ez bai-ziren horren lotza. Jakina *umetokia* galkorra dena, maiz frutakien azala bezala, haragizko bizia bera lez, baina haren baitako garenon nortasuna ez da horren galkor, euskal jakintzak dinonez “ez bai gera bizi geure baitan, beste norbaiten baitan baizik”. Horra bada, Amaren etxea, gure *toki* egina eta gu amaren baitako¹¹ izaki ezagutzea. Hortik beste NORBAITEN seme-alaba garena sinistra analogiazko pauzo librea dago. Bizitza maite dugunok ez ditugu aztu behar biologiaren legeak, geu baikoitzak geure oldez, sube engainu gabe, osotu behar duguna. Esan amaginari, aitari berari, galde Osakidetzan. Gilgames eroiak porrot egin zuan, bere eskuez jastatzeko lain bizi iraupenen bila.

Herri askotan ematen diren amatar atxikitasunagaitik, gizarte aztertzaille gehienek zihurtzat ematen dute hasieran ama agintea izan zela nausi eta geroago baten gizonezkoarena, baina aldaketa horren azalpenik ez dute ematen eta eman ordua da dagoneko.

11 *Baita* “etxe” esaten da oraindino Ifar Euskalerrian: *Maria-baita* “Marienea” adierazten, hotz, “Mariaren etxea”. Hitz zaharragoa da, *bit*^(h) esaten du hebreoak ere, hizkuntza denak ama-eskola berekoak zirenean.

Hasieran Baradisua zela esan zuten liburu zaharrek, eta han ba zela Jakinduriaren zuhaitza eta Biziaeren zuaitza eta artean Sube bigurri malmuzkaria. Baina ez zekiten nondiko ahalmena edo noren aholkua zuen Sube horrek. Eta azaldu beharra dago.

6.6. Teologia eta amaren etxea

Ez da berdin *Ama-zeru* ala *Ama-lur* deitu Jainkoari, *Ama* edo *Aita* deitzea ere ez denez. Gure asabek *Ama* eta *Aita* elkarkide jartzen zituzten biak Jainko izenean: *Ma.at*>*Maite*>*Maidi* osatuz. Horrela zeru makoa den *aNu* eta egunero hara igoten duen *uTu* eguzkiak gure baitako arketipo behinenak argitzen dituzte.

Ez da berdin izeneko arketipo bion ordena trukitzea, ama amatu ostean, aitatzen delako aita eta hitzaren erritoak *araua* markatzen du eta trukaketak, berriz, *biraua*. Orduan *Maat* ez da *Dama*, ez *Maite Tema* edo *Maidi Dema*. Izen aldaketa joko bihurria izan daiteke, ezjakina merke malmuzkatu nahi duenengan¹².

Nut izenarekin *nit*^(f) “gau” egin eta, izena edukinez ustuzteak ere ez digu balio, eta gutxiago patriarkatuak *Ama* Jainkoaren aurka hizkuntza klasikoetan eta erromanikoetan maiz egin izan duenez. Ez du balio halaber, *Geb*^(k) giza nortasunarekin *Gai*^(a) jainkosa asmatuz, zeru-lurrak ankaz gora jartzea, grekoek egin zutenek, (Ikus or. 31) eta herri kultoenak, heuren kolonizatze lana jarraituz; ez ostera, amaren eskolako herriek¹³.

Erromatarrek *Gaia Mater Tellus* “ama lur” itzultzen dute eta albora begira jantzi diren euskaldun batzuk *Amalur* ikusi dute bertan, gure *Maite* edo *Maidi* eta *Mari* izenen ordezkari egokientzat hartuz, edo Atlantikoz beste aldean, bolibiarren *Patxamama* aldatua bailitzan. Nork kolonizatu behar gaitu oraingoan eta urrengoan? Ala bizi dugun Lurra, geure gaiztakeriaz jada heri denean, bere zauriez, ez Kristorenez, osatu behar al gaitu?

12 Eleizako liturgian beti dager *Aita*, *Jauna*, zexu bakarreko norbait. Bizkai mailako arloan “Aita-Ama” aipatzen duten Meza otoitzerako formula batzu multikopiatu agertu ziran, baina “Ama-Aita” esaten duenik ez, nahiz herriak “neska-mutilak” eta “andre-gizonak” esaten jarraitzen duen, eta “señoras y señores/ mesdames et mesieurs” adeitasunez erromantikoeak.



Orain eñea, gero esnea, gero sopa ta guztiko katilukada eta ama beti maian serbitzari. Ez zan dena *Vía Lactean* galdu, ez jatorrizko ondamendian, “bai ta zure bularretik hartu esne on haren gozoa,/orduz geroztik zurea naukan ene izaite osoa” poetak abestua, ume hori, hala ere, izan daiteke setati gaiztoaren bitima.

Eleiza Amak ere Espirituaren¹⁴ eraginez eta herriaren yoranez gogoratzen ditu amaren erraiak eta amaren ditia eta laster konturatuko da (dagoneko ari da konturatzen) ezingo duela aurrera jarraitu magiazko apaizgoaren pentsudan. Magia hori da *jatorrizko pekatua*, ez amaren bularra. Magia bera da subearen mutila, nahiz apaizen artean mutil zintzo asko izan¹⁵.

Eleiza Amak, ezelako sinigarririk nahi badu, ama, sen gehiago duen emakumea, onartu behar du bere erakundetan, misoginia mizkina behingoz aztuta, gizarteko beste erakundetan ohi bezala. Eleiz gizonak deitu, apaizak baino, itzal gehiago dute gaur berak edo bere bedeinkapenez sortu ziren lagunarteak, hala Gurutze Gorria, Karitas, Eskautak, San Egidiokoak eta beste hainbat Onegek. Eurak, partaliarren kredoari barik, borondate onari begiratzen bai-diate urragotik, Ebangelioak bezala¹⁶.

14 Espiritua aipatzean, amak gudan utzi duen sen arrastoa bezala da, goiko akordu eta jakintza edo fede eltzen dena. Sen hori duten guztiak eta Bateoko urak dinoskunez, denak gara Jesusen -erreinuko *abade>apaiz*.

15 Euskaldunak apaizei sor dieguna ez da arin neurtzekoa, hala ere, bada hor karistiar kopla zahar baten zirrikada: “Abadie, abadie/ kapapean gitxerrie/ baina hola ez da beteten/ Jaungoikoaren legie” dinona eta euskara normaldu barik ere, erraz ulertzen dena. Abade askori asko sor diegunarren, gure arteko bakea eta anaitasuna ez da osatuko edo normalduko, gure goitzain gazteek, hain lotsagabe, heuren klerikalismoaren serbitzari direno.

16 *Evangelii Gaudium eta Amoris laetitia* idazkietan agertzen da, bederen eleizako maisutzak honetan ematen duen bira.

6.7. Amaren etxea eta ekonomia

Amaren etxeak sortu du gizartea, etxe bat eta beste etxe bat, eta maren etxeko umeak sortu zuten auzoa. Auzoa izan da gure arteko lehen gizartea. Gizarte menditar eta baserritarra, geure umetako kultura inutu eta gero Auzo-Ikastolek lagundu dutena.

Baserriak jateko eta janzteko ezezik, denerako ornigarriak ziztuan. Aldi baten emakumeen eskuetan zegoen arilkatze eta ehungintza lana. Artulea eta linua ekoizten zan. Artulezko berdurak galtzerditarako eta linuzko oihalak ogerako eta soineko. Emakumeak bakarka eta auzolanean moldatzen ziran. Bizia, bizitza eta ehuna elkarrenak ziran giza irudimenean: “ehuleek bezala, hariltzen nuan nere bizia eta ebaki egin didazu haria”. (Is. 38,12)

Aitak udan goldea eta zumitz eta larru lanak eta arostezia lantzen zuan neguan: aulkiak, selak, erredizak, buztarriak, gurdiak, atautak zurez eta abarkak, edeak, zapak, zapatak, etab. larruz. Lan mekanizatu bakarra errota zan. Errotak amaren eskuei atzedan andia eman zien. Ugazama edo etxejaun bakoitza arazo berezian burutzen zan eta aloguraz edo beste ordain bidez moldatzen ziran.

Hanartean kaletarrak burutu ziran baserriko gendeen artean eta, baratz lanerako lurrik ezean, gainerako eskulanen egile burutu ziran mekanikaren laguntzaz. Kaleak ornigarrien denda ideki zuan eta baserritar etxekoandreek baratzeko gehigarriez amaren etxeari laguntzeko aukera izan zuten harazgero. Merkatu andiak ere gaur urbileko merkagaia, amaren etxekoa, estimatzen dute.

Linua *urdu* > *urdir*¹⁷ zutenak heurak dira giza bizitza eten gabe ehunten dutenak ere. Jaio berria janzteko eskuak *urduri*

17 *Urdu* > *urdir* da harilketan eta *Urd* deritso Norbegian Nornen mitoan hiruletariko bateri, *Berdante* “berduragile=ehungile” besteari eta *Skold* “eskolda=trama” hirugarrenari. Hiru Hiruleak edo *Normak Urdar* putzutiko *uraz ureztatzen* dute *Ygdrasil* deritson bizi zuhaitza. Itzuleztara irakurri *Ygdrasil* eta *Lisardi* dino. Beraz, *nor nas?* Hizkirimiria dirudi, hein baten. Bikingoen txamanek runak deitu idazkietan azaltzen zituzten heuren mito eta seinuak. Eskaniako gende hau, VII gizalditik gerora nabaritu zan. Ohar peninsuletan *Eskania/Espeina* eta “goiko etxe” eta “beko etxe” dira mapan. IX gizaldi inguruan bikinkoak bateratsu burrukatzen hasi ziran. Izadiko agerpenen “fenomenoen” aitorle eta ohituraz berekoi eta ausartak ziran zarraparretan. Jaun Zuria ere, ausaz, horreitarikoren bat izan zeiteken. Emetasun berezia agertzen dute mediterranean giroko *Normak* mitoan.



Hiru hiruleak: berduren ehungileak eurak dira bizitza *urduten* dutenak ere: *Urd*, *Berdante* eta *Skuld*, Norbegiako Nornen mitotan, Ygdrasil markaz agertzen direnak. Marka euren da, izenak geureak. Ospatu, gu eta eurak konaturatzen garenean, ospatuko dugu *hip! eup!* oihuez.

mugitzen ziran eskoldan, aineskaz hariak aintzen, “ehunak ba daki eskoldaz” bai-dino sumeriar jakinduriak¹⁸ eta amaren etxean hizkuntza bera ere, jainkoaren haribila urdutuz, osatzen den artea bailitzan, ikastera gonbidatzen du eta orduan, *erdi*>*berdi* dator eta *erdiera*>*berdura*, amaren etxeak Europa Sartaldean¹⁹ ere, tokia izan dezan herri askeen artean eta bakoitzaren nortasuna ezagutua eta onartua izan dadin, ezelako *brexit* halako barik²⁰.

6.8. Ekologia eta amaren etxea

Lurra *aratur*, *artz* egin eta hortik *baratza* sortu zuenak ba daki *baratzetik eskaratzera* dagoen trangoa, norbere umeei jaten eman behar zienean. Ura zikindu dela? Ohar amak. Lurra bera pozoitu dela? Kimikoen ezardura dela-ta, emakumeek salatari. Ekologia izena bera ere *oiku*^(g)<*ekua*^(s) etxekoa eta amarenekin zerikusia du, hizkuntza, ehuna bezala, ama joskinaren jostorrotzekin ornitu arketipoez landuriko ahozkatze artea delako.

18 “Gazteak ospa dezala bere jainkoaren berba polikeria gabe, Sumer aitorrean bizi diren gizakiek burutu dezatela haria bezala”, (*El hombre y su dios*, 2-4, DB. *Sabidurías de Mesopotamia*) hiztegi osatu eta zazpi zutabeko etxea:jaso al izateko.

19 Ondo egingo lukete ingelesek euren *birth*>*birthday* eta besteak nondik sortu diren galdetzean eta indoeuropearra aitatu barik, euskara aitortzean.

20 Ingelesek Europa batasunetik berezi egin nahi dute bere lurraldea eta ekintza horri *Brexit* deitu. Galdetu egiezu zer nondik asmatu duten eta zorioneko indoeuropeismoa aipatuko dizute. Ez dakite *berezitu*>*brexit* “separar” denik euskeraz. Ez dira amaz goraintzi. Matxismoak ez du behin ere ezagutuko amaren ondarea, ez politikan, ez ekonomian, ez kulturaren, ez eta ere linguistikan.

Emakumeak uneak eta aldiak jarraitzen ditu (Ikus or. 25) Gizona zorkil-morkil moldatzen da, ostera, erritozko arazotan. Ez dio iretargiari begiratzeko, ez eta uraren gardentasunari. Berari lana mekanizatzea zaio atzegin, area, golde bihurtzea eta idi pareta, traktore. Errazagoa du monokultiboa, basoaz matarrasa egin eta uneko ekonomiak eskatzen duenez, etxaguntza osoa pinuz landatzea, mendien itxura bera galtzeraino. Bai eta gero, pinuen merkatuak oka egin, eta erdiak haina basoan usteltzen utzi behar badira ere, eta turismoren txarma itxuraz galkor apaldu.

Etxe andreak>*txandrak* amaren etxea zaintzen du, ez du entzun gura, basoak haren aurpegi argia basoko ilunak estali dezan, Basajauna errespetatzen du. Hor arte frutakiak hobeto eta handik hara, basoa. Orobat, etxeko medianaletik aurrera ez aipatu txerri edo txaltxua sartzerik. Lehengo etxeko osasuna eta txukuntasuna da. Eta txerri korta etxetik ate, gero ere "nere ardurako aberea da" ohartzen txandrak. Amaren etxea den lurdian ekologiari buruzko eztabaida asko izan dira senar-emazteen artean.

Laborea enpresa gertatu denean, gizonetakoek marra gainditu dute eta ezin bestean jasan eta gero, emaztekiek jusora deitu dute gizonetako ekonomia mardo²¹: heuren larregikeriaz, eta guda-teez amaren etxea eta etxekoak kaltetzen dituztela salatuz.

Hor dago unteza: gizonetako jainkotxo izendatu denez gero, herriek elkarren arteko liskarra eta armazko eraso besterik ez dutela, arrokeriarren, elkarrekin bakeak egiteko ez direlako. Ba->

21 *Mardo*>*Martxo* dator, *mardo* hitzak gizonetakoaren zaindura-lodiera deskribatzen du. Hitz horren arketipoa *Martu* da eta haren ilari *Marti* deritso. Sumerrera ezkondu zen *maurtuko* gizona izan zela dino mitoak. Oso laborari fina izan omen zan eta lanabesak egiten trebea. Ohar ez ote duen zer ikusirik Ataungo *Martintxu* trebearekin. Babiloniako apaizek *Tiamat*<*Tia-Maat* famaz behingoz itxurgatu, gizonetako bururara deitu eta tronutik eratzi eta, eroia jainko berri asmatzeko, hako *Martu* zenaren semea *Marduku* izenduna aukeratu zuten harekin bururatzeko (Ikus or. 54-55). Ordutiko patriarkalismoak gaur lau mila urte inguru betetzen ditu eta emakunde feminismoaren iraultze orduak jo duenarren, oraindino aldirik txarrenak gelditzen zaizkio berari eta amaren etxeari, Mardukuren alderdikoei arma galgarriagoak, amaren etxea zearo ondatzeko gei direnak asmatu bai-dituzte ordurik hona eta ekonomiaren mardo armagintzan eralgitzen.



Indarrez datoz, usoen egadan eta urrungan, emakundeko feministak. Lur Amaren osasunak kezkatzen ditu. Bizitza dute helburu, haize zakarrek bizitzaren arbola bortizki astindu dutelako eta kumeen abia adarrari lotzen dion zehar orratza galdu hainean ote delako harriskua ausart salatuz.

kezko usteletan ere armak pilatzen ari direlako eta atzerriei heuren asmakeria gaiztoko armak salduz, arranoek bezala, eriotuen odolaz bizi direlako, uso bake zaleei ia “zenbat gara” abesten estarria urratzen zaiela²².

Babiloniako apaizek Marduken herriko *Baratzakusu*²³ izentatu zutenez gero, eta gizonezkoen abronadak esplotazino²⁴ halakoz, bioaniztasuna pikutara jaurti, bizitzaren tentua eta uneak zainitzen emakumeak urten du. Amaren etxean, amaren agirika bezala, ezin bestekoa dugu emakumearen gidaritza, gizonezkoen errotiko ohargabekeria sendatzekotan. Baike, ama lurrari, Frantzisko deunak bezala, “arriba” deitzeraino.

Egoki zan andre gurenak etxea lausaturaino betetzea, baina supergizonak lurra hodeietaraino betetze hori kaltegarri da etxe-koentzat. Hobe emakumearen sena eta ez gizonezkoen arrazoi-mena. Hobe Ma.at-en matematika, Marduken kalkuluak baino.

22 Usoak eta arranoak bezala dira, “arrano” eta “erroi” ere deitzen dira putreok. Erruki gabeko atzaparrak eta moko odol zale gosetia dute. Usoak, osterak, ezkurrez eta lurreko biiez bakean bizi dira eta aidearen jabe dira egadan. Egileak *ide>kide* eredu bikoitza behenipehin utzi zigun geure jardunaren eskola eta zentzabiderako.

23 Mardukun laugarren izena *Baratzakusu* da (*Enuma elish* VI,136) eta *Asaru*, hamargarrena (*Ibi*. VII, 1), *Baratzakusu* “txorimalo” ere deitua, *kusi>ikus*=begiratu egiten duelako, *Azaro<azi aro* bera da. Eskerrak mitologiari dakigu noiztik dugun etxean azpi sube matxismoaren kaltea.

24 Explotazino ganora hori Europa Mendebaldean eta USAan gertatzen da, Bankuen makinariak dena baloratzen duelako, etxekalte eta bera izanik.

8º laburgoa: ESAN IZEN ETA ADITZAK ARKETIPOEN ARABERA

AN	UTU	ERRA	ILU	KA	BA	ASA
ino, aien	oto i'otu	erran	ela'ele	kexa'agoz	ipoin	esan
oinon	hots/hitz	erasi	auli'ulu	quejarse	berba	espa
onua	heita'itun	eresi'ersu ⁶	lelo'laleo-	galde	berbatu	seger
inka'antzi	huita	erregu	elaire'oles	uka	bavarder	silenciar
narrar	jote	eragon	elegin	gezur	balbucir	sesto
nuntio+	aitatu	erosta	elekatu	criticar	abestu	sermone+
mezu	aitor'autu	eritxi	elasa	contar	avisar	saludar
mito	autortu	errezu	alakatu	clamar	psalere+	chanter
mintzo	deitu	orar'rezar	loxingatu	garraxi,	vocear	santzo
mu'muxin	deithatu	errieta	loquere+	gritar	baieztu	aztertu
murrika	destain	reyerta	laudare+	keruptto+	afirmar	senton
murmurio	docere+	arramaka	lekaio	kantatu	palabra	centón
masiatu	edatsi	irargi	elogiar	cantar-	parabole+	esakun
eneatu	hizketa	irakurri	alamen	gaztigatu	ahapaldi	sentencia
mentar	atsotitz	iruzkindu	aldia	glota+	falar	iskirio
moneo +	azaldu	ordeinatu	aldarri	glosar	hablar	


Ohar: grekar eta latindar izenak + honela seinutu agertzen dira

6.9 Amaren etxea eta Eleiker

Amaren etxea zazpi zutabeko eraikina bezala ikusi dugu Jakinduriaren eskolan (Ja. 31, 26) Ez digu esaten zeintzu diren zutabeok, baina herri koplak ere ez digu esaten zein ehungintzako jostun diren amaren gona gorrien zazpi joskileak. Zazpi “hamai-ka, oro, total” esan nahi du eta ostarkuaren margotan ikusita, kosmoaren sintesia dira, amaren eskolako adikune zehatzean.

Eleiker ikerketan elea euskera da eta ikerketa bidea edo metodoa, mito analisia. Linguistika arruntak ez du ibili bide hori, ez du interesik hartu. Errazago izan zuan “euskera, hizkuntza ez ezaguntzat” hartu eta baztertzea. Matxismoaren politikak berdinegiten du bere erresumara egokitzen ez diren herriekin. Emakumearen ume bailiran, emakumea bera bezala, menpekoen katean nahi ditu. Hareago, emaztea mintzearren, haren umeak ere hilteko griña du, eta haren eskolako hizkuntza, euskera bezalako jatorrizko hizkuntzak, itotzeko asmo sendoa dauka gaurdaino.

Linguistika deitzen zaio zientzia honeri eta zientzietan atzeratue-na da, bere maisu ospetsuak iturri ahortuetan edan zutelako, hareaa-



Kosmoaren irakurketa arketipoen arabera: Goian zerua, beean, lurra. Zeru makopean iNu, amaren semea, beerago, ezkerrean, uTu, "iduski", eskuman eRra "aire", azpian, lur azalean, iLu, "loi, lur". Horrek dira jainko arketipoak. Baltzean dagerz gizaki beraren arketipoak: goian Ka "gaia, materia", eta bean Ba, norbere baita, kontzientzia, eta eskuman aS, "asa, atsa" goikoak beekoekin elkarrizketatzeko baimena edo "erritoko santutasuna", Sumerrren eta Egipton ere agertzen diren bezala...

go, benetako urtegiaren putsua itxutu egin zutelako, haren berri, jakituriarena alegia, inork jakin ez zezan²⁵. Hori bai-da, laburki esanda, patriarkalismoaren bekatua, Baradisutik eta honaino²⁶.

Jung sikiatrak giza baitako arketipoak aipatzen ditu, Bachelard filosofoak kosmo barneko lau elementuak: ura, sua, airea eta lurra gure iruditeriaren pantaila eta hizkuntzaren lau hormonak bezala. Euren lorratzetan ekin diot. Euskerak magia ere badu, bere inguruan oretzen ari den ospetan bederen, halako txarma biltzen bai-du²⁷.

25 Larregikeria honen adibidetzat ondo dator Iruina-Beleiako ostrakekin jasoten deña. "Euskera dute? Beraz, faltsuak dira" ustez eman zitzaion epaia salaten gendun eta keramikan eta arkeometriari ulertua den belgiar lagun Koen-ek aitortzen digunez, "orduán, 2008-an, ez nituen ezagutzen euskaldunak eta Ifarreko gendearen xalotasunez epaitu nituan "cospiranoico" bezala, zientziaren eta juso doiairen aurrean, hotz, zientziaz, eta ez erraiez, argitu beharreko arazoa zela eta euskeraren kontrako amorru hori ezetzi egiten nuan, oztopo bezala. Denbora joanean, eta ikusiak ikusi, neurez konturatu naiz Iruina-Beleiako arazo honek, zientziarekin zerikusi gutxi duela..." (Koenraad Van den Driessche <no-reply@blogger.com>) (Euskera ta laburbildua neurea)

26 F. ZUBIAGA, *Ama eskolako hizkuntza orokorra*, tesi a honetan da,

27 Txarma eta fama onak lirake pasarelan, baina azalkean gelditu daitezke, euskeraren memoria duina egiten ez dugun artean, "hitzak, hitzak" izango lira beste hitz askoren artean eta ez geu, Unibertziadetik eta kalera, barru eta azal >

9º laburgoa: ADIMEN HITZ-ADITZEN ANALOGIA ARKETIPOEN ARABERA

AN	UTU	ERRA	ILU	KA	BA	ASA
en/ena	eita/ide	oroi	olde	egia	bena	sen/zentzu
onua	otu/aitu	aieri	oldoztu	igarri	benaz	xede
anze/antze	idea/aditu	eritxi	likatu	gogo	bako/vaca	jakin
antze	udu/iduitu	eratxi	ulertu	gardi	buru	etsi
man	uste/sumo	urdu,	listo	korde	aburu	espen
antzi	susmo/sinetsi	iruditu	iluso	akordatu	burutapen	sinestu
amets	juzo/aitortu	erratu	lotu	ogartu	barru	asmo
mentu	zoli/zogi	oratu	lokatu	ikasi'kasa	barrundu	asmatu
nabaritu	zuhu/zogeri	arte	loka	ikertu	bulko	jabetu
memoratu	zorga	argi	lelo	gomutau	begitandu	ezagutu
ahanzkor	tekuru/zio	arrazio	lerdo	gogartu	ber/bera	aztertu
inozo	sotil/tuntun	ergel	elger	gurbil	ber/bera	azkar
memel				gezur	babo	aztu

ohar: ena>bena>sena, ide>bide>xede, aitu>baitu>jabetu, sumo>asmo...

Orduan ama eskolako hizkuntza zaharrak begiratu munduan. Hantxe dagoz sumerieran, koptoeran, euskeran. Harrigarria ez da Sumerian edo Egipton arkeologiak halako mezua idoro ahal izatea. Harrigarriena hango arkeologoek nekeak lortua, gure euskerak bizian geure hitzekin eta mitoeekin errepikatzea da eta handiko begirada hemen halatan espilatzea. Memoria, al denean, lurpetik ateratzen du te arkeologoez eta alderdi bietako mitoen gonbaraketatik euskerak.

“Euskerak, nora doan jakiteko, nondik datorren aztertu behar du” esaten zuan Vahan Sarkisian armeniarrek. Haren jakin nahiak gurean askorenak baino andiagoak izan ziran. Ez dakigu agian nondiko den. Eta ardura digu, ardura? Nori ardura dio aurretikoen, asaben, arbasoen adimena eta arima ezagutzea? Memoria egiteko batzuren-tzat nahiko da ezurreraino jotea. Ezurrean *adnea* bai, baina ez dago baitarik. Hemen sikoanalisi mitoanalisiarekin lotzen da, linguistika etnologiarekin eta norbere eta taldearen arketipoak argitzen dira.

>janzen gaituen labeldun ehuna. Ez du balio Kortazubiko baserriarrak euskarean ikusten zuan magia, “euskerazko agurmari batek, heun erderazkok baino gehiago balio dau” neuri esan zidanean. “Eta hori nondik atera zegen?” ohartzeko bakarrik balio digu holako ateraldiak. Behar bada, amak esanda, batek ulertzen duen eratan Jainkoarekin mintzatzea da benetako otoitza eta ez elkarrekin euskeraz eta Jainkoarekin apaizen latinez edo erderaz ari- tzea. Horrela ez dagoelako elkar ulertzerik. Izan ere, elizako buruek halako unibersal erratuak izan ditu gurekiko eta herri apal askorekiko gidaritzan.



Argazki honetan beak goiaren ispilu izan nahi du... *Ariketa*: Aurkitu irudi honetan 7 arketipoak: **N**=ama, **T**=aita, **R**=eroia, **L**=loia jainkotiak eta **Ka**, **Ba**, **aS** gizatiak. Posible al da nortasun hoiek elkartzea? Asmoz eta jakitez, ausaz. Asmatu, beraz, zetarikoko elkarriketa daren artean... Hatarako sortu bai-zan hizkuntza: gizakiak jainkoekin elkarriketatzeko eta gizakiak elkarrekin. Hizkuntza amaren etxean asmatua izan da hitzetik gramatikaraino. Zer zegikeen etxekaltek ama-etxearen aurka, hizkuntza bera ere nastatzea baino...?

VII. AMAREN ETXEA ETA INDAR BERRIZKORRAK

Ekologiaren argiak biztu direneko, adituen gizartea indar agortezinei edo berrizkorrei begira dago geure eguratzaren emendioa eta biologiaren salbaidia bailiran eta, alderantziz, ospea galdu dute meatz lanez gizakiak lurrari ostu dizkion indar agorkorrek, ikatzak, gazak eta petrolioak bederen. Izadiak, eta ez baratzak, emandako indarrak dira, lurra heuratariko bat dela. Lurrak kanpotik hartzen du indarron onura eta uneoro aberasten dute amaren etxea. Agortezinak ere ba deritse, agorrean ere, epea luzatu baino lehen, berriro sortzen direlako. Hala euria, aizea, eguzkia eta lur mardula¹.

Amaren etxeko baratzak antxinatik zituan begiko izadiko indarrok, zeruak emanalako euria hartzen bai-du lurrak, eta tamainaz eguzkiaren beroa, bien arteko giroan sortzen den haizea eta eguratzatza

¹ Lurra, gizakia bera bezala, zerura begira dago legortean, hodeiak noiz mogiduko. Bera lurra, loia da nonbaitegandik itxaroten du ura, eguzkia eta airea. Laurak elkarkide ornitu, orduan egiten dira agortezin indar. Bizi dugun amaren etxea sortetxerik atsegina dela sentitzea da, antropia, zera hori, ulertzetik.

10º laburgoa: SENTZU HITZ-ADITZEN ANALOGIA ARKETIPOEN ARABERA

AN	UTU	ERRA	ILU	KA	BA	ASA
antz/antzi	so/sor	eri	larru	ikui	abo	esku
min/miin	otu/iduri	irudi	laztan	ikutu	abotz	txetu
mun/musu	atz/atsa	aieru	lehia	kusi	begi	jasta
entzun	adi/dasta	eroiu		ikusi	abegi	sentzun
muzin	otos'itxu	irri	lotu/lotsa	agertu	beatu	ezpain,
ñaka	tentu'dendu	eregu	loarna	gozatu	begitu	estari
nabari	dendatu	orru	limikatu	gola	begiratu	eskukatu
nozitu	sudur	orroi,		gur/gor	belarri	aztatu
mirigin	usna'usmo	urruma	limurtu	gortu	pultsu	santzu
imintzio	susmo	irrintzi	lilura	keinu	apa	seinu/sinu
enkeinu	somatu	eriaka	liar	garatz	beso	zegun

eta, betiere, azia hartzen duen hildoko lur mardula. Begiko zituen eta bizibideko zituen heinean bihotzeko eta gora begira otoizteko, lehen atalburuan ikusi dugunez.

Begiz ikusten zituen zero urdina haxe zan “ur goienen” itxasoa. Amaren mantuko kolore anila, AN zelako bere izena eta ENE/AINI berari deitzeko oihua, *nini* eta *nana* ziran bere seme-alabak eta hagaitik amaren arketipoa, bere hizkuntza ahozkatuaren lehen konsonante izendatu zuan hasieratik. Hurren UTU aitaren arketipoa izan zan, bere joan etorriekin amaren urak banatzen laguntzen diolako. Bada aitaren arketipoari ere otoi hitza zuzentzen zioten (Ikustea baino ez dago zetariko hitzak eta ohiuak egiten zizkioten Utu aitari eta agortezin indarreko gainerako jainkoei, or. 27) Amaren etxean, *ama!* deia entzuten den bakoitzean, nonbait etxeko txikiena, otoitzka dihardu eta amaren eskolako denak behingoan lortzen du “zer, lazтана” erantzuna eta bere nahikariaren aitorra bere belarriez entzutekoa edo baitako entzumenaz sentitzea eta hainbateko lorpena.

Bada begiz ikusten ez den beste indar bat, ERRA deritson, eguratzeko airea, edo haizea, hain zuzen. Ba du indarrik. Biridunentzat oxigeno bizigarria du, uretakoentzat ura bera den bezala. Eta iretargian bizi direnak? Ez dute uraren beharrik, bizi ere, han ez da inor bizi-eta. Uraren dohaia, behenipehin amaren etxe-koentzako dohaina da. Hagaitik da ama arketipo behinena.



Hasieran hiru arrautsa ziran, orain hiru aho dira, txori amearen hurbiltze bakoitzean. Abia zuhaitz andiaren ostrotan dago belar lokarriez adar xumeei lotua. Euria bada, ostropean, haizea bada, eskutuan, txori arrapariak ez dute hara nondik hurbildu, ez eta lau oinekoak lurretik. Txoriak eta gu ardurapeko gara.

7.1. Amaren etxea bere baitan

Amaren etxea, izadiari begira arketipoz zazpikun, baina “ez bai gara geure baitako”, atek auzoari idekita dauzka. Gure base-rrian, ibar, muno, mendi, bakoitzak bere tokia aukeratu eta erai-ki zituan gure arbasoen etxeak eta tokian tokiko izena hartu zuan, auzokideek emana bezala, eta horrela etxearen izenetik ezagutuak izan gara euskaldunak. Etxea *baita* > *bit*^(h) deitu dena-rran, gizakia bera, ez da bere *baitako*. “Amagan dago egia, aita-gan ezaupidea” dino *Agnostikoen ebangelioak*, 110. Bere ideko kidea bilatzen du eta jokera horri esker, sortu ziran hainbat ama-ren etxe mundu zabalean. “Ez bai-gara geure baitako” jakindu-riaz hobeto ulertzen da fisikoen *antropia hastapena* ere, hotz, bizi dugun lurraldea norbaitek geuretzako apropoz egina dena, guk atseginez “bertan gozo” egin dezagun. Beraz, Galaxiako neurtezin basoan eta haren basoko ostrotzan galdu ez gaitazan, norbait dagokela gure arduraz, gure koiten erantzule.

Bestalde, aimbatean gu geure ekintzen gihar izanik ere, ez dugu eskura gogoaren nahikeria guztia eta errezeloak bagauzka, erruz kaltetu eta besteentzako den onura agortu ere egin dezakegula, dohaneko denen indar agortezinen banaketan.

Amaren etxea izadiko indarren pentzudan eta energia ber-ritzagarrietzat ornitua dago, etxeko seme-alaben arteko aserrez, izadiko ekonomia kaltetzen edo arrapatzen ez ditugun artean. Dohainez emana dagoenetik leialki hartzea eta egokitzea baino ez dugu eta ordetan, esker onez, emaile onaren izena gorestea.

Amaren etxeak, *baita* denez, “Bestearen arketipoak” bilatzen ditu, Jung-en gardiz, hotz, “jainkozko arketipoak”. Norbere osotasunak Bestearen osotasunean egokitu nai du, jainkozko arketipoak zihurtatzen bai-dio osotasuna. Erraz ulertzen dugu, lurrak goiko ura, sua eta airea beraganatu beharra, baldin mortu gelditu nahi ez badu, baina arketipoz Ka eta Ba garen lurta gizakiok nola geuganatu ditzakegun An, Utu, Erra jainkozko arketipoak ez dugu ikusten, analogiaz ulertu ezik. Jung-en arabera², “geure maite grina eta indarkeria Bestearen menpean jartzean, Haren ardatzean sartzan omen gara eta nortasun zehatza lortzen Harengan, norbere banantasun eta bateratasun indarrak ekidinez.

San Frantziskok urari, “arriba Ura” deitzean, urarekiko nabastarrea sentitzen zuan bere baitan eta *Laudato Si*, haren kantika oroitzean, aita santu Bergogliok, ekologiarekiko ardura adierazten. “Arriba” deitu, “Ama” deitu, gizakia “mito bizia” da, Jung-en ustez, eta bakoitzak barne mitoa idoroten ez dueno, ezin ditzake uler gainerako gizatasun mitoak: norberetasuna norberaren mintzoz esaneko berba bereziaz egiztatzen bai-da. Jainkoa nor den ezin dezakegu asma. “Jainkoa ez du inork inoiz ikusi”. (1 Jon 4:12) Nolatan harengana urbil? Filosofoen bidetan baino hurrago dago geure baitan, Jainkoak bere irudira egin bai-gintuen (Has. 1,27) amaren uretan.

Euskararen ereduak mitoaztertzean, kosmologia zaharreko hastapenekin topo egin genuen. Euskara bide, hastapenok, zer diren ezeze, nor ziren azaltzean, jainko sinboloak eta antxinako hizkuntzaren arketipoak zirela konturatu ginen. Jainko arketipoetatik giza arketipoetara, izadizale kulturaren alditik gizatiar kulturara dagoen aldia dago, beste era batera esanda, kultura zaharretik kultura barrirakoa eta hizkuntzari dagokion terminologian, sinbolotik mitora dagoen aldia, edo bardin dena, monosilabismotik aglutinatura dagoena, eta psikologia aipatuz, umetzarotik adinera doan aldea. Teologia giza burubideko zareetan kateatu gelditu da. Gaurko teologiak bide berriak, azalpen egokiagoak, eskatzen ditu⁴.

2 VIDAL, J. “JUNG Carl-Gustav (1857-1961)”, DR, o.c., p.936-941

3 F. ZUBIAGA, *Euskera bere baitan (psikoaztertuz)*, 24-30).

4 F. COSTADOAT, *Teologia de los señales del tiempo* w. TD.



Txipli-txapla, urjolasa txikitatik ikasten da, kaleko lehen potxingoa ala ondartzatza. Ura denerako prestaten da: edateko eta jolasteko eta eguzkiaren galdak ibitze-ko. Nolabait uraren kide gara, bizia uretan jaio zelako eta haren deia sentitzen.

7.2.1. Amaren etxeko ur bizietan

Iturritxo bat aurkitu zutela? Hantxe hartuko zuten atanda. Errekasto bat? Bere urbilean. Amaren etxeak urarekiko murmurioak ondo jotzen zituan hasieratik. Amaren etxeko umeak ur bizietan jaioak bezala, ura bizi dute. Ez lurrian eta ez gizakiagan uraren sartu-urtenak ez dute zador ezinik. Gu bakoitzarenn soinean edan ixuri, geugan jolasten ari da, harago, geure osasuna gidatzen, “ura da, geu gara”, ariketan bezala.

Urak definitzen gaitu izakeraz, *urguri* bagera, edo *urgoi* eta geure akatze-kin, *urgun* bagara edo *ureri*. Hareago, emakumea, *ur utxa* > *urruxa*¹ da eta gizaki guztiok amaren ur bizietan sortu, umatu eta jaiotako umeak. Urarekin jolastu dugu jaio aurretik eta jaio ostean, geure kidea, gizona eta aiurria delako, hau da, gure umorea. Uraren urrumak amaren arketipoa gogarazten digu: aur umatu, amaren etxeko música, amaren arketipoa delako².

¹ Gaztelaniak *urruxa* > *orza* egiten du eta, harrigarria, latinak *uxore* deritso emazteari, berak jakingo zergaitik, latinistek ez dakite.

² Ba dino sumeriar jakinduriak: “Ezkontzea gizakien arazoa da, baina seme-alabak izatea, inkoarena”. (*Proverbios de la colección sumeria I*, D.B. JEAN LEVEQUE, *Sabidurías de Mesopotamia*) Cf: amatzea maitzea da, amakatzea, kale, porrot egitea.

Urak mendiko iturrietatik itxasora daroan abiadan arrastan daroaz harriak, eritmoki mobitzen ditu urarkan, haren ritmora dantzatu dogu, eta bare unetan, edo haren pozuan ugari egin, arrantzaleak ugaro. Amak han lixibatu umeen ugerrak, freskatzen sargoriak.


Ura eta harekin doazen aditzak adierazten dute uraren energia eta balorea: *urgazi, urduritu, urztatu, ureztatu, urgoitu, uritu, urdu, ur-tiki, ugar egin, irakin, uxuri>ixuri, mordindu, blei, edan, zirtatu, zipris-tindu, lixibatu, garbitu, ikuzi, busti, lurrundu, agortu, jarion, etab.*

7.2.2. Uraren bide luzea itxasoraino

Lur azala dena leuna balitz, oso nekagarria izango litzake uraren garraioa. Hagatik uraren doha egin zigunak, haren banaketa ere berezkoa antolatu zuan hein batean, mendi puntatik itxasorainoko bidean edonorentzat dela urarka, erreka, pozu, iturri. Uraren ornigarrirako mendi gorenak ur ormatuz edertu zituanak, gure ardura izan zuan, urtu urak agorreko sargoria freskatu zezan. Gainerako odi, kaineria eta txorrotak giza asmamenak dira. Pedarra buruan edo kantxina lepoan pauso asko ezagutu ditugu. Emakume, ur banatzaile jaioenek jasan dutela nekerik andiena. Oraintxe hasi dira Afrikan urez beteriko bidoi biribilak, gurpilak bailitzan, iraultzen. Asmatuko dute modu oberik ere.

Iturriak lurretik urten dute, itxura baten, lur beraren emaitza bailiran. Hagatik Sortaldean, jakinduria hau edatzen da: "Ez da nahiko uretan bainua hartzea. Urak nondik datozen ere aztertu behar da". Hagatik han eta hemen mendira igoteko ohitura. Mendi edurtuei eskerrak emateko, agian? Ea atxari ura darion ikustera? Zortzi milako mendi batzuk bere sekretuen gordele ormatu dira. Eta uraren baporatzeaz zer esango? Ura izotz, ura laino, ura urtzen eta "atxari ura dario", uraren miragarriak bai-dira.

Arrigarria nola dakiten mendiek, lainoak erasten, artzainak, gastaia egiteko, ardien errapeak ohi bezala. Eta esku gabe, makina gabe, hatan ere. Baina zertarako erazten dituzten mendiek lainoak? Ba, amaren etxeko umeak edarazteko. Bestela jai gendun, itxasoko ura ez bai-da edatekoa, arrainen bizilekua baizik.



Utu>su “eguzkia, sua” ez da ilintiarekin jolaserako prestatzen. “Ilintiaz jolasten duenak ogea bustitzen du” ohartzen da. Sukaldaritzan ikasteko ete? Obe eguzki plakez sortu elektrizitatea. Amaren etxean baratzeke eguzki loreak erakusten digu oparo: indarra eta antza eguzkiagandik, kolorea eta diztirak eguzkiarenak, dorua eta muina eguzkiarekin.

7.3. Amaren etxea eguzkitan

Amaren etxea, amaren ortua bezala, eguzkitara begira dago. Eguzkiari idekitzen dizkio atartea eta lehioak, haren etorrerari abegi ona egiten diola. Neguan, zenbat eta beherago dabilen eguzkia, orduan eta sakonago sartzen da amarenean. Amaren etxea eguzkiak pozten du. Amaren etxeko balkoian eguzkiak sikatzen ditu zapi garbituak eta soltzen ortuan lekadunak.

Amaren etxeak Subilaroz ospatzen ditu neguteko otzak eta sutea eta zuhaitza eskaintzen dizkio ornigarri, osterara ere, Jotean eguzkia goralduz, agortezin indarrak ekidin daitezeino.

Aitak sugarrien arduraz, teila ordeztuz, eguzkiari indarra erasten dien plakak ezartea erabagi du. Horixe dela indarririk garbiena erabagi dute etxean. Eguzkia, arketipoz norbere *Utu>edu* “modelo” *doia* da, *ide* “nor” berez argia eta *>kide* onena. Nori *itandu*? Eguzkia bidea da, gizakiak asma dezaken *odu*⁽⁹⁾ “biderik” zuzenena eta *doru* xegunena Zeru Amarekin topo egiteko. Hagaitik *Iduski saindua* ere, zurean zurtu edo harrian harritu zan zenduaren hilobi buruan, sinboloak gunari tira eginik, giza etorkizuna zihurta zezan.

Uturekiko ekintzak gurean: *tuldu>suldu>soldu*, *tot* egin, *torratu>jorratu*, *tortu>sortu*, *tolatu>solear*³, *tostatatu*, *duindu>duntu*, *sutu*, *sugartu*, *sorosi*, *sokorritu*, *soberatu*, *sogeri*, *soildu*.

7.3.2. Eguzkiaren bide luzea

Urak uretan du atsedean, ibaiak itxasoan, baina *Utú*, eguzkiak non du ostatua? “Hantxe, *Tollo* deritson mendiko atoilan”, “*Ostemendi* deritson mendi *ostatuan*”, “*Mendotza* deritxon mendi *ostean*”. Ama eguzkiz dundu zerupearan edo izarratuan jesarrita, eta eguzkia, bidaztia lez, beti ibilian, “goiko eta beeko artzain”⁴, [...] suak bezala, zuk lau alderdiak gartzen dituzu”¹², [...] “gari soloen eguneko bizarra sututzen”¹⁸, [...] mendi gainerara apaltzen zara, lurrari so egiteko”²¹, [...] itxaso sakoneraino jaizten”³⁷, [...] egunez zoaz eta lo egin barik, zatoz itzulian”⁴⁴ [...] zure juzo zuzenak ez dira atzeratzen”⁶⁰, [...] alderraierei eta bidaztiei babes-urriak erakusten dizkiezu”⁷¹, [...] Erregaliak arbuiatuz, apalen auzia aldezten duena da Shamashen laguna”¹⁰⁰, [...] hil erratuak, gerizatu galduak zure aurrean dagoz, Shamash, eta zu, denen adi”¹⁴⁵, gizonezkoen kurunnu gozoa edaten⁷, [...] ze mendik ez du dizdiratzen zure argia⁸?”

Beti ibilian eta bidelagun⁶, *Utú*>*ide*, *bide* eta *kide*, *juso* zuzenaren aintzindari, hitz eta itunaren itú duin, *dotore* duztiekin *dostatzen* dakiena, gure mendiek eta euskarak berak aitortzen duenez. Eta bizitzako bidea luzea denez, *Utú* berari *otoi*, berari *dei* “beti entzuten dituzu, zuri *deadoz* dei egiten dizutenak”⁷.

Eguzkiaren eguneroko bidea “emaiguzu guri gure eguneroko ogia, barkatu gure zorrak”. Halako bidelagunagan “zendu erratu eta gerizatu galduak” euskal etnografiak ondo hartuta daukanez, gure ateetako Eguzki lorean, “su gabeko etxia, odol gabeko gorpuzta”, edo Eguzki Saindu izeneko harrigizonak hilobietan.

4 *Himno a Shamash*, 2. Cf: *Utú*^(s), akadieraz Shamash da.

5 *Ibidem*, 174

6 Gure asabean usteak zirela-ta, Iruina-Beleiako karistiarrek K. Geroztiko III-an, ezin zegiketen kristinauen otoi-tza “Gure Aita zeruetan zarena” euskeratu, “zeruetan zarena” Ama delako, eta hagaitik “*Geure Aita sutan zarena*” euskeratu zuten. Izadian ikusten zuten bezala, aitortzen zuten.

7 *Koru*>*koruena*>*corona* “garagardo onena”, Sumerreko ospakizunetan aipatua eta gaur bertan konsumoko marketan gailentzen denetarikoa.

8 *Ibidem*, 174.



Uso, urso zuria egan, aire jabe eta aizerrotak airearen morroi. Arnasaren aireak bizi gaitu. Biri betean arnasa hartzea atsegina da. Edozein erregarriz arnasa pozoitzea geure buruari eta aldamenekoei egin genezaioken bidegabekeria.

7.4.1. Amaren etxea eta airea

Etxeak aireari lehioak idegitzea, norberak arnasa garabia hartzea bezala da. Etxea aireatu ezik, umelak edo lizundurak hartzen du, eta norbere umorea bezala, muzindu egiten da. Haize zakarrez bai, “hitzi haizeari teilatu geinetik joaten” esaten zan, eta, haize gozoari, lehio t’erdi”. Teilatuko haizeari ere, oraian errota-txo biratzailea aurrez ezarri eta etxerako argi indarra aurreratu.

Amaren baratzean ez zan tabakorik ereiten ez kanabis bedarkirik landatzen. Hori gaurko erratuen labankada bai-da, tabakok artoak baino diru gehiago egiten ebalakoaz, edo negutegia aloguran hartu zutenen okerra. Argiako esanda, ekonomiari mardo, ekologiari kate, poltzeari on, osasunari kalte. Amaren aholkua baztertu eta “bide barriak” ezagutu irrikaz erretzen hazi eta drogaren morroi akabatu: deslegeko askebide askoren eskarmendua.

Aize garbiaren atsegina egin biriak laster nekatzen dira erre-garrien ketara. Airea eskatu eta kea pafatu egingo diezu, bada, zeure biriei, arnasea eta estula nahastuez? Esnea eskatu eta ume-ari kalimotxo ematea baino txarrago da hori.

Amaren baratzekeo bedarrak eurak ere *espiritua* dute eta sendabedarron saldan hartzen da, bai eta euren baporea arnastuz. *Espiritu* izena erdalkeritzat daukagu, hala eta guzti, *asperatzen* dugun airea horixe da latinak *spiritus* deitzen diona eta gero,

albora begira burua orrastu duten gazteek, latinetik datorrela erakusteko³. Euskeraz *asperatu*>*espíritu*>*spiritu* dator fisikotasunetik baitara=psikera. Egorik gabe ezin daiteke egin egaz, ez airerik gabe ere. *Asperatu*, ez *aspertu*, aire garbia *asperatzen*.

7.4.2. Amaren etxea eta espiritua

Jainkozko hiru arketipoen batasunak badu Hirutasuna azaltzeko oinarririk Teologia mailan. Jatorrizko ama eskolak jainko sortzailatzat dauzka gainera. Amaren etxeko eskarmendua lagun dugula, matxismoaren kontra-eskolak ez du apurtzen hirukoitzaren batasuna eta harago lurtar gizakion osasuna euren eskuetan dagoela. Ama, Aita, Espiritua hirukotx arketipoa da, Jainkoak bere irudira sortu bai gintuen (Has. 1, 27). Gu, sorkariok, zer beste kategorietan uler dezakegu Jainkoa? Lur arketipoa, hum, ezbaikorra zan sumertarrentzat⁴. Lurak ez du ezezten, urgazten baino?


Amaren eskolak baitara deitzen gaitu: norbere baitan aurkituko dugu Bestearen arketipoa, Jung-en oharrez. Jung teologo ona da sikoanalisian, hodeietan galdu filosofoa, oster, eritsi utsa, beraz, herexea⁵ bere burubideetan⁶. Giza grinaz gogara deslari jo zu-

3 Ez dugu Unamuno aipatu beharrik. Haren ustez euskerak *gogo* esaten du "larri naz"=gogo daukat" edukinaz. Uste ustela, *koko* barruan frutaki ustelduak lez. *Koko*>*gogo*, analogia polita, "barneko kezka" adierazteko. Euskerak ez duela "materia" ez deneko *ideak* adierazteko izenik? Eta *ide* izena nondik dator, bada? Eta non dago Ka ez duen Ba gizakirik? Hemen dago teologia espiritualista baten akatza ere: hodeitan begiak eta oinpean oinarrik ez. Teologia ere, zuahitza bezala, lurrean ondo errotu, gora ezpadoa, ustekerien kea da: magia utsa. Molde berriak zor zaizkio teologiari. Gainerako gauzetan bezala, ekologia pizka bat *ekoteologia* izan dadin.

4 Sumertarrek ez zuten Lur arketipoaren jainkotasuna aitortzen, hilkorra zelako eta hilkorra ezin daiteke izan jainko. Deabruzko norbait bezala hartzen zuten, *alu*, *auleri* gaitzaren sorle. Ugariten bertan erdi *lo* aurkitzen dugu *Ilu*. (Ikus or. 43) Aldikadak ditu, *lokatu* edo *kolokan* darrai.

5 *Eritsia* nor bere "opinioa" da, nausiarena barik, bere eritsiarekin gelditzen direnak dira *herexiak* grekoentzat. Besteen *eritsia*>*herexia* askorentzat, baina hitzak euskararenak, geureak dira, edozelan ere.

6 Ohar Menphisko Ptah-ren abadeena: Ama eskola ukatu zuten (ikus or. 51) Ohar Babiloniako apaizena: Ama Jainkoa erail zuten. (Ikus. or. 55)



Utuk odeiak sortuz, osoko jotea tutatzen du otan, uden odia, txorrota egiteko adi dago. Adarra jo du, trumoia da, laster da eudia tarrapatan, amaren soloan, zaparradan amaren etxeko itozuran, solora bideko istiletan, txipli-txapla. Haizeak, txistu fin eta tuta larriez erantzuten dio, bada Utu den odia eta airea soinugile aproposak dira gure dantzetan...

ten abade eskolan heuren sasieskolak zuritzen, gainerakoari ez ikusia egin eta ukatuz. Eta arazoa geure baitan dago: Espiritua ez da ikusten, sinboloz geure biriak asperatzen duten espirituaren antzekoa da. Bizi berezia du gudan, arnasa, oxigeno bizigarria gudan, espiritua den bezala, eta surziloen bi lehioak ideki, uneoro.

Maitasuna dela dinoe teologoen. (1 Jon 4:8.) Non da maitasuna? AMA+AITA > *maita* arketipoengan ikusten dugu, hitzetik ortzera, *maitasunaren* sorgua. Amari konturik ez ematearren, eginiko igesak dira gainerako *eretxi* > *eresiak*, Set-en⁷ aserreak Orus/Urso/Ortziren kontra bezala, Ator amaren etxera ez itzultzearren.

Orzi/urso egoak aidean, Urzi bera da mitoan eta hirugarren pertsonako *Erra* arketipoetan, >*aire* (espiritua), >*era*, gramatikan.⁸ Egurata, airea, espiritua asperatzen dugu uneoro birietan. “Zer da hiltea? Arnasa galtzea”, dino esakerak. Lurraren gaineko espiritua akitzen zaigunean. Espirituak balia gaitzala, Jesusi bezala, orduan agertuko bai-da gure benetako nortasuna.

7 *Set*^(k), *setati* > *setosoa*, *Setena* > *Satan*^(h) eroi galtzailea izatera eldu zan. *Arrano*, *Senteno* izen iraingarriak erabiliak izan dira Bizkaiko baserrian.

8 Hirutasuna azaltzeko gramatikazko hiru pertsonaz baliatu nintzan *Gizakia*, *Hirutasun irudia* (2000), konturatu ere egin gabe, *ni*, *zu*, *era* = Ama, Aita, Espiritua heurak zirela arketipoetan ere hirurak: ezinbesteko hirurak, gure baitan ezeze, gure soinean bizi direnak. Heurei esker bizi gara-ta. (Ek.17:28) Eskerrak hirukoitz indarrari bizi gara lurrean lurtarrok, eskerrak *ura-sua-airea* hirukoitzari. Oraindio ez dugu ezagutzen Jainko Bakar eta Hirukoitza zertan den, baina hori ez da kimika aztergarria.

7.5.1. Amaren etxea eta lurra

Lurra egarri da, amaren etxeko baratza bezala, laster da lainotan ekatxa. Umea egarri da, “ama, ura” eskatzen du, amak baso ura edarazten dio. Lurra eta lurtarrok AMAREN pentsudan gagoz. Askorentzat lurrak, beste inungo energiarik behar ez bailuen, jainko Amalur aipatzen dute, hotz, amaren etxeko eskola ukatu eta, grekar klasikoek bezala, Gaia jainkosa aitortzen, edo Erromak bide beretik, Mater Tellus kopiatzen. Jo sakonago, arketipoen sadorrak aztertzeraino. Ez begitu albora, ez jo ulertezin zaizuen, ego-amerikar jende jatorren Pachamamaren bularretara. Zelan uler dezakezue auzokoen sena, arinkeriaz etxeko amaren zilbor estea ebaiten baduzue?

Ama Jainkoa ezagutu eta, argitze ariketan joan erromes bere oinetara. Ausaz, ba du gure Amak mendian edo ibarrean, oroitzapeneko harri bat, koba ezaguna, ermita bat, gero Ama Birginari-edo egotzia, sikoaztertuz barrenak, eta horra arketipoa. AMA da, ama eskolak erakusten digunez. Ur utxa, gure AMA bera da, beretik edaten ematen diguna, inutzen gaituen *NUT inude* prestu, ta eskolatzen gaituen *MA.AT*>*Maidi*> *maitea*, *Ama+Aita* lez, agertzen zaiguna.

Amaren etxeko eskola, etxeko ortua, amaren baratza. Hango lur mardulean ikusten da, elementu bizigarrien miraria (ikus or. 61). Ez da bakarrik lur mardularen frutua. Lurra berez, Marte bezain mortua litzake. Ur bariko lurrak ba ditu mortu galantak hainbesten eskarmenturako. Lurrarekin ura, eguzkia eta airea, lau dira mirari horren egileak. Gure asabek jainko sortzaileen izenak jarri zizkioten eta heuren izenak eihagoratzuz, inoak inotu, otoiak otoiztu eta erresaz⁹ errezatu zituzten, jainkoekiko harremana armonikoki erraztuz, ama hizkuntza asmatu eta osatzén zutela goiko eta bekoen ulerpiderako¹⁰.

9 *Erresa*>*arras*, eskongaiek opariz aurreratzen dituzten seinu edo agintzariak, gauzea *errazten* eta bideratzen joan dadin. Hori da *erresua* ere, gizakiaren eta Jainkoaren aurreran, *ersu* koptoz “arenga” den bezela.

10 Aldi bateko gramatikan ariketa hoiei “oraciones gramaticales” zeritsen. “Biraua!” esan zuten, amaren eskola atzindu irrikaz konturatu ziren gizakerrek. “Ez dira “orazinoak”, “perpauusak” baino. Memoria atzindu nahia. Gramatika horrek ez zuen bakean uzten Nietzsche gurea eta nork jakin gure amaren hizkuntza “normalizatu” zaleak noraino konturatzen diren.



Konposta egiteko, kontu zaborriaz landa, ura, bero epel berdindua eta airea behar direla, horrek bai dira indar berriztakorrak. Epe laburrean amak eskuetan hartzen duen lur mardula izango dira. Gai eta ariketaren apalak ez digu nabariarazten eskuetan dugun miraria. Orain umeek ama eskola daukate.

7.5.2. Amaren etxea eta lurraren zoria

Lurra lantzeko eman zaigu eta ondo landuak ematen du frutua. Lurra gaisotzen ari delako kezka dago, ordea. Zerk gaisotzen du lurra, maiz norbera bezala, gizakion larregikeriak izan ezik? Gure eskuetan zori ezbaikorra du lurrak, izadiaren arabera, uraz, eguzkiz, airez eta ongarriz laguntzen ez badiogu.

Lurra gaiso, lurtarrok eri. Sumertarrei susmogarri egiten zitzaien lurraren arketipoa edo nortasuna. Ez zuten *Ilu* jainkotzat, Jainkoa hilezkorra bai-zan eta *Ilu*, ostera, *hilduratu*, *hil* aginean zekuselako. *Ilu=alu* zan heurentzat, gizakiaren *auleria* bera. Lurrak, amaren baratzak bezala, ez zeukan beragan itxaropenik, ezpaere, goitiko ura, beroa, eta airea dira baratzaren bizia. Gizakiak, halaber, hirukoitz goitarron mesedetan du itxaropena.

Ez deitu, beraz, amaren etxeari *Amalur*, denetan burunahiko baillitza, ez berdindu *GeB^(k)* eta *Gaia^(g)* grekar klasikoek bezala, ez kopiatu *Mater Tellus*, latinak antzo, ez uste bolibiarren *Pachamama* denik ere, amaren eskolako dena ezin daiteke kolonizatu, amaren baratza bezala, landu, ongarritu, laiatu, goldatu, atxurtu, eta giro onean erein, landatu, jorratu eta itxaron baino. Gero uztaroan esku beteka lurreko frutua jaso eta etxea "lausaturaino betatu".

7.6. Amaren etxea, teologia hezlea

Berrizten denak irauten du; zaharra lurpera doa eta berria berriz ernetzen eta jaioten da, amaren etxeko ortuan bezala.

Indar berrizkorrak dinoskue, Espiritua ere denean dela berriztaile eta bizi dugun kosmoa ezagutzetik aurrera pausu librea egin genezakela, Sortzaileak gurekiko dituen harremanetan.

Sorkuntza ezagutzen dugun eran, ulertzen da Jainkoa ere. Sortzailea Ama bada, Ama Jainkoa da. Sortzailea Aita bada, Aita Jainkoa da, baina mitoek eta antimitoek gaurdaino erakutsi diguten bezala, amatuz edo amakatuz gerta ohi da. Jainko sortzaileari, sortzaile den eratan, eta arpegia erakusten digun moduan ezagutzen dugu. Ama, bere etxetik aldendu edo, sukaldera uzkur-tu zutenen erlijinoek ez dute giza bihotzean sustarririk.

Sorkuntza misterioa antropiaren hastapenean, gizakiaren one-rako, amaren etxeko seme-alaben ugaltasun eta gozamenerako asmatua dago. Gizakiak Jainko erreinu horri sor dio, Nazareteko Igarle Jesusegan iragarri zaigunez: "Ez bildurrik izan, siniste gutxikook". Sortzaileak sortarazten ditu zelaiko loreak "Ikusi lirioak zelan hazten diren; ez dute lanik egiten, ez hiruten; baina neuk dinotsuet Salomon bera ere haren aintza gorenean ez zela jantzi eurotariko bat antzo". (Luk. 12:27). "Horra zeruko txoriak, ez dute ereiten, ez uztatzen, ez kaixan gordetzen; ta zuen Aita zerukoak mantentzen ditu. ¿Ez ete duzue balio zuek eurak baino askoz gehiago?" (Mat 6:26) Bideari jarraituz, bidea egin.

Nor da, beraz, amaren etxeko baratza biziberritzen duen eskua? Amatu, ala amakatu da arazoa. (Ikus or. 54) Magiazko teologiak, aitatiarrak, berez amakatu egiten du, Ama Sortzailearen erraia sorkuntzatik astantzean, haren eskuen ekologia eredia gizarteko egitasmotik baztertzen du. Kristorena deitu eliza bera ere errudun da, kosmoko ekologiak jasan duen galpenean, Jainko egile maitatia barik, Jainko ahierkor eta zigortzailearen irudia jarri dielako gizakiei espilutzat eta ez Amaren esku leuna eta guk bezalako ume mintsuek behar gendun altso maitakorra. Jesusek ez zuan egingo holakorik! Eta ez zuan egin. Bidea egina dago.



Amaren etxeko baratza ia museu bihurtua, negute aldian ondo laiatu, aretu, atxurtu, ongarritu eta emanaldi berrirako gertu. Gizaldietako asaben, jaiotetxe, jarleku, eskola, santutegi, etxe maitagarria, harrian oinarritu, zurezko zutabez jaso eta harriluz ornidu eta karez zuritua, karistiarren tankeraz asmatua, balkoe zabal, atarte oparo, sortaldeko eguzkiari begira. Gogotan dugu zure eredua

VIII. AMAREN ETXEA, MEMORIA

8.1. Amaren etxea, memoria bizia

Memoria bizia eta bizien memoria zutunik dago, gure asabek eraiki zuten monumentorik ederrena bezala. Euren otsantasunean lurraren jabe izan ziran, lurra geure izakeraren arketipo den neurrian, eta horren ezaguerak sorkuntzan partele egiten gaituen neurrian. Orain, lurrarekiko sustarrak galtzen ditugun neurrian, dena jainko Diruari saldu arriskuan dagoela...

Orain etxegintza berriko teknikak agintzen du eta nork jakin noraino iraun dezaken kabiaganako gure apeguak edo kaleak erantzungo duen baserriaganako arduraz! Bera, baserriko amaren etxea izan delako, gure eskola, euskararen gordailu, izadiaganako lotura eta Egileaganako ezaupidea.

Apaiizen aginteaz gero, eleiza errakorraren ostean, hein batean herriak, buru jabe egin denez, berak jarraituko du asaben memoria, ustelkeria denen gaisetik, amaren etxeko baloreak aldeztan.

Turismoak ezagutu behar gaitu, baina sakoneraino; ez jatetxeren amuzkotik bakarrik, baita gure aurretikoen baserri ondasungarri eta apaltasunean, batez ere geure herri kultura eta gizarte gobernutik, hotz, euskerak ahozkatzen duen memoria sakontzetik, gure herriko Lege Bildumak baino harago eta garbiago baidoa European, *Europa* hitzetik ortzera, tokizenak jaiotzetik eta



R.M^a Azkue 1864-1951 J. Azpeitia 1888-1980 J.M. Barandiaran 1889-1991 J. Caro Baroja 1914-1995

Memoria ona utzi ziguten, euskaldungoaren ikerlari argi eta sagaratuen lauko honek, dela hiztegian, irakasgintzan, etnografian eta historian, eta hiruak, euskal munduaganako maitasunez, bakoitza bere sailean, gailendu ziran. Euskal ikergintza aleginetan aintzindari eta eredu txalogarri...

hara, urak bere bidean egin uharka bezela, edo eguzkiaren egunak zuhaitz emborrean bildu aroak lez. Zati bat argiago, ezjakinaren edo, indoeuropeistek iragarri erratuen geruzan baino.

Amaren etxeak, tantaiak bezala, bere adar galduen arrastoa uzten du enborreko adaboen markan. Memoria argiena mingarria izan ohi da, Gernikakoa bezala, jasan kalteen oroitza eta agiriz idatzien historia ere denez gero, geure zenduen oroitza da, geure izenagatik bizia eman zutenen akordua, kristinauek Kristori bezala, eureri omen egin eta eredia jarraituz.

Amaren etxea, lurraren erdian, kosmoko indar berrizkorrekin batera jokutzen duenez, indar hoiei galdetuko diegu, gida bat emon diezaiguten. Bakean bizi al gara urarekin? Garbitu al dugu arnastu behar dugun airea? Uda-neguen arteko ots-beroak gozatzeko neurriak hartu al ditugu, amaren etxeko lurak bakea izan dezan eta hurrengo urterako lur mardula gertatu?

Amaren etxeko zazpi zutabeak, amaren eskola ornitzen zuten, Sumerreko zazpi jakintsuek bezala¹, hoiek dira bere memoria iraunaren lekuko, indar berriztagarri. Zazpirei galdetuko diegu.

¹ (*Gilgames*, I,19) Cf: Grezian ere ospetsu izan ziran zazpi jakintsuak, "ama eskola" aurkakoak, hatan ere. Sumerrekoak, Greziakoak baino, bi mila urte aurreratuagoak izan zirela bakarrik.



Urak arruetan lurrak arrokaraino zulatuz, ikuskizun harrigarriak egin ditu Kakuetatik (ezkerrean) itxasorainoko bidea eginez. Geologoek zehatz azter ditzakete, urak arrokan egin aleginen marka, urak igaranean bere memoria usten digulako. Ura sentitu, harenganako sentikaria biztu, ura izate-tik espiritu bulkora iristeko.


8.1. Uraren memoria arrokan

Amaren uretatik jaioa urarekin jolas atsegina egin zalea da: (Ikus or. 91) putsura salto, igerian egin edo jolaskidea zipristindu, elur pelotekin jolaskidea aparatuz. Uraren memoria bizi du, ura edaten du egarri denak, uretan dutxatzen eta garbitzen gara. Amaganako jokerak ba ote du uraren memoriagaz zerikusirik?²

Urak menditik itxasorainoko joanean, bidea ostopatzen dizkion mendiak zulaten eta, bideko harriez baliatuz, arroka igatzen ditu, arroka igatzen da, ez ura: “urak tantoz tanto, harria zulatzeraino” dino jakinduriak. Hala eta guzti, urak gazte irauten du, igaduren lorratza lurrak jasotzen duela, Lurra arketipoz *Ilu>old>ola* eta *aula* delako. Urak ba du, lurrak ez duen arrakasta, eta energia.

Otzaren otzaz, ura jelatzen denean, mendi gainetik bera, mingaina antzo, murrueak luzatzen ditu, izotza ibituala, harriak arrastan, arruak idikitzen dituela eta ibai berriak sortarazten ibonetatik zehar. Eguzki galdaz berotzen deneko, ostera, ura lurrundu egiten da eta beste txango batera prestatzen, airearen egotan, zero-lurrak eta eguratza, bere etxe eta esparru orokorreko egiten dituela. Urak denborá bera ere aldatu ezeze, berriztu egiten bai-du, lur egarritua asetzen duen eritmo berean. Hein batean, uraren misterioko ume gara eta haren bidea jarraitzen dugu, ez poetika edo ekologia mailan bakarrik, bai eta arketipoen bulkoan ere, uraren sorle den artista harrigarria sumatu eta ezagutzeraino.

2 Eta, halatan, errai suborogatu ez jaiok zeinengana intsigiduko dira?



Jung 1875-1961 Bachelard 1884-1962 G.Durand 1921-2012 I. Gebara 1944-
 Aldi barrien bidegileak: Carl Jung, giza baitaren sikiatryan, Gaston Bachelard, hitzaren iturri eta iruditeria azterketan, Gilbert Durand, mitoetan eta mitokritikan eta Ivonne Gebara, emakume ikupegitik egin teologian. Ikus IX atalean

8.2. Argiaren memoria enborrean


Argiak eta urak tantai erraldoi egiten dute lurrean ondo erro-tu den zuhaitza. Arratian urtero neurtzen dute aretx baten gerria, urteburuan ea zelako proba egin duen jakiteko. Zerbait holako egiten dute gurasoek sukaldeko orman umearen buru paretik hara egin arrastoetan, urterik urte alturan hazi dena ospatzeko.

Eguzkiaren argiak bere energia eransten dio zuhaitzari, amaren etxeko barazkiei bezala, klorofila urdin eta orlegi den sintesian. Klorofilaren koloreotan, erdia inguru, *anil-dundu-urdin* dira eta *berde=orlegi* beste erdia³. Ezkerrak koloreoi, gure begiak ere ikusgarrion lekuko dira.

Zuhaitz enborrean ezeze, eguzkiak bere arrastoa uzten du giza soinarean azalean ere, gure larruan, hain zuzen. Zuhaitzek eta barazkiek ostroaren pantaila eta haizea dute UTU-ren energia nehurtzeko, giza soinak, soinekoen moda, ungentuen babeseta eta gainerako bizi ohiturak ditugu, giza familia alde batean zuringo eta bestean baltzingo emateraino.

Lurrean urarenak beste, eguzkiaren eta airearen seme-alabak,

3 Hiru izenok lehen hiru arketipoen eredutik sortuak dira eta hor jarritako ordenan: AN, ama arketipoarena ANIL, UTU, aita arketipoarena DUNDU, eta ERRA/URTZI eroi arketipoarena URDIN. Beste izen gehigarriak BERDE forma gizatua da eta ORLEGI, analogia berantiarra, "orriaren koloreko" dinona.



Eguzki argiak enborrean utzineko aroetan eta haren galdak giza azalean utzitako memoria kolorean daroagu. Landaretzan Urtziren aroak uzten ditu enborrean, gure soinak melanomen arriskuraino har genezaken erresumina, UTuren diztirak bitaminak bai-dauzka

baina funtsean norainoko gara dugun ez dakigula.

“Eguzki seme-alabak garela” xurxulatzen digute *guru*⁴ batzuk zuk eguzki arketipoak gizakiagan duen memoria osotu nahian edo eta *UTU diztira* larregiak *itxutu* ez gaitzan, betaurreko beltza ezarriz, amesen *itua doiki atxi* al dezagun geure arketipoetan, izan ere hiru elementuon bateoaz sendatuak izan gara⁵.

9.3. Airearen oroitzatza dantzan

“Haizeak, espirituak, nahi duen aldetik ufutzen du, baina ez dakizu nondik datorren edo nora doan”(Jon, 3,8), ez dugulako ikusten. Hala eta guzti, gure meteorologoen orain haizearen norabideak eta indarrak nehurtzeko tresneria daukee. Geuk ere gure birien findura eta sentiberatasuna ezagutzeko abagunea dugu osakidetzan⁶. Arraintxoak sakatzetik hartzen dute uren oxigenoa, guk birien ehun samurretik airearena. Askok mugo-

4 *Agure*>*guru* dator, herriaren izenean jainkoei *kur*>*gur* egitera prestatzen ziran. Erromatarrek *kurioek* eta *augurek* antolatutako zituzten euren izeneko nortasunekin, herrien erlijinoaz baliatzeko zuten halako arteziaz.

5 Halan dino Mateok, Juan Bateatzailearen agotik: “Nik urez bateatu zaituztet [...] Berak Espiritu Santuaz eta suaz bateatuko zaitue”. (Mat 3:11)

6 Aini, amesetan-edo ausnartu, errepikatuz, gogora ahal bagendu, jaiotze unea, urak utzi eta aireari bide eman genion mementoa! Uretatik urten eta lainotan sartzea lez izan zan, ugeriketak aztu eta laino gainean ibiltea bezala. Nork ez du noizbait lainoen gainean ibili delako amesez gozatu?

nean ezagutzen dute birien kolorea eta osasuna eta zeozer arnas-tuaren ondore ezbaikorra. Egarri denarentzat, izan ere, ez dago ur garbia baino edaki hoberik eta bizi nahi duenarentzat, aire garbia baino arnasgai atseginagorik. “Zer da bizitzea? Arnasa hartzea. Zer da hiltea? Arnasa galtzea” dino argi herri jakinduriak. Hala eta guzti gurean %12 birietako gaitzaz omen doaz...

Herriak pozezko kantuz ospatzen du bizitza “airerik ederrenetan” esaten den bezala. Musikaren guruek berea lagundu digute bizi atsegina dastatzen eta aireak gure estarrietan aurkitzen duen ereskinaz baliatzen dira. Ze abeslari, noren ohoretan ari gara barne durundiak kanpora ateratzen? Orduantxe da behinik-pehin, gizakia mito bizia, bere baliagarriak indar berriztagarriekin bat egiten dituenen, hotz, bere arketipoekin topatzean.

Hori dela eta, esan hoi da “koruan abesten duen herria ez da hilgo”, arnasa hartzen dakialako zihur. Harago esan genezake, “bere bandan dantzatzeko duen herria ez da hilen”, bera inutzen duten arketipoez baliatuz, indar berriztakorrez bat egiten duelako.

Aldien aldiko eta sasoiaren sasoiko ospatzen dugu bizitza: neguan era batera eta udan bestera, umetan algara, gaztetan dantzara eta eltzaroan albaka. Eta beti ozenkatzen dugu, lege denez, “hau dok umorea!”⁷ geure burua neurritz aztertzen dakigula, hotz, izadiko indar berriztagarriekin dugun oreka baloratzen dugula.

Eta ondartzara goazenean, eta jantziak erantzten ditugunean, zer dugu amesago, uraren freskura, eguzkiaren txera ala haizearen musua? Hirurak bai-dira guri bizia eman eta ematen digutenak eta hirurak gure zoriaren lekuko, hirutasun ona, beraz, hirutasun ulergarria. Dena ez da Jainkoa, baina Jainko sortzailea denean eta denetan dago⁸, amaren etxean, ama bera bezala.

Goazen dantzara. Fandangoa dantzatuko dugu eta bide batez, elkarren soinkera eta humorea zertan diren ezagutuko, bada musika⁹, kantua eta dantza asmatu zituzten gure guruek, halako

7 “Edurra teilatuan/ sakua lepoan/ ibili beharko dogu/ aurtengo negua-an.../Tralala, tralarala...Hau dok umorea! Itzi alde batera/ euskaldun gentea”⁸.

8 Panteismo *eritsia*>*erexia* ematen da, baina panenteismo “Jainkoa denengan”ontzat hartzen da, hotz, Jainkoa denean dagoela sinestea.

9 “Musika, Jainkoa goresteko zela, esaten zuan Juan Sebastian Bach>



Haizea dabil aidean/ itxasoko ur geldia kirrutzen du/ auspoari *doinu>soinu* dario airean/ dantzarien gona-brusak haizetan kosmo birako arkuia irudikatzen dute. Ikuskizun mugikor, atsegin eta bizkorra airearena, gizakien espirituarena bezala.

herri jakinduriaz, indar bizigarri eta berriztagarriak uztiatzen laguntzen digute, pasinoarren¹⁰, “aire”, “su ta gar”, ohi denez, edo Kristonak pasatuz¹¹, ez ibiltariaren igaro ganoraz, ezpaere, etsaiaren erasoak jasanez eta, behar bada, herriaren alde bizia emanez.

Espiritua argia izan zan, onartu zutenen mingaina askatu eta apostoluak hizkuntza ezezagunak mingatzera bultzatu zituenean. Hortik ezagutzen dut gure artera bidaldutako gotzain batzuk ez di-rela herriaren begirale, ez dutelako euskara amaganako abegirik¹².

>musikari gurenak, Inkoa goresteko eta bide batez, gizakiaren atseginerako”.

10 Agus Barandiaran trikitilariak, eta horretan benetako guria denak, “pasino” aitatzten du beragan, dantzariei auspoa ematen dienean. Pasinoak “Kristonak” aipatzea eta jasatea ere esan nahi du. “Kristonak” aipu zaleak gara: izerdiz agortu, egarritu, odolustu, eta bere pisu guztiaz abeari iltzekin josia eta arnasa ezin harturik, kolpean hiru energioz gabeturik, hil zena/ erail zutena. Gu garen elementuak, lau elementuen artean! Urei bidea emon, ez diezaigutela *urak gañditu urgaindu>hurricane⁽ⁱ⁾>hurascán* sortuz, ez daitezen geure buruen gainetik igaro. Urez eta lehorrez ontzia edo gurdia gidatzen jakinak gara.

11 *Pasatu>pastu* ahozkatzen da Baztanen, *Baskua* bera da, ibiltarion *pausu pasakorra*. Besterik da *Adu>Patu* datorren *passu^(l)>pasino* Kristok jasan. *Adu>Patu* gizatzen da eta Sumerren *patutu^(eus)>Pazuzu^(s)* dator “nekalduaren” piura, gaurko erderek ere *pachucho*, *paxuxo* “gaisoti” erabilten duena.

12 Handia da gure gotzainekin gertatzen dena. Begirale direla? Ez dute begirik. Herria bere nortasuna argitzen doalarik, eurak beste alde batera begira bizi dira. Nonbait gurekiko euren eginkizuna amaitu ordua delako seinale.

8.4. Amaren etxea, eskarmendu gordailu

Eskont egunean ezkonkide gazteei ohar egiten zaien bezala, “onean eta txarrean”, elkar bizitzak iraupena eskatzen duela eta maitasuna bakarrik da erronka horri aurre egiteko, hotz, maitasun grinak menderatu ditzakela gainerako pasa beharrak.

Amaren etxeak hatarako hezi gaitu. Ama-aita bikotearen eredutik antz eman diogu bizitzari: jaio gara, seme-alaba gara, pozik bizi gara, gure gurasoek gure etorkizunaz arduratzen diren neurrian. Geure egazkadetan ere, amaren etxea beti idegi aurkitzen dugu, gu urbilean bizi bagara behintzat, besterik da, halabeharrrak bultzatu, gaztetandik atzerrira jo behara izan dutenentzak¹³.

Nork ez du egin itaurren¹⁴ mutiko edo neskato, aitaren idi parearen aurretik? Nahikoak dira zazpi edo zortzi urte itaurren egiteko, baina bai aspergarria, batera eta bestera eta adi, barriz, ibili beharra! Amaren etxeak denentzako du eskola eta pratika, hau da, eskola bizia, amaren irribarea ikusteak denak pozten baiditu. Hor dago segetua, bestelaz, “maitasuna” ere baderitso.

Eta zeinek ez du egin ursun iturrira osterarik, pendarra edo kantxina hartuta? Pedarrak eta kantxinak museuan dagoz jada, iturria bera etxera erakartea geure egunetako artesia izan delako. Lehenago izan zan sua, gero ura eta lehioa aireari, jakina, hirukoitz perfetua eta laugarrena amaren baratzeko, aitaren soloko mana, etxeko mahaikideak etxeko arazoan parte direlako.

Amaren etxean ez da eguno langabeziarik izan, kalean maiz gertatzen den bezela. Lurrak askoren eskua behar duelako eta lantegiko makinak, ostera, makinaz egin daitezkelako. Bat amaren etxeko eskolan ikasía da eta, hagaitik, langabezia dela-ta, “gure amaren etxean, ba da baratzik, bada solorik eskua beharrez eta inortxok ere ez du joan gura. Edo bai, jaioko dira berriak.

13 Poetak bakarrik asma zezaken, halako herri sentikariaz, amaren etxetik igez doanaren bakardadea: “Maitatua sobera nintzelarik haurra/ ez nekien nik zer zen amaren beharra./ Bortu batean orain naiz bakar bakarra,/ amaz oroit orduko, heldu zaut nigarra”. (Oxobi)

14 *Itaurren<idien aurrean*, idiei bidea erakusten, goldea lerro zuzenetik joan zedin. Idiek zapaz estalirik izaten zituzten begiak, euliengandik jaregiteko. Eulien zitzak aztoratzen ditu idiak, eta agur orduan goldearen lerroa malkorreen.



Hirune, Asier eta Peru, erdia amak eta beste erdia amumak hasi eta hezitako umeak dira. Hori eskola izan zutena! Amak Gamizeko euskera eta amumak Meñakan Eme-randokoa egiten *eutsen*, biek ere mendi aldera jotzen zuten unekoa. Euskera “forma zaharrak” direla dinoe, hotz, bizi-bizian memoria sakonena dutenak. Hori da euskera izan ere, bere mezua bere heinean estimatzen duenarentzat behintzat.

8.5. Amaren etxea hitzaren memoria

Eskerrak baserritar nazen, ulertu aal izan dut, hitza eta jakituzko hitza bederen, amaren etxeari loturik dagona¹⁵. Etxeko tresna eta lanabes bakoitzak bere izena du. Mendiko ardiak eta kortako abere bakoitzak bere izena eta tokia dute. Abereen tokiak erdiko ormatik ate egozan eta behi bakoitzaren aska zurezko ate batek bereizten zituan etxeoengandik. Eguneko belarrak ere han beihen askaurrean uzten ziran. Atea ideki eta ekarritako gosaria serbitzen zitzaion ganaduari, bakoitzari bere askan, bakoitzari bere neurria. Gero atea txaramelaz izten zan.

Etxea ondo banatuta gogoratzen dut: sukalde zaharra eta barria. Sukalde zaharra tximini idekia, or. 19 ikusi dugunaren antzekoa egituran eta berria, ura berotzeko ontzi, labe eta txapaduna. Txapa gainean taloak erretzen genitun. Sukalde zaharrean txarriaren gozalea egozten zan. Hara joaten ziran sopra guztiak. Kaxa berezietan gordeten zan uruna, orpoz orpo ondo zapatua, beste batean indabak, harakoan beste garauak. Ganbaran, barriz, patatak, sagarrak, kipula, berakatz, etab. Patatak eta sagarrak multsoan, kipulak eta berakatzak elkarri ondo kordatu eta zintzilik. Etxeko edonok zekian gauza bakoitza non kokatuta zegoen.

¹⁵ Orain museo bihurtu ikusten dugu maiz, Artetan nafar Aldundiak duenaren antzeko, edo (or. 19) Donostin dagoen sukaldearen antzo. Artetako baserri museoak amaren etxeko baratza lantzeko lanabes erakusketa ugaria eta zehatza dauka. Bakarrik paperean tresna bakoitzaren izena ezartea falta zaie, euskeraz, ama eskola izan dadin, eta erderaz, turistaek ere kopia gonbara dezaten.

Amaren ordena denean: hizlari bakoitzaren etorria bezala, une bakoitzean idea berriak zekarren kordan berba aukeratua, hitzen iruditeria guztia, zeru makotik, lurrera edo itxaso zabalera sinbolo bakoitzak oratzen zuelako, eta hizketaren zaparradan, belarriak oratzen ez zuena, begiak orni zezaken, edo astamenak. Uste duzu begien aurreko gauzak edozelan pilatzen dituenak erraz aukeratuko litzazkela une bakoitzean? Edo zorki-morki josten duten atzama-rek, puntila eta guztiko, ehun apainik egin dezaketen?

Amaren etxeko ordena bera da memoria egina, burubidez lan aurreratua, etxera datozenak behingoan uler dezaten zer non den. Beti galdezka ez aritzeko, beti galduta, hiztegi bila. Eta halatan, hizkuntzalari batzuk nondik uste dezakete, hizkuntza une bakoitze-ko sortez erabagitako ahotzak direla, gure aiton-amonek amaren etxean jesarlekurik eguno izan ezbailuten, goi eta beeko arrigarri ugarien azalpena hasieratik eta hona eman gabe eta anitzetan kon-datu gabe? Bada, horixe egiten dute mitoari iguin egiten dietenek eta amaren etxeko hitzagaitik bost axola dutenek. Beste batzuk, ezjakinez edo destainez aipatzen dituzte “mitoak”, “mitozaleak”...

Besteak bestelaz, baina amaren etxeko hizkuntzak, euskerak, ba du bere hiztegiaren iturria nondikoa duen astarrenik, hitzak eta otsak nola jaso zituen, giza irudimenak nola arrapatzen dituen sei-nalatzeko. Harrigarriak dira gure amen alabak ehungintzan egin dituzten puntilezko orratz lanak. Eta zer dira hizkutzan bere joske-ran oratzen dituen edergarri eta esangarrien ondoan? Orduan bai ulertzen dut, Sapis hizkuntzalariaren esana: “hizkuntza gizakiak eguno asmatu duen arterik bikainena dena”, nahiz eta estruktu-ralistek horren merke saldu nahi izan nahi diguten amaren arterik bikainena¹⁶. Oraindino soineko bost sentzunekin ohartu, aztertu eta aintzat hartu gabe daukagu amaren etxeko hizkuntzaren arte lana.

16 Zergaitik horren bikaina hizkuntza artea? Bere edukinekaitik zihur, bere memoriagaitik. Galde marraski ikusgarrietako zazpi koloreen jokua eta haien arteko orekan pinturaren lilura, entzun kontzertuan ereskin bakoitzaren unea, oboek bibolinari egin errepika eta bateratzea, bada ohar amaren ahotan izadiko indar berriztagarrien laukotea eta hirukotza, giza burubideen seinua eta batasuna. Zeozergaitik utz eman zioten estruktu-ralistek euskerari, lehenagoko liburu ez hain santuen leterak, ama eskolako burubide eta ikuspuntuei, ohi bezala,.



Goratua izan zaitez, Ama, ura arrebagaitik, hain delako aratz eta apaina, gure uhar denak garbitzekok haina; goratua izan zaitez, Aita, eguzki anaia-gaitik, hain gertutik laguntzen baidigu eguneroko gorabera eta ahaleginetan; goratua izan zaitez, Ama, neba aireagaitik, zeuganainoko bidean hegoak eta zeugan ames egiterainoko arnasa prestatzen bai-dizkigu, goratua izan zaitez, Ama-Aita, gure lur kideagaitik, gure amaren etxeko baratzari prestatzen dion lur mardulagaitik eta gure aitaren soloei ematen dien urteko uztagaitik...

8.6. Amaren etxea, teologiaren memoria

Teologia berria gaurko aldien seinaleei begira egitekoa da, bada Espirituak nahi duen unean eta tokian putz egiten digu eta zentzunak adi egotera deitzen gaitu. Aurretiaz dakigu euria noiz egingo duen eta ez ete dakigu Jainko erreinuko ordua noiz den? (Mat 24:32) Amaren etxe urbilean, emakumearen ordua eta indar berrizkorren ardura bizia ohartu dugu geure bizigunean. Era berean Ekologiaren unea adierazten digu "Goratua izan zaitez" gutun orokorrak edo ama-aita arketipoen batzean, "Maitasunaren poza" idaztiak¹⁷. Holakorik ez dugu entzun gaurdaino apaiz generoaren ahotik eta gutxiago haien idazkietatik. Bazan ordu!

¹⁷ Frantzisko aita santuaren idazki biok bere arrakasta izan dute askoren pozerako, baina bai eta ere beste batzuren errarako. Diruari men egiten dienei bost axola lurraren pupuak, eta harrigarriena! elizako giltzak maneaten dituzten mutilek "kontuz! hor" esan dute, eta "Elizaren Dotrina" edo ohiturak aipatu, bada aldien aldiko seinaleak, distraitu egiten gaitue bide zuzenetik eta errukia den Ebangelioak "inpernua" aldarrikatzen eragotsi. Izan ere, *inpernua* argumentu andia izan da pulpitoan. Kendu inpernua eta zer gelditzen da? Eurak.

Amaren etxea ezeze, gure gorputza bera ere, izadiko elementuez osotua eta inutua dena ezagutzen dugu: bere aireak oxigenatzen ditu gure biriak, bere urak, gure untzurruna eta gozagarritzen eta garbitzen gure soina”, bere eguzkiak berotzen gaitu. Nork zikintzen du gure arnasa den airea eta guk edan behar dugun ura? Eta nork esplotatzen du gure elikadura den amaren etxeko baratza edo aitaren soloa? Denok gara baratze eta solo hoién arduradun, denok langile. Damu ekologikoa sor diogu sentiberatasun¹⁸ osoan, ura arrega, aire neba, eguzki anai eta lur soin-kideari, familiako arazoa denez gero.

Lur hau otzitzen denean, geu otsitzen gara, bera legortzen denean, geu egarritzen, lar berotzen denean, geu erresumintzen. Zer ez dugu egin izadiko lau elementuon joku onean, klimaren kalte barik, armonikoki jarrai dezaten? Zer egin, gauzak bideratzen, arbasoengandik jasoriko amaren etxeko ondasunak gure ondarearen eskutan osasuntsu eta garbi uzteko eta besteei eginiko kaltea geure kontra jarki ez daitekigun, bizi dugun kale gorrian¹⁹?

Aberatzek erantzukizun gehiago dute, diruari emanek, nekez begiratuko dio kaltetuaren asperenari eta, bateri eginiko kaltea denon erru salatzaile gertatzen da, elementuok duten elkertasunean. Ama-alabek amaren etxeko ohorea zaintzen dute eta izadiko lau elementu berriztaileok kosmoko edergarri eta bizigarri dira. Eurei begira egin teologia ulergarria daite, geure ama eta aita heineko bai-dira.

Gure arbaso ama eta aitaren mitoa Baradisuko sorkuntzan hasten da: Inkoak gizakia bere irudira sortzean, eme eta ar, bera bezala, ama-aita lez asmatu zituan. Eta *Baradisua* toki *baratua*>*paratua* da. Nork eta norentzako *baratua*>*baratsua*? *Baratze* horretan amaren eskua ikusten dugu, amaren etxean bezala. Amaren eskuak sal-

18 Arazoa ez da bakarrik “atez ate” edo hirugarren ontzian ondarrak uztea. Kaleak era batera, baserriak beste era batera, ikusiko du, aberatzak edo pobreak izan, bata bestearen ardurarik ezean.

19 Aspergarriak direa Eumenideak, baina errespetatuak: norbaiten odola ixurtzen denean, emakumea da, ama edo arrega, jasan kaltearen ehiagora behin eta berriro joz, herriaren aurrean salatzen duena, arit eta zuzenbidea egin eta ama erraiak baketzen direno. Hemen izadiko lau elementuak dira Eumenideen papera egiten dutenek. Guk egin kaltea, geuk ordaindu behar dugu, “ura da, gu gara” esloganaren eduko, edo “zikintzen duenak ordain beza” arabera.



Noren eskuetan dago gure mundua? Jainkoaren eskuetan, ez ala? Jainkoak geure eskuetan ipini zuan. Irakurri Baradisuko -a. (Has. 2,15) Nork du amaren etxeko baratzaren ardura? Lur hau ez da frontoeko erorien eskuetan izteko, eta harago baloia ostikatzen dutenen ostikopean. Bestelako jokua da hau eta guztion bizia du apostu...

ba dezake oraindino kalte andiagoetatik. Arazoa ez da *Urano* astroarena, geure baitako *Burano* urarena baino²⁰ eta amaren etxean ama da uren arduraduna, arketipoa ere den heinean.

Lurraren osasuna esku onetan itzi behar dela esatean, nazio arteko politika ea hautatu zentzundunen eskuetan dagoen arduratu behar dutela ONU-ko begiraleak²¹. Amaren eskua aipatzean, matxismoaren eskutik jaregin behar dela adierazteko da.

Jasaten dugun politikari dagokionez, gurean ez dira oraindino bakean gozatu igaran bortxakeriak utzi zigun sarraskia eta seta okerreko gendea berriro ere ursoen eta erroien arteko burruka berotzen ari da munduan. Eskerrak emakundearen ordua jo duen, politikan ere, ehungintzan bezala, hari ta kolore bakoitzari eskoldan toki eginez, gizarteak behar duen armoniazko konponketa egingo bai-dute.

20 Han lehen Baradisua susmatu zuten Sumeriarrek *Burano* deitzen zioten *Eufrates*^(g) < *Ibarrate*^(eus) euren erreka nagusiari. Astronomoak ziran eta goiko argi keinuen igarle. Guk *ura*, *burar* eta *buraso* (BN) izenak ulerten ditugu "guraso" zentzu berean, eta ez zan hola gertatuko euskera hau Baradisua garaian ere gausei bere izenak ipinten bizi izan ez balitz. Horra ba, memoriaren izenean, edo ekologiaren izenean, UNESCO-k ere, kontuan hartu behar luken arazoa: lekukoa gorde. Ezurren irakurtzetik sinboloen irakurtzera ere bidea egin.

21 Ausarta zan da gaur bertan (Deia, 2017, Ekainak 7) ONU-ko Kasku Urdinek zertan dagozen ohar egitean, USA-ko buruzagia, Trump Etxe Zurian bertan atxilotu barik, bada, Trump horrek Pariseko Itunben ekologia asmoa bertanbaera laga eta lurreko osasanari buruzko besteen ardurak bost axola diola, aditzen eman du. Nork atoratuko du holako moxoa amaren etxera, Ator Amak ere ezin izan bai-zuan Set setatiarekin?

Gizarteko bereziak>farestar izan ziran, herriari etika gogorra ezarten ziotenak, karga larregiak besteen lepoan, baina heurak hazamarraz ere ikutu barik (Mat, 23, 3). *Maitasunaren poza* agiria atera duela Frantzisko aita santuak? Maitasuna berez atsegina eta pozgarria ez bailitzan, edo eta "Jainkoa maitasun" (1 Jon.4:8), fares-tarrek aita santuaren testoari akatzak ipinten dihardute. Beraz, beste-teei karga larregiak ipini zaleak ezeze, besteen bihotzeko poza garrastu zaleak ere ba-dira eta besteen askatasuna laburtu zaleak.

Maite>*maitasuna* aipatzean, hitzetik ortzera jo beharra dugu hermeneutika zehatza egin aal izateko eta hitz honen arketipoak aztertu behingoz: AMA+AITA^(eus) MA.AT^(k)>MAITE. Ezagunak ba ditugu, begiratu hurrengo amaren etxera, ea pertsonaiok zelan egiztatu diren gurean, gure guraso ama-aitak, ea ezelako armoniarik izan den. Aztertu ARMONIA hitza ere. Ustez grekoa da eta grekotzat daukee. Baina izatez grekar klasikoaren aurretikoa da, Mikenaskoa, Minoskoa, hotz, euskeraren anai-arreba zirenen hizkuntza eta amatar kultura berekoa. Hagatik ez dago AR eta EME arteko armonia baino oberik: ARTU+EMON ariketa dena, ekintza horrek eskatzen duen erritual guztiakin.

Aita santuak herriko eta elizako gende ulertuari batzarrera deitu eta eztabaidatzeko agindu zien eta argi esan "eztabaida guztiak, direla dotrinaz, moralaz edo pastoraltzaz, ez ditugu halako maisutzaz erabagiko, denon artean, nolabait, argituko dugu". "Inkulturatze alegina behin behinekoa da arazo denetan, Elizan ezin daitekkelako dena orokorrean, Dogmaz eta Magisteritzaz ebatzi".

Inkulturatze maila horretan euskera gureak ere ba du zeresanik, alainkoa! Zer esan nahi du honek? Gure gaurko gotzainek ez direla nor, ez *episkopu*, ez *baratzakusu* arazo honetan, hermeneutika²³ falta zaielako. Gotzaingaiak, gotzaitegira igon orduko, euskera ikasi beharko lukete denek, aita santuak *Maitasunaren poza* idazkian dinona ulertu eta bihotzez jarraitu aal izateko.

22 Grekar klasikoak gero, ARMONIA hitzari edergailuz H amantala jarri zion aurretik, gero ere, ezjakinez, hori bai, gure arteko neokolonialistek euskerarekin egiten/egin dutena bera.

23 Hermeneutika, Ricoeur maisuaren gardiz, hitzari lehengo esanahia hitzultzea da, kasu honetan ARMONIA hitzari ere, berea. Bibliako exegesian ardurazko hastapena da hermeneutika. Hasierako edukina, ez trukatu.



Nortzu dire honeek eta nori egiten diote barre, txiki eta andi, hain samur eta bateratsu egin ere? Hor apostua dago: txoriari noiz urtengo begira-edo, ausaz aita santuaren “*Maitasunaren poza*” irakurri dute. Ba, irakurri zeuok ere.

Ze erejia ikusten dute beste mutilok idazki honetan? Aita santua ereje? Ez ete da euren *eretsia>erejia>heresi*⁽⁹⁾ gero eta argiago agertzen dena? Herriak berak ikusi dagiala eta juskatu jusorik ez duena. Betiko klerikalismoa, edo haren ondakinak, dihardue ostetik, izkutu-ka, euren “pribilegioak” *bereziak>fariseuak*, boterea eta ekonomia zaindu gurarik. Emakumea aurrera dator denean eta bildur dira egunen baten, bihar edo etsi, atzamarra jaso eta hitz egiteko txanda eskatuko dien. Zertarako? Egia osoan salatze²⁵.

Militarrek burdinezko kaskoak jansten dituzte gizonezkoen artean, gotzainek morrien andiak buruan, itxurak²⁴ berak izenaren gara eman dezan eta entzulegoak *ituan* edo *itxuan*, magiazko kolpean har dezan, “heman nago ni...” berbetan hasi orduko.

24 *Itxura* hitza ere aztertu egin behar da, ez aztu bere mailako *itxurazale* fari-searrei egotzia (Mat. 23,5) Begiradan *itu+-ra*, ezagunak ziran. Erderak *factura>hechura* kuperatu nahi dio hitz honi ere, behin, *h-* amantala ezarriez gero.

25 Hagaitik baliatu dira gaurdaino Apostoluari egotsi harako ziriez: “emakumea ixilik elizan” (1 Cor.14:34) edo “ez dut jasaten emakumeak erakusterik, ez eta gizonezkoan gain eskubide izaterik, isilik egon daitela baino. (1 Tim 2:12).

IX. BIDE GILEAK EZAGUTU

Igarleak, profetak, lekukoak, bidegileak, guzti hori dira etorkisuna ikusten duten guruak eta dakusena herriari dohan eskeintzen dienak. Gehien baten modako erabagien aurka iragartea tokatu zaie eta, hagatik ez dira izan maiz onartuak, bai zehatuak, beti ere hala gertatu izan denez gure munduan.

Bidegileok eskarmendu latza jasan zuten Europan bederen, bi Guda Orokorren erdian giza adimena estutu eta gizarteko gaitzaren iturriak aztertzen. Ez bakarrik faxismoaren, komunismoaren eta kapitalismoaren erruz, bai eta gizaki beraren baitan izkutatzen diren gurari uzkurtu edo zapustuen burrukagaitik, edo eta gorputzeko gaiso eta animako ahulduragaitik ere.

Europa supergizona asmoetan zebilen XX gizaldiaren erdian, Gilgames K. aurretiko bi milagarrenean Sortzalde Erdian bezala, eta aztinaldi andiez zigortu zuan bere burua, txikitu, erre, apurtu. Zer egin behar zuan giza adimendunak halako ondamendian, norbere gaitza aztertu baino? Ba zan Eranos izeneko talde bat, Frau Fröbe andrearen etxean batzartzen zena, ada askotako jakintsuk osatzen zutenen maingurua, Sortzaldeko jakinduriaz Sartaldekoa ornitzen zuten, lehena orainaz. Halako zerbait egi-ten dute, zientziei lotu, monxeak ere monastegietan: aztertu, burubildu, otoiztu eta amaren etxekoen eskolarako liburuak idatziz.

Bidegileok ez dira elizak aldarera eramaten dituen jendea, santu laikoak bai-dira: gizartea dohan aberastu duten maisuek, guruek edo eroi argitsuek eta zuzen ibilteko senda berriak erakusten dizkigute, eta batez ere, barnera begiratzuz, egarrien asezteko urak geure barrutik ateratzen. (Ikus or,117)

Zientziak arrazoï ematen die giza gurenek gizabideko humanismoan idekitako bide berriei. Adibidez, "fedea ez dio zientziari bildurrik" esan ohi da, bada, zientziak ezin dezake juzgatu fedea, bai, oster, itxu ez den fedea onartu eta oztopo gabe jarraitu zientzia. Kosmoa zientziari bezainbat, fedeari idekia dago, eta batak besteari oinak zapaldu gabe, dantza dezakete armonian.



“patina sakona da eta ez duzu zerez urik atera”. (Jon 5, 4-42)

9.1. Carl Jung eta sikiatria sakona

Jung maisuak barrura begiratzeko dinosku, antxinako *nosce te ipsum* geure egiteko. “Norbere ezagumena, gaitzena” dino beste jakinduria batek, gauzea ardurazkoa dela azpimarratzen.

Gure baita ilunbea da eta bakoitzak isiotu behar ditu argiak, lehoiak atera norbere etxeari, eguzki dizdirak barrura sar daitezzen. Horretan ereduia da amaren etxea, behin koba zulotik urten zuenetik. “Argitu gure arketipoak” dino Jung maisuak, antxinatik, hotz kulturen hasieratik, baitan ereindako haziak bai-dira.

Sikiatra zenez, ondo ezagutzen zuan giza soinak burmuinagazko dituen harremanak, gurari eta amesak. Buruan dauzkagu sentzunak ere, ikusi, usna, senti, entzun aal izateko. Sentzunon bidea, zientzia legez, gauza fisikoen azterretetik doa, gizakia ez

1 Ezagun>zeguna, itzulitara, *gnosce* dator grekar eta latinez, klasikoan deitu lapurretaz, joanekoei “barbaro” deitu aal izateko. Hori ere *ezagutu* dugu eta matxismoaren setari egotzi, bada setatia norbere umea, emazte amari min egitearren, hilteraino doa. (F. ZUBIAGA, *Ama eskolako hizkuntza orokorra*)

2 Sena eta ezagumena buruko muinean ezartzen ditu gaurko medikutzak eta sikologiak. Hagaitik buruan kaskoa erabilten da, ez idea berriei atea erztekotan, istripuetan kaltetu ez daiten baizik. Antxinekoak, osteria, koptoek bezela, sena eta ezagumena bihotzeko bilpiran zegola usten zuten. (ikus or. 51)

delako angerua, ez abere hutsa, soinkeraz antzeko izanarren eta dugun izakera nastuagaitik, alde bietako tirria² handian bizi baigara, nora ezik sarritan.

Jung-ek mugonean utzi zuan alde batera Freud kidearen azal-keriazko bidea, soilik seksuan bai-zekusan harek giza konplexuaren kauta. Ez, handik haratago doa mugiarazten gaituen deia. "Bila arketipoak"⁴ hots egiten digu, izan ere horrek dira gure asaben kulturako lehen ereduak. Nora begiratzen, zer sinisten zuten, nola moldatzen ziran? Ba al dago gure baitan Maidi edo Mariren arrastorik? Amaren etxean ama da umeei jardura onerako oharak egiten dituen. "Amak esan du" legea da⁵, esate baterako.

Arketipoen mailan Jung-ek "norbere arketipoak eta Bestearen arketipoak bereizten ditu"⁶. Norbereak, gizaki berarenak dira. Bestearen arketipoak aipatzean, maiuskula darabil eta "jainkozkoak" esan nahi du eta gizakia, arketipo mailan, Bestearen arketipo peituz, agerten dela, dino. Nolabaik "ez bai-gagoz geure baitan, bestearen baitan baino" harako Joxe Mielena, adierazten digu.

"Laster antzeman nuen bizitzako ardurei, barrutik erantzun ezik, ez dutela ezer baliagarriarik baitan. Azaleko zerzeladak ez dira ezertxo baitakoen aldean. Azalekoez ez dut zertan arrotu, uskeriak bai-dira, barnekoak ematen didate bizitza ulertzea".

Hizkuntza "mito bizia" dela dino Jung-ek, euskerarik ez zekiala, eta gizakia bera ere mito bihurtzen dela, arketipoekiko tirabiran, ama-umeen arteko tiria bezala. Agintzari, yoran, tiria/tirria, nola deitu, nola lortu? Izan ere, sakona da gure urtegiaren patina eta oštaz eltzen da gure katea uraren sorguraino. (Ikus or. 117) Gizakia bera galaxia txikia da, galaxia andia ulertzeko. Hala ere, amaren etxetik begiratuz, urrago dakusagu elburua.

3 *Tirria/tiria, tiratu>tirar>tirantez>tiro* norbere gurarien batera eta beste-terako bultzadak eta erakarmenak dira.

4 "Arketipoak? -Barre egin omen zion Freudek ikasleohiari. Sarritan entzun dut, "ez arketipoak bakarrrik, akertipoak ere ba dagozela" (Ikus or. 34)

5 Edozein abere sabelaldiko kumeak adi dagoz amaren deira eta ezbaigabe ulertzen eta jarraitzen dute haren esana. Zenbat harago hezkuntza berean berei ohar egiteko, ahozkatuko hizkuntza ahozkatua erakutzi zienak!

6 J. VIDAL, *Jung C.G. DR.*, o.c. 936-941.



soina dut lurra, ura, nire odola, airea, nire arnasa, sua, nire espiritua

9.2. Bachelard eta lau elementuen dantza

Lau elementuen dantza gizakiaren soinean eta baitan agertzen da autore honen gardiz, beraz horra gure Ka eta Ba ere alegin berean: ura, sua, airea, lurra irudien keinu materialaz idearen espiritua sortzen. “Ba naiz -dino bere filosofiak-, beraz laukotxa naiz: ura, sua, airea, lurra naiz”⁷. Bai al da espirituarentzat toki-rik? Ohar sua eta airea: ba dute espirituaren antzik, ez dira ikui-garri, bai sentigarri. Gorputza astuna da, baina, musikaren aireaz, dantzak arintzen du. Zientziak berak, fisikotasunean oinarrituz, azaltzen du benetasunaren bidea: gizakiak soinkeraren gi-harraz dantzatu behar du, artea egin edo zenbatuz, matematika egiztatzeko. Aburu utsez, aidean egindako egakadetan magiaren gezurra izkuta daiteke, amatu ordez, amakatzen dutenek bezala.

Urari “arrebá” deitzea edo suari “anaia”, “*Suaren sikoanalisiá*” aztartzea bezala da, hotz, poesiaren oinarrira joatea. Materiak⁸ ez du kutsatzen idearen garbitasuna, laguntzen baino. Materiak fisi-

7 Elementuon dantza tokia eta gunea (ikus or. 119), ama da, amaren errai-nak, giza biologia, bizi bakoitza, han umatzen da, aurreko dantzariak adierazten digunez, eta hala ere, ezkontza miragarriago batera deitzen gaitu.

8 *Amatar>materia>madera* dator euskeraz, beraz, “gaiak” baino hobeto adieraten digu idea, ama delako lekuko behinena. Materia bizia da, gaia, hila.

koen "idea garbiak" astoratu zituan eta platonikoak amakatzera lerratu⁹. Zer du geure elikua den materiak gu astoratzeko? Analizatu eta sikoanalizatu materia. Analizatu eta laukotxa da: ura, sua, airea, lurra. Sintetizatu eta bakarra: *materia* < *amatarra*, baina azalak gordetzen dituen giza arketipoen marka dutela, heurretan Ba, baitako mundua. (Ikus amaren etxea, or. 26)

Bachelard maisuak poetika aztertzen du, hizkuntza poetikoak sinboloen eta analogien¹⁰ bila, izadi elementuetara duen jokera, barne ispiluaren disdirak bailira, edo amesetan berriztu memoria, haiengan aurkitzen bai-dute erantzuna: uraren partele garenenez, ainubietan, suaren kide garenenez, eguzki solduran, airearen eduko garenenez, espazioko azkatasunean eta lureko biztanle garenenez, etxe mugatuagoan ere, deslai, ameslari.

Bide beretik maisu honek hiztegiaren harrobia izadiko lau elementuotan idorotzen du. Beste era batera, Max Müllerrek esana: "hizkuntzaren garapena analogia da". Bachelard-ek *hormona* hitza darabil eta harrobia, gauza bizitik bizira bezala, eraman nahi bailu, gantzak soinaren energia bihurtzeko, hormonek gudan daren lana azpimarratuz edo izadiko elementuen kidekoak garela adierazteko, guk ura edaten dugunean, eskuak txapan berotu, hortuariak jan edo arnasketa ariketak egiten ditugunean.

Gure iruditeria lotzeko "untzak" direla dino. Amaren etxeko ganbaran baratzeko uzta pilatu barik, txortatu berakatz edo tipulak untzetatik esegitzen dira, multzoan mailatu ez daitezkan, baina batez ere, bakoitza bere kuadroan berezi, bila doanak erraz aurkitu ditzan. Kordatu, untzetatik josi, jostun lanak dira, berezi, zehaztu, hizlariak ere, hitz orduan, aukerako etorria izan dezan.

9 Fariseoen pekatu berdina da: itxura maiteago dute, muina baino, batez ere muina amatarra denean. Ondo merezi du "matxismo konplexua" deitzea. Erleginoen esparrura etorri eta apaiz matxisten magia: fede barik, jainkoekiko zubia egin gura eta zubi horren jabetza faxiskeriaz jagon.

10 Sinboloak eredu nabaria izentzen du, iduzkia adibidez: "Ama Utu bezala da, gizakia edatzen du"⁽⁶⁾, "Kristo, zuzentasun eguzkia" (inoa), etab. Analogia "goitiko hitza" grekoz, hotz, gure zertzeladen eredu goian ohartu eta haren kontsonanteaz baliatuz adieraztea, "Utu duin da", "Ama mana da". Horrela antzeman genezake, XVIII-tik gerora, gramatikari susmokariak "analogia" gramatikatik baztertearen kauta edo zergaitia.



gizakia mito bizia da, izadiarekiko elkartasunean

9.3. G. Durand eta mitoanalisia

G. Durand aurreko maisu bien jarraile izan zan, berea egiten zuela hako Jung-en oharra “besteengan ohartuak astoratzen gaituenak beste aukera bat hartzen laguntzen digu”. Besteak estrukturalistak ziran, hotz, “gramatika berriaren” egileak, hitza uanean uneko hotz bezala, hartu behar zela, gainerako loturarik gabe, aldarrikatzen zuten F. Saussuren jarraileek¹¹. Alderantziz, hitzaren mezu osoa jasotzeko, bizian aztertu behar dela, dinoe mitoanalistek. Ez ebaketarik egin, ez izan gorpuzkin berezien sendagile, ez umea amagandik banandu. Hitza, kulturak bezala, aldien katea eskatzen du diakronian, ez une bateko begirada “significante-significado” epaira, “analogizante-analogizado” lez baizik.

G. Durandek (1979) idatzi zuan liburua *De la mitocrítica al mitoanálisis*. Geroago, haren barri jakitean, neure ikas asmoen egiunea egiten ari nintzala, bidea argitzen zitzaidan¹². Eskola Nagusiko azal-

11 Hagaitik ikasi genduñ Linguistika Fonologia izan zan: abozkera nola gertatzen zan gorgatik miin eta ezpain aginetara. Menphisko apaizek “bihotzetik abotzera” esan zuten. Haiena magia zan, hoiena, magnetofonía-edo.

12 Artean ez zan abesten gure artean Txoria txori, baina nahiko zan haren doinura koru egitea, Eskola Nausian ere sasieskola egiteko.

pena literatura mailan zan, exegesi arloan bezala, baina exegesi metodoa bera ere nik euskeraren egituraz eta haren sorgu eta jatorriaz lotzen nuen hasieratik¹². Literaturatik hizkuntzara egin saltoa izan zan funtsean. Benetan arraroa besteen kasoan¹³, baina gauza arrunta euskerarekiko apostua gogoan zeukanaren senean¹⁴.

Gizakia bera ere, mito bizia denez, ezin daiteke berezi bere sortzaile amagandik, edo soina sortzen, inutzen eta mantentzen duten energia bizietatik eta giza biologiaren garatzetan, landaretzak edo aberediak bidenabar ematen dizkion oharretatik. Amaren etxeak, elikagai ezeze, eskolagai ere, izan du izadia eta nortasun kidegai ipuindu ditu abere pasadisuak. Amaren eskola, memoria sakona.

Amaren etxeko kosmologiak bere erregelak ditu gure biologia mailan eta eman zaigun sena jarraituz, legezkoa dugu bidetik jarraitzea, izadiari kontrajartzeak *asaga*¹⁵ aurreratu bai-diezaikigu. Asaga horrek eroi askoren filosofia errarazi du, giza zoria Ba baitan ez egozteagaitik. Osasun bidea ekologia da, *ekologia* amaren etxeko eskola garbia da¹⁶. Ez da zilegi batzuren erregarriez aldamenekoaren arnasa kaltetzea, ez lagunartean, ez eta munduko nazinoen artean.

12 Maesa gaztea laborritu zan hasteko, ez zidan oharrik ere egin eta aprobatu egin zidan. Eskerrak bere lezinoei, *Vascuence y mitoanálisis* tituluaz argitaratu nuan 2000 urtean nere tesia. III Milaurrena hazteko egokia eman nuan.

13 ¿“Tu sabes mucho euskera, verdad? Nik “baietz, maisuari” eta jainkoen hitzekin hitzak sortzen zirela adierazteko lanak aurkeztu nizkion, baina *nomina sunt numina* “hitzak jainkoak dira” aditzen eman gabe. “Pues no hay en España un profesor que te pueda aprobar esta tesis” izan zan maisuaren erabagia. Une haretan ez nion sinisten maisuari, baina gero bai, or. 85-ko 25 notan esanakaitik, eta batez ere, Unibersidadea bera ere ez dela oso librea ikustean.

14 Behin halako apostua egin nuan euskera ikasle nerabeen aurrean “euskeraren alde zerbait berezia egin bahar dot”. Zer ez nenkian. Gramatika aztertzen alegindu nintzan. Poesia egin behar ete? Bai, baina gero *Eleiker* gertatu zan.

15 *Asag*^(s) *asaga* “azkena” da, ez du energia berriztagarriez berriz *asi* eta jarraitzerik. Hiru anaikide ezagutu nituan, ni baino gazteagoak hirurak, baina bai eta erretzaile porrokatuak, gero berandu izan zan medikutza onartu eta penitentzi egitea: hamar urteko bizi epea galdu zuten zoritxarrez.

16 *Ekua*^(s) *oiku*^(s) “etxea” *oiko*^(eus) “ohiturazko”, ama eskola bezala.



Jesusen afarian denok partaliar, txiki-andi, eme-ar

9.4. Ivonne Gebararen ekofeminismoa

Aipatu maisuek bidea ideki zioten feminismoari. Eranos bazkune etxeko abegilea emakumea zan, izan ere. Emakumea izaditik gertu bizi denez, lau elementuen ekologian kontzientzi argiagoa dauka, fisika horretan, zientziak ere oinarria. Teologiak itzuri al dezake marko hori? Hor salatu behar da eroiaren erratua¹⁷. Eleizan apaizgoak maiz eroi erratuarena egin du, emakumea liturgia arduratik aldentzean, eta hain eroki, amaren etxeko oinarriak atakatur, antiekologia agertu da gaurko gizartean¹⁸. Patriarkatua deritso eroi erratu horri eta bere kume klerikalismoari.

Ivonne Gebara, Helder Camararen ikasleak, feminista askoren artean, arpegi arpegira jaurtitzen dizkio elizari emakumearekiko duen bereizketa eta ekofeminismoa deitu mugida bultzatu du Ego Amerikan, askatasun teologia antzera. Jainkoak emea eta arra sortu zituan, eleizak emea arriskugarritzat apartatu eta gizonzkoa aukeratzen du Jainko serbitzurako. "Emakumeak ez al du

17 Ikarok, arranoa abezala, egaz nahi izan zuan. Luma luzenkak pikeaz erantzi zituan besoetan. "Ez egan altuegi eguzkiak jo ez zagizan"-esan zion aitak. Ikarok gorago eta eguzkiaren beroak pikea urtuz, eta lumekin batera erori zan.

18 "Sara, nigeriar gaztea, Bilbora etorri zan, medikutza ikasteko amesetz, kaleko neska merkatua daroen nigeriar sarean erori zan." (Deia, 2017, ekainak 19)

Jainkoaz zer esanik? Jainkoak emakume eta gizonezko sortu zuan gizakia, bere irudira. Teologia garbian gizonezkoek bakarrik pentsa al dezake Jainko irudia? Emakumeak ba du horretaz zer esanik, ala sexua al da almen ezin horren kauta? Sexu emea al da zikina?¹⁹. Ez ete da zikin handiagoren bat izkutatzeko amarrua? Dirua eta boterea eleizan nork kudeatu arazoa, adibidez?²⁰.

Jesusen Ebangelioa neba-arreben arteko demokrazia da. Nork behartu zuan Jesus kurutzera? Haren odola atsegin izan ete zitzaion Jainkoari eta besteen odola ez? Horra, bada, patriarkalismoaren moralak: emakumea, sexu zikina, bortxatu daiteke, saldu, baztertu eta erail. Kristoren odolak denetik salbatzen gaitu eta sagaratzean, apaizaren hitzetara, ogia Kristoren gorputz eta ardao, Kristoren odol bihurtzen da, guztien salbazinorako. Eta beste kristinauok geure laguntza eta alegiaz ezin ete ditugu ezinduak eta behartzuak hemen salbatzen jardun? “Nire teologia ez da idea goitarren egada, lagun artera doan begirada baino”.

“Ez dut *gaitzari* buruzko teoria egiten, ezpaere orain bertan honako pobreengan edo harako emakumeagan ematen den gaitza hazterzen”. “Lurraren gaineko giza gorputza osatu eta harekiko dugun erantzukizuna osatu. Hori da ekofeminismoa²¹”.

Enperioak, osterak ere, Baradisuko subea sartu zion elizari santutegian bertan. Jesusek neba-arreben lagunartea zuan maite, eleizak bere Kanonak jartzen ditu aurretik, ez dio zorrik demokraziari. Jesusek Jainko Erreinua jartzen zuan pobreen alde, enperio eta apaizgoaren gaindi, eleizak apaizgo sagaratuan oinarritzen du bere erakunde mailkatua, ohoretan “nori berea” gordeaz.

19 Gauzak gordinen hartzen direnean, asierako eroien erratua dator gogotara, edo Orus eta Set, Atorren semeen arteko mina Egipton, edo Mariren seme Mikelats eta Atarrabiren mito berantiarra, Euskal Herrian.

20 Frantzisko aita santua Vatikanoko diru baltzak garbitzen asi denean, agertu dira Kuriakoen, kristinauen lotzakizun diren pekatuak ere eta kardenal setatiak Frantziskoren aurka duten altxatu nahia. Mito zaharrak berritzen. Frantzisko Santa Marta komentuan bizi da, amaren etxean bezala, eta ez talakotan, Vatikanoko setatien estropozuak itzuriten ditu. Zein da euren aitzakia? Frantziskok *Maitasunaren poza* idazkian esaneko *eritsiak* > *erexiak* ematea.

21 MARY JUDITH RESS, *Espiritualidad ecofeminista en América Latina*.

ONDORENAK

Emakumeak Neolitos garaitik eta hara amaren etxe ondoko baratzean ezagutu ahal izan ditu, Inkoaren dohai bezala, izadiko lau elementu bizigarri eta berriztagarriak: ura, sua, airea eta lurra eta eurekin halako maite kidetasuna sentitu izan du, bizi iturri, elika, adore eta eurekiko armonian biziz, lagun min aurkitu dituelako. Elementuokiko harremanetan, jainko egile bezala ikusi izan ditu kosmo andian eta urtero euren jaia ospatzen zuan eguzki mugetan, eta eurekiko harremana finkatzeko, ahozko agurrak eta eskariak asmatu zituan. Euren izenei egindako otoitzez, hain zuzen, hizkuntza ahozkatuari sorrera eman zion eta, jainkoei norbere erantzuna eman ahal izateko, soinean dituen hastapenak: gorputza, baita eta goitik zetorkion santutasun itunbena aurreratu zituan inkoekin hizketatzeko: zazpi zutabeko iruditeria eta hitzen iturria, etxekoen adimenerako, eta azken baten, "zazpi zutabeko etxe" deitua jasotzeraino.

Amaren etxean, berezko matriarkatuak gara andia eman zion amatasunari eta jainkoetan Maat>Maite, jakinduriaren, zehaztasun eta zuzentasun ereduaitortu zuan. Amaren etxeak, patriarkatu zantarrenean ere, min gorde ahal izan du amarekiko atxikitasuna. Hala ere, ezagunak dira, familietan gaurdaino ematen diren anaien edo neba-arreben arteko seta bereziak, ezin ulertuak, maiz sikiatren argigarri lirakenak. Antxinako susmoek Su.ap "sube" mitoaz azaldu zuten giza gaitz hau, eta "liburu santuek" etxeko ama bera salatzen dute ume aul eta hilkorren sortegiletzat, "On eta gaitzaren jakinduria arbola" aipatzen digu Bibliak edo "Babeleko zigorra", "Jatorrizko pekatua" teologoen, gero zientzilari susmokariek "Sexuorokorra", "Indoeuropeismoa", etab. bezala, errabideko aitzakien kapape estalgarri.

Halatan, patriarkatu altxatuak aulkia kendu zion Ama Jainkoari Egipton eta Babilonian, gaztediaz gudarostea armatu eta esku gogorreko legedia leporatu herriari eta enperio zapaltzailea atzerri menderatuen aurrean, gaitzaren domeinua ugaritzen zuela. Bide hortatik joan da, Greziak eta Erromak guri opa izan diguten

kultura eta hortan darraie gaurdaino inperialismo guztiek. Hala ere, egunotan ikusi ahal izan ditugu inoiz baino argiago, elizako buruen gela ilunak, alde batetik, eta kapitaldun ekonomiaren gaiztakeria eta politika ustelaren arpegiak eta izen-abizenak bestetik, betiko gezurra dutela estalgarri.

Historiako eskarmendu hauek ohartzean, amaren eskolako hizkuntzak, euskarak, bere baitan ohartzen ditu eta lehena orainaz uztarturik ahalegintzen da: ulertzen du, batzutan erraz, nekez bestetan, hala nola iberiar idazkizun errebesak, edo eta sumeriera eta koptoa etxe bereko egiten dituela: hasierako ama eskolaren batasuna adierazten edo gizarteko familiaren solidartza orokorra aitortzen.

Garaiotan antropologiak, ekologiak eta beste gizarte zientziek gizakia bera aztertu dute izadiaren erdian elementu eragile, ongile edo gaizkile, eta sorkuntza orokorraz eta lurraren etorkisunaz arduratzen dira. Aurrera pauso egin orduan, lehenaren memoria jaso behar dela konturatzen dira eta patriarkatuak amaren etxearen eta haren eskolaren aurka egin kalteen garbitasuna zor dio justiziaren izenean, ahalik sakonen eta gizarteko erakunde guztietan, azpi-sube mitiko horren buztana behingoz salatu eta galazotzeko, hotz, gezurraren ilunbeak eta magiaren erreinua herriko plazan epaitzeraino, hala nola emakundeak sexu bortxaketak salatzen eta epaitzen dituen.

Memoria ekintza honetan, euskarak eskola berezia du eta euskaldunek berriz, eskarmendu andia historian zehar, geure lurrak, geografiak eta amaren etxeko senak eta itunbenak gorde baigaitu: hagaitik, herri legez, ba dogu zer esan, erakutsi eta zeregin munduan, ez bitimarena eginik bakarrik, bai eta erailea eta etsaigoaren zoko ilunak salatuz, dela politikan, dela edotariko kultur-gintzan giza eskubideen legea eskatuz.

Amaren etxea, gizadiko lau elementuen eta gizakia bera den elementu nastutik eraikia ikusi dugu. Euskera jatorriaren garztetan, etsaigoaren mundu iluna ezagutu ahal izan dugu, sorrerako pekatu bezala, hotz, nola aita batek semea erail dezaken, haren amari kalte egitarren, edo hizkuntza klasikoek amaren

eskolako hizkuntza, lekuko salataria, nastatu edo ezabatzearren, nahiz amatar biologia bera ezaintzat jotzearren, hitzaren magiara jo behar izan, gaur bertan ekonomia zantarra indar galkorren bila, ekologiazkoa irauli minez, dabiltzanen antzera.

Asierako kultura zaharretatik jada gizaseme setatiak amaren etxeari eginiko kaltea ezagutua izan behar du, bakoitzaren errua norainokoa den jakin eta damuak eta ganora aldaketak garbi ahal ditzan. Amaren etxeari egin kalteak ere kaltetuen memoria eskatzen du. Inosorik ez da salbatzen Inoteri honetan. Etxekaltek joanaz aztu gaitezela nahi lukete, hurrengoan ere bitimak erosoago atakatzearren. Gaurko egunez, inoiz baino errimeago, "asmoz eta jakitez" aurre egin diezaiekegu.

Jakinik, eleizako kultura patriarkatuaren mendean egon dena gaurdaino, magiaren apaizgoaren subeari aurre egitea dauka, medikuek kanzerrari egiten dien bezala. Bere kulturako den apaizgo sagaratua jada badoa eta beioa zorionean, amaren eskolan ikasi ume arrunten sena, gizabidea, herria gidatzeko prestatzen ari delako eta aldarriz: ideki bide berriak teologiari, aldien seinaleei begira eta Jesusen amatar lehentasunak behingoz onartuz: 1^o herriaren osasuna eta osakuntza, 2^o guztiekiko elikadura eta maikidetzeta, 3^o elkartasuna eta gizabidezko feminismoa.

